



Kirol Arrantza eta Kasting Txapelketen Arautegia

AURKIBIDEA

- I AURKIBIDEA.**
- II HITZAURREA.**
- III KIROL ARRANTZAREN ETA KASTINGAREN ARAU GENERIKOAK.**
- IV ARRANTZA KONTINENTALA.**
- V ITSAS ARRANTZA.**
- VI KANABERA ALA KASTING JAURTIKETA.**

AURKIBIDEA

	Artikuluak	Orrialdeak
HITZAURREA.		4.
I. IZENBURUA: Kirol Arrantzaren eta Kasting Txapelketaren Arau Generikoak.		5.
I. KAPITULUA Definizioa.	1- 9.	5.
II. KAPITULUA Eskumena eta Jurisdikzioa.	10-12.	5.
III. KAPITULUA Arrantza eta Kasting Txapelketen Bereizketa.	13-15.	6/7
IV. KAPITULUA Arrantza eta Kasting Kirol Arauak.	16-26.1.	7/10
V. KAPITULUA Tituluak, Sariak.	27- 30.	10/11
VI. KAPITULUA Txapelketen Antolaketa. Baldintzak.	31- 34.	11.
VII. KAPITULUA Txapelketen Partaidetza Arauak. Baldintzak.	35- 41.	11/13
VIII. KAPITULUA Goi Mailako Txapelketa eta Euskadiko Selekzioak.	42- 44.	13/14
IX. KAPITULUA Epaimahaia, Batzordeak, Epaileak, Kontrolak eta Selekzio/Taldeko Ordezkariek/Kapitainak.	45-53.	14/17
X. KAPITULUA Aktak.	54-55.	17.
XI. KAPITULUA Arau-hausteak, Legeria aplikagarria, Diziiplina Organoak, Zigorrak eta Prozedura Zigortzailea.	56	17.
XEDAPEN GEHIGARRIA.	Bakarra.	17.
 II. IZENBURUA: Kirol Arrantza Kontinentaleko Txapelketen Arau Bereziak.		18.
I. KAPITULUA Izokinkideen Arrantzarena.	1-10.	19/23
II A) KAPITULUA Ur Gezako Arrantzarena.	1-10.	23/28
II B) KAPITULUA Carpishing Arrantzarena (Arrain Handiak).	1-10.	29/35
III. KAPITULUA Black-Bass Arrantzarena.	1-10.	35/41
 III. IZENBURUA: Itsasoko Kirol Arrantza Txapelketen Arau Bereziak.		42.
IV A) KAPITULUA Itsaso-Itsasertzeko Jaurtiketaren Itsaso Arrantzarena.	1-10.	43/47
IV B) KAPITULUA Itsasertzeko Botaldiaren Itsaso Arrantzarena.	1-10.	48/51
IV C) KAPITULUA Harkaitzetako ala Rock-Fishing Itsaso Arrantzarena.	Bakarra.	52.
IV D) KAPITULUA Itsasertzeko Spinning Itsaso Arrantzarena.	Bakarra.	52.
V A) KAPITULUA Ontzi Ainguratuaren Itsaso Arrantzarena.	1-10.	52/55
I. ERANSKINA Ontziko Plaza Banaketa, E.F.-ko Partaide kopuruaren arabera.		56/58
V B) KAPITULUA Ontzi Spinning Itsaso Arrantzarena.	1-10.	59/62
V C) KAPITULUA Ontzi Jigging Itsaso Arrantzarena.	1-10.	63/66
V D) KAPITULUA Itsasertzeko Currican Itsaso Arrantzarena.	1-10.	67/71
VI. KAPITULUA Altuerako Itsaso Arrantzarena (Currican eta Brumeo).	1-10.	71/76
 IV. IZENBURUA: Kasting Txapelketen Arau Bereziak.		77.
VII A) KAPITULUA Kasting ala Kanabera Jaurtiketarena.	1-10.	78/87
II, III eta IV ERANSKINAK Grafikoak, Pistak, Muntaketak, Baliozkotzeak, Jaurtiketak eta Tolerantziak.		88/94
VII B) KAPITULUA Itsasoko Botaldi Astunarena.	1- 10	95/98
V . ERANSKINA Itsasoko Botaldi Astunerako Jaurtiketa-Poligonoa.		99.

HITZAURREA

Arrantza eta Kasting Euskal Federakuntzak (aurrerantzean, Fvpyc), indarrean dagoen legeriaren arabera eskumenei jarraiki, Kirol Arrantza eta Kastingaren kirol erantzukizunak bere gain hartzen ditu.

Fvpyc-ek, Eusko Jaurlaritzaren irizpideak jarraituz eta horiek Kirol garbiaren zein osasuntsuaren praktikarekin batera bere baitan kontsideratuz, garatuko ditu, xedatu kasuetan, doping arloko prebentziorako eta ezabaketarako beharrezko kontrolak, gure Kirol jardueren esparruan.

Halaber bere helburu oso garrantzitsua izango da, Ingurune naturalarekiko errespetua gordetzea, dagozkion kirol jarduera guztietan, kirol arrantzale eta kasting partaideen Kolektibo osoaren aldetik.

I. IZENBURUA – KIROL ARANTZAREN ETA KASTING TXAPELKETAREN ARAU GENERIKOAK

I. KAPITULUA – DEFINIZIOA.

1. Artikulua Arrantza eta Kasting arloak, Arautegi honetako bertsio eta modalitate ezberdinetan, bere garapenerako xedatu arauen arabera eta diru-irabazi asmorik gabe praktikatzen direnak, "Kirol Arrantza" eta "Kasting" izenekin ezagutzen dira, hurrenez hurren. [Arautegi hau Fvpyc-eko txapelketetan aplikatuko da.](#)

2. Artikulua Kirol Arrantza eta Kasting modalitateak, pertsona batek baino baino gehiagok praktikatzen dituenean, bidezko lehiaren arabera, baldintza berdinekin eta aurretiaz ezarritako arauen arabera, zeinekin erregulatuko diren jardura eta partaideen portaera berezia, kirol amateurraren praktikan egin ohi den bezala, hurrenez hurren izendatzen dira "Kirol Arrantzaren Txapelketa" eta "Kasting Txapelketa".

Halaber bere horretan ulertuko dira, emaitzaren ebaluaketarik (kontaketa, pisaketa ala neurketa) eta sailkapenik eskatzen ez duten txapelketa entrenamenduak, dagozkien Batzordetan, bere kasuan antolatzen diren "entrenamendu kontrolatuak" izan ezik.

3. Artikulua Txapelketen helburua da Kirol tekniken hobekuntza, Kirolarien prestakuntzaren hobekuntza, Kirol Arrantza eta Kasting Txapelketetako partaideen jarduerak hobetzea ahalbidetzen duten metodo berriak eta taldeak barreiatzea, Ingurunearen eta bere faunaren babeserako eta defentsarako irizpideak erabat zainduz, probak antolatzeaz ardura tuko diren Autonomia Erkidegoek agindu Arrantza eta Ingurune naturalaren babeserako Legeak eta arauak erabat errespetatuz.

4. Artikulua Kirol Arrantza eta Kasting Txapelketak, bere ezaugarrien arabera, OFIZIALAK eta EZ OFIZIALAK izan ahal dira.

5. Artikulua Txapelketa Ofizialak izango dira eta derrigorrez Arautegi honetako aginduen arabera garatuko dira: [Fvpyc-eko Egutegian izaera horrekin onartuak izan diren autonomia esparrukoak.](#)

6. Artikulua Txapelketa esaten zaio, sailkatu ororen artean Txapeldun titulua lortzeko Txapelketari, zeinek bertaratzen diren Banakako eta Selektzio edota Talde-Klubeko (Klub Liga) partaideak barne hartuko dituen.

7. Artikulua Gainerako Txapelketak ez ofizialak dira; Lehiaketak, Sariaketak, Txapelketak, etab. izendatuko dira edota besterik gabe Kirol Txapelketak, eta bere deialdiaren arabera oinarri bereziekin egokituko dira.

8. Artikulua. [Fvpyc-eko Egutegian, Fvpyc-ekoak ez diren beste hainbat txapelketa barne hartuko dira, informazio xedeetarako soilik, Fvpyc-en onarpena beharrezkoa izan gabe.](#)

9 Artikulua.-
[\(Edukirik gabe\)](#)

II. KAPITULUA – ESKUMENA ETA JURISDIKZIOA.

10. Artikulua

- a) Fvpyc-ek, lege izaerako erakundea izanik, Euskadiko Kirolaren 14/98 Legean xedatu funtzioak direla medio, Euskadiko Lurralde esparruko Kirol Arrantza eta Kasting modalitatea ordezkatzeko du.
- b) Era berean, bere Epaila-Arbitroen eta Teknikarien kontrola eta prestakuntza bere gain hartzen ditu.

11. Artikulua [Fvpyc-eko txapelketen arautegia, ikuskaritza, baimena, kontrola eta zaintza bere organoen eskumenekoa da.](#)

12. Artikulua

1. Fvpyc-eko kirol esparruan Kasting eta Arrantza txapelketa guztiak kontsideratzen dira (ibaletako zein itsasoko uretan ospatuko direnak).

2. Edonola ere, Fvpyc-en betebeharra da eskumeneko Organo ofizialen aldetik Arrantza eta Kasting modalitatetako zaleen eta erabiltzaileen kolektiboan kirol eta lehia garapena bultzatuko duten kolaborazioa eta neurrien aplikazioa eskatzea.

III. KAPITULUA – ARRANTZA ETA KASTING TXAPELKETEN BEREIZKETA: KATEGORIAK, ESPEZIALITATEAK ETA PARTE HARTZEKO MODUAK.

13. Artikulua: Kategoriak.

Arrantza ala Kasting Txapelketako kirolari guztiek aukera berdina izan beharko dituzte euren kirol lorpenen arloan. Kirolarien Kolektiboko talde ezberdinak adierazteko, bere adina eta egoera kontuan hartuta, sei Kategoria bereizten dira.

Kategoria ezberdinetako kirolarien adinak, hala nola bere izenak, aldatu egiten dira Federazio Internazional ezberdinen arabera.

Horrela, adin hauek gamak eta bere Kategorietako izenak dagozkien Federazio [Internazional](#)etako irizpideekin bat etorriko dira, Espezialitate ala Azpi-espezialitate bakoitzeko Arau Berezieta xedatuari jarraiki.

Aipatu Kategorietan daude:

Jubenilak, Damak, Maskulinoa eta Absolutua (Gizonezkoak - Damak) eta beteranoak. Baita Kirol egokituaren arlokoak ere.

14. Artikulua Espezialitateak: Modalitate ezberdinen garapenerako, arrantzarako tresnak eta espezieak (Arrantza) ala helburuak (Kasting) eta garapen sistemak kontuan hartuta, Arrantza eta Kasting Txapelketak hiru Arlo nagusitan bereizten dira eta horiek, aldi berean, zazpi Espezialitateetan, zeinetan gure Arrantza eta Kasting Azpi-espezialitateak kontenplatu diren, ondorengo taularen arabera:

Modalitatea	Arloak	Espezialitateak	Azpi-Espezialitateak
ARRANTZA	Kontinental/ Ibaietakoa	Izokinkideen arrantza	Euli-Izokinkideak Jaurtiketa Izokinkideak
		Ibaietako Arrantza	Ur Geza Carpfishing (Arrain Handiak)
		Black-Bass Arrantza	Ontziko Black-Bass Uertzeko Black-Bass
	Itsasokoa	Itsasertzeko Arrantza	Itsaso-Itsasertzeko Jaurtiketa Corcheo Rockfishing Uertzeko Spinning
		Ontzitik	Ontzi Ainguratua Itsasertzeko Currican Spinning Ontzia Jigging Ontzia
		Altuerako Arrantza	Altuerako Currican Altuerako Brumeo
	Kasting	Kasting	Inland Surf Kasting ala 113 gr. Itsasoko Botaldi Astuna

14.1. Artikulua Xedatu maila errespetatuz, Fvpyc-ek baimendu ahal izango ditu, hala badagokio, espezialitateekin loturiko kirol txapelketak eta arrain-hazkuntzaren ala Kasting arloko espezieak, aurreko artikuluan espresuki aipatu ez izan arren, gizarte ala kirol arloetan garrantzi handia izaten dutenean.

Hipotesi horietan, Txapelketak bere Deialdi Oinarrien arabera garatuko dira.

15. Artikulua Parte Hartzeko Moduak: Txapelketako talde ezberdinen tipologia kontsideratzean, eta ondorioz, horien parte hartze mota, Espezialitate ezberdinetako Txapelketak ondorengoak izango dira:

1 Banakakoa.

2 Lurralde Selekzioak.

3 Kluben Liga.

4 Open (*) (bere Deialdiaren arautegia).

Hainbat kasutan Modu horietako bat konbinatzea hautatu ahal da.

(*) Open: Open (Irekia) izango dira inskripzio libreko Txapelketa guztiak. Salbuespen modura, Fvpyc-eko txapelketen Egutegi Ofizialean izendapen honetako Txapelketak azalduko dira, dagozkion Espezialitateetan.

15.1 Artikulua Fvpyc-eko txapelketa ofizialak ala baimenduak, Arrantza (ibaletako eta itsasoko urtean) zein Kasting modalitatekoak, Arautegi honetan xedatuarekin egokituko dira, garapenerako bere Arau Generikoak eta Arau Bereziak kontuan hartuta.

IV. KAPITULUA – KIROL ETA KASTING KIROL ARAUAK.

16. Artikulua Antidoping Kontrola.

Euskadiko Federazioak hautatu Txapelketetan eta Espezialitateko Batzordearekin koordinatuta, Kirol Administrazioan xedatzen diren antidoping kontrolak egingo dira. Prozedura eta dagozkion xehetasunak, bere kasuan, Txapelketaren hasieran jakinaraziko dira.

A) ARRANTZAREN INGURUKO ARAUAK

16.1. Artikulua Ingurunearekiko Errespetua.

a) Fvpyc-en baimenarekin ospatzen den ibaletako eta itsasoko kirol txapelketa orotan, errespetatu beharko dira indarrean dauden lege xedapen aplikagarriak, kirol arlokoak zein administrazio arlokoak.

b) Kirol arrantzaleen Kolektiboak Ingurunearen iraunkortasuna bultzatu dezan, arautegiaren arabera ezartzen da Arrantza Kontinentaleko txapelketa guztiak "heriotza gabekoak" izatea, bizirik dauden pieza guztiak ahalik eta egoera onenean uretara itzultzea, horien kontaketa, pisaketa ala neurtzea egin ondoren, bere kasuan, Azpi-espezialitatearen arabera.

c) Harrapaketak eta aske uzteko irizpide hau ezarriko da, era berean, Itsasoko Arrantzaren txapelketa haietarako zeinen Arau Bereziaren ala Oinarrietan espresuki adieraziko den.

d) Arau honekiko salbuespenak, espezie batzuen aurkakoak eta bere kasuan, Txapelketaren ospakizunerako Autonomia Erkidegoko arrain-hazkuntzaren arlokoak, eskumeneko Organismoaren urte-sasoi ezberdinetako irizpidea jarraituz soilik kontenplatuko dira.

17. Artikulua Ordutegiak.

1. Txapelketak ospatzeko ordu erabilgarriak Euskadiko Erkidegoan nagusitzen den arautegiaren arabekoak izango dira.

2. Kirol arrantzaren praktikarako ordu erabilgarrien inguruan adierazi mugak kontuan hartuta, proben garapena azpi-espezialitate bakoitzeko arau bereziak kontuan hartuta zuzenduko da, bere Deialdiaren Oinarriak eta bere kasuan, Euskadiko Erkidegoko arautegia barne.

3. Azpi-espezialitatearen bateko salbuespen justifikatueta izan ezik, probak epe ezberdinetan ospatzen direnean, horiek iraupen berdinekoak izan beharko dira, partaide talde ezberdinak daudenean. Salbuespenak Txapelketaren Deialdi Oinarrietan adieraziko dira.

18. Artikulua Amuak.

1. Amu artifizialak kontsideratuko dira: koiara txikia, arrain artifiziala (artikulatua ala finkoa) eta amu naturalen antzeko fabrikazio eta imitazio guztiak, esaterako zizareak, kiskilak, zomorroak, matxinsaltoak, kilkerak, igelak, arratoiak, amarrak, txindurriak, harrak, araknidoak eta intsektuak oro har, bere Egoera morfologiko orotan, zeinen artean nabarmenduko diren "euli artifizialak" bezala ezagutzen direnak.

2. Amu naturalak kontsideratzen dira jatorri organikoa duten materia guztiak, naturalak zein elaboratuak, hautsa ala masilla simple ala konposatuak. Arraina, frutak, tuberkuluak, zerealak, baita arrainaren atalak, hondakinak, osagaiak, arrainaren nahasketak eta eratorriak barne, intsektuak eta jatorri organikoa duten gainerako materialak, zizareak, moluskuak eta krustazeoak hala nola, oro har, landare eta animalia ezberdinak.

3. Amu naturalen ala artifizialen erabilera, Fvpyc-ek antolatu eta baimendu txapelketa orotan, dagozkion Euskadiko Erkidegoko arrantzaren eskumeneko organismo ofizialean eta arrantza espezialitate ala azpi-espezialitate bakoitzerako arau berezi modura xedatueta baimenduekin egokituko da.

19. Artikulua Garapena eta portaera.

1. Partaide bakoitzak arrantza jardueran erabili ahal izango du azpi-espezialitate bakoitzeko edota Txapelketaren Deialdi Oinarrietako arau berezietan adierazitako kanabera kopurua. Baina berarekin eraman ahal izango du/ditu kanabera bat ala gehiago, ordezkioa ala hautazko erabilerakoa, hura garraiatzeaz eta zaintzeaz arduratuz, probako xehetasunen arabera, dagozkion Deialdiaren Oinarrietako espezialitateetan Arrantza jardueratik urrun mantenduz.

2. Ezinbesteko arrazoiak direla-eta, fisiologikoak zein bestelakoak, partaideak proben agertokitik desagertu beharko balitz, ezinbesteko baldintza izango litzateke Kontrol, Epaimahai ala Organizazioko kide bati baimena eskatzea, desagertzeko zein berriro agertzeko, Txapelketa Epaileak txapelketaren kirol garapen egokia bermatzeko egokituz jotzen dituen kontrol neurriak kontuan hartuta.

3. Edozein kasutan, eremutik desagertzeko, partaideak arrantza jarduerako kanabera ala kanaberek erretiratu egin beharko du/ditu.

4. Desagertzeko eta kontrolerako irizpide berdinak bete beharko dira probaren garapenak partaideari postua aldatzeko aukera ematen dionean, kasu bakoitzean xedatu terminoak eta zirkunstantziak kontuan hartuta.

5. Ez agertzeak, alde egiteak.

a) Ordu ofiziala amaitu aurretik eta inolako justifikaziorik gabe arrain txapelketa ala jardueratik alde egiten duen partaide orok probarekin aurrera jarraitzeko bere eskubidea galduko du, eta diziiplina espedienteak ireki ahal izango zaio.

b) Ezinbesteko arrazoiak direla medio txapelketa txanda ala proba guztietako bere partaidetza amaitzen ez duen partaideak, probako Epaileari horren berri emango dio eta Epaimahaiaren aurrean justifikatu beharko du, gehienez 72 orduko epean, alde egitearen ala ez agertzearen unetik kontatzen hasita. Epea inolako alegaziorik aurkeztu gabe iragaitean, borondatezko eta justifikaziorik gabeko alde egitea kontsideratuko da. Kasu horietan aurreko ataleko adierazpena jarraituko da.

c) Proban behar bezala inskribatuta egotean jazotzen den ez agertzea, Epaimahaiari jakinaraziko zaio probaren hasieran, dagokion baliabidea dela medio. Epaimahaiak Txapelketaren amaiera Aktan horren berri emango du eta bere irizpidearen arabera justifikazioa eskasa izango balitz, a) ataleko adierazpena jarraituko da.

6. Euskadiko Txapelketako edozein proba Kirolariak eginiko ez etortzea, behar bezala justifikatu beharko da honen aldetik.

Justifikaziorako arrazoiak ondorengoak soilik izango dira:

a) Familiako senide baten heriotza, 1. eta 2. Mailakoa.

b) Txosten medikuarekin Justifikatutako Kirolariaren Gaixotasun Larria.

c) Kirolariari arrantza praktikatzeko eragotziko dion lesioa, betiere medikuaren txostenaren justifikazioa dela medio.

Kirolariak Kirol Arrantza eta Kasting Federakuntzara igorri beharko ditu ez etortzeari dagozkion egiaztagirak, probaren ospakizunerako aurreikusi data baino 10 egun lehenago.

Justifikatu beharreko ekintza Txapelketaren data baino 10 egun lehenago gertatuko balitz, Kirolariak ekintza hori jakinarazi eta komunikatu beharko luke, gertatu ondorengo 48 orduren barruan.

Ez etortzea aurreikusi epetan justifikatzeko betebeharrak saihesten direnean, Kirolariak "Euskadiko Txapelketako Kirolariaren" kategoria eta egoera galduko ditu.

Ez etortzeekin loturiko ebazpena, Euskadiko Txapelketa Batzordeari dagokio. Euskadiko Txapelketaren Batzordeko ebazpenaren aurrean errekurtsioa jarri ahal izango da, bost lanegunen epean, Kirol Arrantza eta Kasting Federakuntzako Diziiplina Batzordearen aurrean. Kirol Arrantza eta Kasting Federakuntzako Diziiplina Batzordearen ebazpenak ez du federazio bidezko ondorengo errekurtsorik onartuko.

7. Kirolari partaideak, txapelketa amaitzean, ohartarazi beharko da, bere kasuan, pisaketarako ala harrapaketak erretiratzeko Epaile/Kontrolen jardueraz: ez da denbora gehigarririk emango harrapaketak garbitzeko ala neurtzeko edota burtzitik erretiratzeko.

20. Artikulua Kirol Materiala.

1. Kirol Arrantzaren txapelketetan, Kirol Materiala bere espezialitateko ala azpi-espezialitateko arau bereziekin egokituko da: Ekipo baimendu gabeak erabiltzean, Txandatik ala Fasetik kanporatzeko bidea emango da.

2. Itsasoko Arrantza txapelketa orotan, amuen neurri minimoa Euskadiko Federazioak xedatua izango da.

3. Elementu ezberdinez eratu kirol materialak erabiltzean, betiere Goi Milako Organismokoak, Administrazio ala Kirol arlokoak, xedapenak jarraituko dira. Xedapen berriak, bere kasuan, berehala jakinaraziko dira Federazio egitura osoan, xedapen berria indarrean jartzen den data jendarteratzea oinarritzko izanik.

21. Artikulua Teknikak.

1. Partaideak izango du, une orotan, nahi duen arrantza teknika praktikatzeko erabateko askatasuna, Arautegi honetan ala txapelketa Oinarrietan deskribatuen artekoa, espezialitate bakoitzeko eskakizun bereziak kontuan hartuta.

2. Txapelketa (edota bere Fasetako bat) teknika ala jarduera mota berezi baten arabera antolatzen denean, partaidea dagokion arrantza mota tipifikatzen duten arauen arabera soilik jardungo da.

22. Artikulua Laguntza Materiala. Amuan kateatu pieza uretatik ateratzeko elementu laguntzaile modura, aterasarea ala salabardoa, lazafrin ala kizkiaren erabilera baimenduko da, txapelketa espezialitatearen arabera.

23. Artikulua Harrapaketak: Betiere 16.1. Artikuluan aurreikusia jarraituko da. Euskadiko Federazioak aurreikusi neurri minimoen taula aplikatuko da eta beharrezkoa denean ezarri kupoak aplikatuko dira; informazio hau Deialdi Oinarrietan azalduko da eta partaideak neurketarekin ohitu beharko dira. Oinarri horietan, bere kasuan, harrapaketak ebaluatzeak irizpideak aplikatuko dira, neurria eta bere pisu balioak kontuan hartuta (Nazioarteko Federazioko baremo ofizialak direla medio).

1. Harrapaketa onargarriak kontsideratuko dira:

Txapelketako arrantza espezie bezala kontsideratuak, Euskadiko Autonomia Erkidego bakoitzeko eskumeneko Organismoak xedatu legezko neurri minimoa dutenak, txapelketan onartzen diren epe eta moduan harrapatu eta atera direnak.

2. Ez dira harrapaketa onargarriak kontsideratuko:

a) Krustazeoak eta Moluskuak.

b) Txapelketari dagozkion espeziekoak ez liratekeen arrainak.

c) Kiroltasunaren aurka harrapatuak izan diren arrainak, Txapelketako Oinarrietan debekatutako ala kontenplatu gabeko teknikak, amuak edota bestelako tresnak direla medio.

d) Partaideak harrapatu gabeko edota probarako agindu epean ala tokian harrapatu gabeko arrainak.

e) Partaideak pisaketara aurkeztean, harrapatu ziren unean jadanik hilik zeudela frogatu ahal diren arrainak.

f) Txapelketako arratza espeziatarako xedatu neurri minimora iristen ez diren piezak.

g) Espezialitate ezberdinetarako xedatu tokian harrapatu gabeko piezak.

h) Espezie babestuak, bere kasuan.

i) Pieza hondatuak (dagokion Azpi-espezialitatean).

3. Harrapaketak, baimendu neurrikoak baino askoz txikiagoak izaten direnean, partaidearentzat hori agerikoa izanik, berehala uretara itzuli beharko dira. Pisaketara harrapaketa nuluak aurkezten direnean, penalizazioa aplikatu ahal izango da, Arau berezietan ala Deialdiko Oinarrietan hala kontenplatu baliatuz.

4. Txapelketa horietan zeinetan harrapaketak "hil gabeak" izatea ezinezkoa izango den, Organizazioaren ardura izango da horien xedea erabakitzea. Hala ere, eta salbuespen modura, horiek merkaturatzeko baimenduko dira, betiere salmenta horren etekinak ongintzazko helburuetara bideratzen direnean. Edozein kasutan, partaideek bere harrapaketak Organizazioaren ardurapean jarri beharko dituzte.

24. Artikulua Berezitasuna.

Probetako agertokiak ezaugarri bereziak direla-eta, txapelketa bateko Organizazioak ageriko diferentzia antzemango balu, Sektore ala tarte ezberdinetako espezie kopuruan ala horien neurrian, edo bestela beste baldintzatzaile batzuen eraginez (espezie baten ugalketa, bere harrapaketarako erraztasuna ala zailtasuna, etab.) kirol balioa handiagoa izango lukeenean, harrapaketan adierazi diferentziak zuzentzeko koefizientea ezarri ahal izango litzateke.

Ondorioz, kasu horietan, Espezialitateko Batzordeak harrapaketen puntuazio eta partaideen kalifikazio orekatua ahalbidetuko duten irtenbideak arbitratuko litzuzke, Deialdi Oinarrietan horien berri emanez.

25. Artikulua Agertokia.

1. Dagokion txapelketa ofizial orotan, probetako agertokia beharrezko tarte, sektore eta postutan banatuko da.

2. Postu bakoitza atzeko eta alboko mugak kontuan hartuta seinaleztatu beharko da. Seinaleztapen hori erdigunean zein atzeko muga ezarri zenbakiagatik ordeztu ahal izango da. Azpi-espezialitate bakoitzak xedatuko ditu bere arau berezietan, arrantza tartearen ala postuaren neurri minimoak.

3. Tartearen, sektorearen ala postuaren esleipena zozketa bidez egingo da, txapelketan garatu beharreko fase, txanda ala proba kopurua edozein dela ere. Zozketa hori garbia izango da ala bere zirkunstantzien arabera zuzendua (txanda kopuru, sektore, "puntako" postu eta abarren arabera). Zuzenduak izango balira, jarraitzeko irizpide eta arrazoia deialdian jakin araziko litzateke.

4. Zozketa aurretiaz egin beharko da, txapelketaren hasiera seinalea emateko unean esleitu tarteko ala postuko partaide ororen presentzia bermatu ahal izateko.

5. Kirolariek kontu handiz zainduko dute euren arrantza postuaren garbitasuna, uretan eta bere inguruan edonolako hondakin ala produktu kutsagarri jaurtitzea debekatuta baitago. Arau hau urratzen denean kirolaria deskalkifikatzeko bidea emango da.

26. Artikulua Etenaldia.

1. Epaimahaiari soilik dagokio Txapelketa eteteko ala segurtasun arrazoiak zein bestelakoak direla medio agertokia aldarazteko eskumena.

2. Etenaldia txanda ala fase bateko ordutegiaren erdia amaitu aurretik gertatzen denean, dagokion sailkapena bertan behera geratuko da. Batzordeak ebaziko du, bere kasuan, hura errepikatzeko aukeraren inguruan.

3. Txapelketetan, gutxienez probaren denboraren erdia iragan denean, etenaldiaren unea bitartean lorturiko harrapaketen sailkapenak baliodunak izango dira.

4. Etenaldiaren kasuan, organizazioa arduratuko da probaren etenaldia aldi berean egiteaz, ahal duen neurrian, txapelketako partaide ororentzat. Hori ezinezkoa izaten denean, idazki txikietan adieraziko da harrapaketa bakoitzaren ordua.

5. Etenaldiaren inguruko balizko salbuespenak ala aldaketak kontuan hartuta, Azpi-espezialitatearen arabera, bere Arau Berezieta ala Deialdiaren Oinarrietan azaldu beharko dira.

B) KASTINGAREN INGURUKO ARAUAK.

26.1 Artikulua

Arrantzari dagozkion kirol irizpide nagusi berdinak jarraituko dira, Baina Kastingaren Arau Bereziak kontuan hartuta.

V. KAPITULUA - TITULUAK, SARIAK.

27. artikulua (Edukirik gabe)

28. Artikulua

1. Ez da onartzen sariak eta tituluak ekonomikoak izatea, Euskadiko Txapelketakoak edota arrantza ala kasting kirol espezialitate bateko sailkapen probetakoak izaten direnean.

2. Txapelketetan emandako sariak eta tituluak alde batera utzita, Fvpyc-ek ala erakunde antolatzaileak Kirol Arrantza ala Kasting txapelketa ofizial, sariaketa, txapelketa baterako egokiak liratekeenak eman ahal izango lituzkete.

3. Kasting Txapeldunen aipamenak, sariak ala izendapenak Kasting Txapelketetako Arau Berezieta arautzen dira, bere **VII . KAPITULUAN (10.5 Art.)**.

29. Artikulua

1. Kirol Arrantza ala Kasting txapelketetan kontsignatzen diren sari materialak eta Txapeldunen titulu ofizialak bereizi egin behar dira.

2. Euskadiko Txapelketa ororen antolaketan erabilgarri jarriko dira, gutxienez, ondorengo sariak:

- Banakakoen sailkapeneko lehen postuari eta bere kasuan, Selektzio/Talde-Klubon lehenengoiari.

3. Txapelketa ofizial bakoitzaren aurretik, Federazio ala erakunde antolatzaileak erabilgarri dagonen sarien erlazioaren eta horien banaketa moduaren berri emango du.

30. Artikulua Sailkapenak. – Erreklamazioak.-

1. Sailkapenak behin-behinekoak izango dira, 30 minutu pasatu arte, zeinetan Banakako, Selekzioen ala Talde-Klubak emaitzen zerrendak dagokien tokian jendarteratuko diren, betiere agertokiaren baldintzak horretarako egokiak izaten direnean. Txapelketaren agertokian jendarteratu ezin direnean, sailkapenak Euskadiko Federazioan eta Lurralde Federaziotan jendarteratuko dira, txapelketa amaitzen denetik 72 orduko epean. Kasu horretan, erreklamazio epea 48 ordu barru amaituko da, argitalpen epea amaitzen denetik kontatzen hasita.
2. Epe hori iragaitean, Epaimahaiaren aurrean idatzizko erreklamaziorik aurkeztu gabe, jadanik ezinezkoa izango da ondorengo erreklamaziorik aurkeztea eta sailkapenak behin-betikoak izango dira, gorenko federazio agintariengana helaraziko direnak izanik.
3. Arrantza ala Kasting Txapelketa orotan, Deialdi Oinarrietan erreklamazioaren aurretiko diru-gordailua ezartzeko betebeharra kontenplatu ahal izango da, baita gordailu horren ondorengo xedea ere.

VI. KAPITULUA – TXAPELKETEN ANTOLAKETA. BALDINTZAK.

31. Artikulua Deialdiak.

1. Fvpyc-ek, bere kabuz ala dagokion Lurralde Federazioaren bidez (edota Erakundearen bidez, bere kasuan), gainerako federazio egituraren jakinaren gainean jarriko ditu ezaugarriak (Oinarriak), Txapelketan jarraituko direnak, gutxienez 15 egun naturaleko aurrerapenarekin, betiere Arautegi honetako aginduak errespetatuz.
2. Txapelketa ofizialen ospakizunerako oinarriak erabat egokituko dira Arautegi honetako arauarekin eta horiek ezin izango dira aldatu, oso muturreko zirkunstantziengatik izan ezik, Epaimahaiaren eta Espezialitateko Batzordearen oniritziarekin, eta nola ez, Erakunde antolatzailearen baimenarekin. Aldaketa hori eskusiboki onartua izango da, eragin duten zirkunstantziak bere horretan irauten duten bitartean.

32. Artikulua Partaideak.

1. Euskadiko Txapelketen amaiera faserako, gutxienez partaide hauek behar dira:
 - a) HAMABOST kirolari, Banakako ala Selekzioen arabeko sailkapen ospakizunetarako.
 - b) BOST talde, Klubak Ligako ospakizunetarako.
 - c) SEI ontzi, ontzi arrantzako ospakizunetarako.
 - d) U-16, U-18, Jubenilak U-21 eta DAMAK [kategorietarako](#), ez da partaidetza minimorik eskatuko.
2. Kasting modalitatean, sustapeneko espezialitatea izanik, dagozkion Arau Bereziak baldintzak ezarriko dira.

33. Artikulua Baimenak.

Fvpyc-ekin behar bezala atxikitako Kirol Arrantza eta/edo Kasting modalitateko Klub ala Erakunde oro baimenduta dago ospatzera, norbere ekimena dela medio, egokitutako jotzen dituen txapelketa ez ofizial guztiak.

34. Artikulua Fvpyc-eko Txapelketa Nazionalak ala Internazionalak baimentzeko dagokion Epaile Euskaldunaren eta/edo Nazionalaren izendapena eskatuko da.

VII. KAPITULUA – TXAPELKETEN PARTAIDETZA ARAUAK. BALDINTZAK.

35. Artikulua

Kirol Arrantza ala Kasting txapelketa ofizialetan esleitu tituluen lorpenerako lehia ofiziala ondorengo arauarekin egokituko da:

1. Euskadiko Federazioa.

Euskadiko Federazioak, bere administrazio banaketa kontuan hartuta, espezialitate ezberdinetako Euskadiko Txapelketetako bere partaidetza erabakiko du, 15. Artikuluan aurreikusi Kategorien eta parte hartzeko Modu ezberdinen arabera.

2. Partaidetza.

Partaidetzarako Azpi-espezialitatea, Kategoria ala parte hartzeko Modua hautatzean. Euskadiko Federazioak Euskadiko Txapelketa bakoitzeko amaiera fasean bere ordezkariak sailkatzeko beharrezko probak egingo ditu.

3. Irizpideak.

a) Euskadiko Txapelketa bakoitzeko finalera etorri ahal izango da, ospakizunari dagokion Azpi-espezialitatea eta Kategoria edozein dela ere, hautatu kirolari oro, urtero Fvpyc-ek ebatziko duen kopuruaren arabera.

b) Egiten diren inskripziotan, partaide bakoitzaren Federazio Lizentziaren zenbakia adieraziko da eta behar bezainbat ordezkari erantsiko dira, betiere horiek dagokion Lurralde Saillapenaren aktan islatzen direnean.

Txapelketa hasi aurretik Talde-Klub ala Selektzioaren kide kopuru osatu gabeen kasuan, puntuazioa banakako saillapen probetan soilik lortuko da.

c) Edozein Euskadiko Txapelketaren finalera etortzeko sailkatuen ordezkariak, hautazkoak dira, interesdunen aurretiazko ezeztapena dela medio, eta modu korrelatiboan estaliko dira Lurralde zerrendetako ondorengo sailkatu onenekin.

d) Ordezkariaren eskumena Organizazioari dagokio, gutxienez Txapelketa bakoitzeko finala baino 3 egun lehenago, **OFIZIOZKO PARTAIDETZARAKO** Inprimakiaren bidez inskribatu erreserbak izan ezik.

e) Txapelketaren ospakizun tokian bildutako partaideren bat ordezkari, erreserbari, eskuragarri dagoenean, edota Ordezkari /Kapitainari dagokio. Ordezkari/Kapitainak partaidetza hautatu ahal izango du, betiere baldintzak betetzen ditueneko edo bestela horri uko egin ahal izango dio; parte hartzen duenean, Selektzioen/Talde-Klubaren arabera soilik egingo du.

f) Euskadiko Txapelketa Inskripziotarako, Lurralde Federazioek dagokion Azpi-espezialitateko eta Kategoriako Amaiera Saillapen Akta erantsiko dute.

g) Euskadiko Open Txapelketetan, partaideak inskribatzen dituen lurralde Federazioetan atxiki beharko dira.

36. Artikulua Dokumentazioa.

1. Kirol Arrantza ala Kasting txapelketa orotan parte hartzeko, partaide ororentzat ezinbesteko baldintzak izango dira, txapelketaren Kategoriarik dagokion arautegian xedatu adina izatea, federazio eta administrazio betebeharrak ezagutzea, eta arrantza zein nabigazio arloetan indarrean dauden lege xedapenen arabera txapelketaren ospakizunarekin loturiko urteko dokumentu guztiak erabilgarri izatea, bere kasuan, baita kirolariaren federazio egoera egiaztatuko dutenak ere (Nortasun Agiria, itsasertzeko ala ontziko, ibaiko ala itsasoko Arrantzaren Lizentzia, halaber bere kasuan eta lehiatu Kategoriarik dagokion Federazio Lizentzia, probaren aurretiko data eramango duena).

[2.-Fvpyc-eko kideek](#), Fvpyc-eko Federazio Lizentziarekin kontatuko dute, bere ordezkartza estamentua eta Titulazioa kontuan hartuta.

37. Artikulua

Euskadiko Txapelketa batean sailkatzeko hautapen probak, beharrezko denborarekin ospatzea lehenetsiko da, Fvpyc-ek eta Lurralde Federazio antolatzaileak saillapen aktak eskuragarri izan ditzaten **20 eguneko aurrerapenarekin**.

38. Artikulua

[Txapelketen antolamendua eta partaidetza](#), edozein kasutan, arautegiarekin, partaidetza eskakizunarekin eta [Eskola Kirolaren arloan indarrean dagoen arautegian](#) islatuko dira.

39. Artikulua Klubaren Ligak.

1. Kirol Arrantzaren espezialitate batzuetako partaidetza hedatuz doanez, horietarako Klubaren Ligetako Txapelketen ospakizuna ezartzen da.

2. Klubaren Ligako partaidetak ez du banakako partaidetza errefusatu.

3. Klubaren Ligako taldeak azpi-espezialitate bakoitzeko arau berezietan xedatu kirolari kopuruarekin eratuko dira. Gainera, halaber inskribatu ahal izango dira Erreserba eta Kapitaina, Arau Generiko hauetako 53. Artikuluan aurreikusi baldintzen arabera.

4. Gizarte partaidetza Klub bakoitzeko kirolari kide ororengana hedatzen da, horien izaera ala jatorria edozein dela ere, **Klubean gutxienez sei hilabeteko antzinatekin** kontaktatzen dutenak (Federazio Lizentziaren igorpen data), Txapelketa ospatu aurretik.

5. Edozein Klubek, edonolako arrazoiak direla medio, (aurretiaz eta dokumentuekin justifikatuak) zeinetan kide kopurua murriztuko litzatekeen, Klubaren Ligetako probak martxan jarri direnean, bere edozein fasetan, saillapeneko sozialak, Lurraldekoak ala

Autonomikoak, beste kirolari ala klubeko kide batzuekin kontatu ahal izango du, horiek aurretiaz ospatutako sailkapen fasetako beste Talde-Klub bat ordezkatzuz parte hartu ez dutenean.

6. Kluben Ligako Euskadiko Txapelketetan parte hartzen duten Taldetako kideak Kluben Erregistroan ala Eusko Jaurlaritzako Kirol Erakundetan inskribatuta egon behar dira.

7. Euskadiko Txapelketetako Kluben inskripzioak, dagokion Lurralde Federazioaren egingo dira, horien ardura izanik Taldeen eraketa eta hautaketa, baita inskribatu beharreko Talde kopurua ere, hala badagokio. Ez dituzte talde hauek eratuko Autonomia esparruko Kluben Ligako beste hainbat sailkapen fasetan parte hartuko luketen kirolariek.

8. Klubak bere izen ofizialarekin inskribatu beharko dira, dagokion Lurralde Federaziokoarekin lagunduta. Klub berean inskribatzen direnean, ahal bada, talde bat baino gehiago, izen berdinarekin azaldu beharko dira, horiek bereizteko zenbakia ala hizkia erantsita (1,2,3, etab. ala A,B,C, etab.).

40. Artikulua

1. Txapelketa honen gizarte izaera kontuan hartuta, Euskadiko Federazioak, dagozkien Lurraldeko Klubetan inskribatu taldeak ezagutzeari, urtero dagozkion sailkapen faseak ezarriko ditu, 35. Artikuluan aurreikusitaren arabera.

2. Euskadiko Txapelketetan Klubak inskribatzen dituzten Lurralde Federazioek eskatu beharko dute Talde horietako kideak Klubeko jarduneko kideak eta Gizarte Txapelketetako ohiko partaideak izatea. Eta bere kasuan, Klubek hori egiaztatu beharko dute, Federazio Estamentu batek hala eskatzen duenean.

3. Kirol garapenaren eta antolaketaren harira, Kluben Ligetan dagokion Espezialitateko Batzordearen ikuskaritzarekin eta kontrolarekin kontatuko dute eta dagozkion espezialitateko Arau Berezietan xedatuaren arabera garatuko dira.

4. TALDE TXAPELDUNA: Espezialitatean zeinetan Kluben Ligako eta Euskadiko Federazioko Euskadiko Txapelketa antolatuko den, bere etorrerak Fvpyc-en diru-laguntzarekin kontatu ahal izango du, urteko ikuskaritzaren irizpideen arabera, eta kide guztiak, horrela, Federazioko antolaketa eta kirol diziplinaren eraginpean aurkituko dira.

VIII. KAPITULUA – GOI MAILAKO TXAPELKETA ETA EUSKADIKO SELEKZIOAK.

42. Artikulua

Euskadiko Goi Mailako Txapelketako Kirolaria esaten zaio, Euskadiko Txapelketetako kirol azpi-espezialitate eta kategoria haietarako hautatu kirolari onenen arteko bat izaten denari.

Kide kopurua urtero arautuko da, igoerak eta jaitsierak kontuan hartuta, espezialitate ezberdinetako Goi Mailako Kontzentrazioetako eta Euskadiko Txapelketetako partaidetza dela medio.

Kategoria bakoitzeko Goi Mailako Txapelketako kide kopurua proposatuko du, urtero Zuzendaritza Batzordeak onartu eta Goi Mailako Kontzentrazioetako ala Euskadiko Txapelketetako Deialdian iragarri Espezialitateari dagokion Euskal Batzorde Teknikoak.

43. Artikulua

Espezialitateko Batzordeak urtero balioztatuko ditu hautazko probak, A.C.-ko Kontzentrazioak eta Euskadiko Txapelketak zuzentzeko datak, agertokiak eta arauak, zeinekin arautuko diren, bere kasuan, Euskadiko Txapelketetako Euskal Selektzioen igoerak, jaitsierak eta izendapenak.

A.C. Kontzentrazio eta Euskadiko Txapelketa hauen deialdiko partaide baten ez etortzeak ala alde egiteak, bere kasuan, Goi Mailako Kirolariaren bere egoera galtzea inplikatu du.

44. Artikulua Euskadiko Selektzioa.

Fvpyc-ek, A.C. Kontzentrazio hauen ezinbesteko formaltasunak kontuan hartuta, erabakitzen duenean Euskadiko talde ordezkari bat txapelketa internacional batera joango dela, konplitu beharreko araua kontsideratuko da bere kide guztiak Espezialitateko Euskal Batzorde Teknikoaren diziplinaren eraginpean aurkitzea eta horiek Batzordeak agindu prestakuntza, entrenamendu eta hautapen jarraibide guztiak betetzea.

Hautatzen duen Batzordeak deialdi bakoitzean garatu beharreko probak xedatzeko ahala izango du, jarduera isolatua edota Kirol Arrantza ala Kasting azpi-espezialitate bakoitzean praktikatu ahal direnen konbinaketa direla medio.

Fvpyc-eko Presidenteak Euskadiko Selekzioko Taldeko Kapitaina esleitzen ez badu, kargu horretako ardurak bere gain hartuko ditu Espezialitate bakoitzeko Euskal Batzorde Teknikoko Presidenteak.

A) Euskal Batzorde Teknikoko Presidentearen funtzioak:

1. Bere ardurapeko kirolarien ordezkariak aurkeztea dagokion txapelketako jarduera guztietan, betiere maila goreneko Federazioko beste agintaririk etorriko ez balitz.
2. Euskadiko Taldeko Kapiteina funtzioak betetzea ala eskuordetzea, aldi baterako, Euskadiko Batzorde Teknikoko beste kide batengan edota federazio egiturako pertsona prestatu batengan.
3. Gizarte eta kirol jardueretarako jantzi ofiziala agintzea, Fvpyc-eko uniformetasuna xedatua errespetatuz eta aintzat hartuz.

Jarduera sozialetan beharrezkoak izango dira:

- Euskadiko Federazioak agindutakoak.

Kirol jardueretan, kirol jantziak erabiliko dira (txandala, poloa, alkandora, etab.), Fvpyc-ekoak. Euskadiko koloreak izango ditu eta, Zuzendaritza Batzordearen baimenarekin, balizko babesle interesdunen publizitate euskarria izan litezke.

B) Euskadiko Selekzioko Kapiteina funtzioak:

1. Euskadiko Selekzioko kide guztiak txapelketetara dagokion espezialitateko kirol materialarekin etorri direla egiaztatzea eta hura kirol ordezkari ororen jarduerekin loturiko mailakoa izatea.
2. Interbentzio bakoitzeko jarduera ildoak ezartzea, agertokiaren ezaugarriak eta beharrak edota txapelketaren martxa, garapena eta emaitzak kontuan hartuta.
3. Kirolari bakoitza proben garapenen zehar bideratzea, une eta kasu bakoitzerako dagokion taktika jarraitzea gomendatuz.
4. Euskadiko Taldeko kideen eskubide guztien defentsa ordezkatzeko, probak ospatu aurretik, bitartean ala ondoren.
5. Bere kide guztien aurrean Taldeko ordezkariak nagusi modura jokatzeko, bere kirol jardueretan zein elkarbizitzakoetan tratatu harmoniatsua eta bereizkeriarik gabeko mantentzen ahaleginduz, neurriaren eta orekaren ereduak azalduz baina zirkunstantziak hala eskatzen dutenean diziplinarekiko errespetua imotasunez inposatuz.
6. Fvpyc-era igortzea, proba amaitu ondorengo lau egunen buruan, goreneko organoen informazioarako sailkapenen, partaideen, gertaeren eta xehetasun aipagarri guztien inguruko txostena.

IX. KAPITULUA - EPAIMAHAI, BATZORDEAK, EPAILEAK, KONTROLAK ETA SELEKZIO/TALDEKO ORDEZKARI/KAPITAINAK.

45. Artikulua Epaimahaia.

1. Euskadiko esparruko Arrantza ala Kasting Txapelketa Ofizial guztietan, Epaimahaiaren eraketa eta izendapena gauzatuko da, dagokion federazio egituraren hautatu pertsonekin osatua.

2. Euskadiko Txapelketetan, Epaimahaia horrela osatuko da:

Presidente: Fvpyc-ekoa edota honek eskuordetzen duen pertsona.

Presidenteordeak: Espezialitateko **edo** Lurralde Federazio Antolatzaileko Batzorde Presidenteak.

Idazkaria: Fvpyc-ekoa edota Lurralde Federazio Antolatzailekoa.

Epailea ala Epaiak: Epaiak Euskadiko Batzordeak xede horretarako izendatuak.

Batzordekideak: Ordezkaritza hautagai bat eta hiru bitartean, Txapelketako Lurralde Federazioetako ordezkari bezala.

Bere funtzioak hobeto garatzeko, Epaimahaiak jaso ahal izango du ahotsarekin baina botorik gabeko, dagozkion Adituen iritzia (Albaitaria, Biologoa, Batzordeko ala Organizazio Kideak, etab.).

3. Goi Mailako Txapelketaren Kontzentrazioan, Epaimahaian gehienez bost pertsona aurkituko dira, Espezialitateko Batzorde Teknikoko Presidentearen edota honen ordezkari pertsonaren zuzendaritzapean, halaber Batzorde horretako Epailerekin/Epailerekin eta beste hainbat kideren partaidetzarekin kontatuz.

46. Artikulua

Epaimahaiaren funtzioak dira:

- a) Txapelketako Ordezkarien ala Kapitainen, Kirolarien ala Patroien bilera zuzentzea.
- b) Sektore eta Tarte ala Postuen inguruko zozketara bertaratzeko, txapelketarekin loturiko proben hasieran, garapenean eta amaieran.
- c) Harrapatu piezen pisaketaren eta kontaktaren ala neurketen kontrola eta bermea, bere kasuan, ziurtatzea.
- d) Epailak aurkeztu arau-hausteak sailkatzea, hala badagokio.
- e) Izenpetu aktak O.E.
- f) Agertoki aldaketa, probaren etenaldia ala atzerapena.
- g) Ebaztea, lehen instantzian, dagozkion erreklamazioak.

47. Artikulua Euskadiko Batzorde Teknikoak.

1.- Arrantza ala Kasting Txapelketaren edota Euskadiko Arrantza Ligaren finala, Fvpyc-ek antolatuko du, horretarako espezialitate bakoitzeko Euskadiko Batzorde Teknikoaren ezinbesteko zereginak dira:

a) Txapelketari dagozkion Azpi-espezialitateko eta Kategoriako sailkapen probak direla-eta, Lurralde Federazio guztietan bere garapenerekin loturiko xehetasun guztien eta bakoitzaren berri ematea.

b) Euskadiko Federazioaren Batzorde ezberdinak txapelketaren ospakizunerako antolamendu eta prestakuntzaz arduratuko dira.

c) Espezialitateko Euskadiko Batzorde Teknikariak txapelketa zainduko du eta bere alderdi guztiak ikuskatuko ditu, esaterako: Sektoreen eta postuen zozketa, agertokiaren antolaketa eta markaketa, bere kasuan, proben hasiera eta amaiera ordua, harrapaketen ala neurketen kontaketa eta/edo pisaketa, halaber bere kasuan, sailkapen partzialak eta behin-betikoak eta Epaimahaiaren oniritziarekin, arautegiaren gune egokienean (T.O.A.) erakutsi daitezkeen zainduko du, betiere agertokiak hori ahalbidetzen duenean, behin-betiko Sailkapenak Txapelketa Epaimahaiarekin batera sinatuz.

d) Gertaerak jazoko balira, Batzordeak dagozkion Euskadiko Batzordeko Presidenteari Epaileren ala Epaileren jardura txostena ekarriko du.

2.- Txapelketari dagokion espezialitateko Euskadiko Batzorde Teknikoak amaiera faseko proben garapenerako Agertokia bisitatzeko baimenarekin kontatzen du, haren egokitasuna egiaztatu ahal izateko; ezinbesteko baldintzak bete behar ditu, kirol eta gizarte jardueren garapen egokia ahalbidetuko dutenak, gure kirol adierazpen gorenak osatzeko helburuaren arabera.

3.- Lurralde Federazioa, zeinetan Txapelketa ala Kontzentrazio guztien amaiera ospatuko den, Espezialitateko Euskadiko Batzorde Teknikoaren mendeko (kirol arloan) Batzorde Antolatzaile modura jardungo da. Txapelketa klub berezi batek antolatzen duenean, honek dagokion Lurralde Federazioko Presidentearekin hitzartu Ospakizunaren Antolaketa Batzordea eratzea proposatuko du.

48. Artikulua

Euskadiko Federazio ala Erakunde antolatzailearen erantzukizuna eta eragina dela medio, bere kasuan, Gizarte Jardueren Batzordea izendatu ahal izango da, pertsona federatuekin ala federatu gabeekin eratu, bere gizarte dohain, ezagutza kultural ala turistikoekin bultzatzeko, Txapelketetan jazo ahal diren gizarte jardueren onura.

49. Artikulua

Euskadiko Federazioak zeregin bezala bere gain hartzen ditu, anfitrioi bezala dagozkionak alde batera utzita, ostatuaren, mantenuaren erantzukizuna, Txapelketen Aldarrikapen Jarduerako protokolo xedapenak, Dominen eta Sarien, kartelen ala triptikoen erakusketa, bere kasuan eta txapelketa guztien garapena eratzen duten jardura oro estaltzeko Federazio Estamentuaren laguntza. Era berean, Txapelketaren emaitza onerako beharrezko azpiegitura bultzatuko du.

50. Artikulua Epaileak.

Proba ala txapelketen garapenean zehar, Epailea da diziiplina ahalaren eskumena bere gain hartzen duen agintari bakarra. Epaileen funtzioak dira:

- a) Txapelketako Epaimahaia eratztea.
- b) Txapelketaren garapenean zehar jazo litezkeen kirol arloko jarduera zigorgarriak ebaztea eta zigortzea.
- c) Akta altxatzea eta sinatzea, probetako gertaerak adierazi ondoren.
- d) Kontrolak eratztea eta horien berri ematea.

51. Artikulua Kontrolak.

Txapelketen amaieran halabeharrezkoa izango da Azpi-espezialitate bakoitzeko arau bereziak ebazten dituzten Kontrolen kopurua ezagutzea, txapelketako partaide bakoitzaren lorpenak (harrapaketak ala neurketak) ebaluatzea ahalbidetuko dutenak, eta probako xedapenen eta arauen konplimendu zuzena zaintzea, zeinetan oinarritzko irizpideak ezagutu beharko diren (debekualdi bereziak, dagokion kasuko piezen neurria eta kupoa, etab).

Kontrolen inguruko jarduera mota berezia, bere kasuan, Deialdi Oinarrietan zehaztu ahal izango da.

52. Artikulua

Kontrolen funtzioak dira: kirolariak laguntzea, Organizazioan adierazitako epe guztian zehar, horiekiko distantzia egokian mantentzea zainduz, Txapelketaren arauak bete ahal izateko, kirolari partaideen mugimenduak ala maniobrak eragotzi gabe.

Kontuan hartzea, partaidea ez dagozkion arazoen inguruan inola ere nahastu gabe, kirolariak ala beste pertsona batzuek bere alde eginiko jarduera oro, txapelketaren garapen arauen inguruko arau-hauste modura kontsideratuko litzatekeena, berehala Epaileari horien berri emateko, zeinek erabakiko dituen, hala badagokio, bere kalifikazioa, hutsegite modura eta ondorioz bere gain hartu beharreko neurriak.

Kirolariarekin fitxa ala plika partzial bikoiztuak sinatzea, dagozkion Azpi-espezialitatetan, piezen neurketak ala kontaketa eta pisaketa zereginak betetzen dituen Epaimahai kalifikatzailearen aurrean. Epaia jakinaraztea kirolariak ezinbestean eginiko ez agertzeen berri, esaterako gaixotasunarekin loturikoak edota mota fisiologiko ezberdinetakoak, etab. edota probaren garapenean sortuko liratekeen beste hainbat gertaera.

53. Artikulua Talde-Klubeko Ordezkarik/Kapitainak.

Txapelketa bateko amaiera fasean Lurralde Selekzioak laguntzeko Ordezkariek, dagokion Lurralde federazioko Presidenteak esleitzen dituen pertsonak izango dira. Talde-Klubeko Kapitainak, Ordezkarien funtzio berdinekin, bere Klub propioan izendatuko dira. Talde-Klubeko Ordezkarik/Kapitainak presente egon ahal izango dira pisaketetan ala neurketetan, euren kirolarien interesak artatzeko.

Bere Selekzio/Talde-Kluba ordezkatu behar dute, salbuespenik gabe, zozketa, pisaketa ala neurketa jardueretan, bertako bozeramailea izanik, ez bakarrik jarduera horietan, baita bere ordezkatu kirol eskubideen defentsa eskatzen duten gestio guztietan ere. Bestalde, bere kirolariek aholku teknikoak jasoko dituzte, Arautegi honetan espresuki zigortu ala debekatu gabeko arlo moral, fisiologiko ala materialean horiek behar izango lituzketen laguntza mota ezberdinez gainera.

Epaimahaiaren esanetara egongo dira, horien berehalako kokapena emanez. Eta kiroltasun eta gizarte portaera zuzena kontrolatuko dute, baita hitzartu jardueretara eginiko kirolarien bertaratzea ere.

Ordezkarik/Kapitainak, bere kasuan, Azpi-espezialitate bakoitzeko zirkunstantzien arabera sartu ahal izango dira (partaideak aprobetxatu ahal duen inolako materialik gabe) ordezkatzen dituen kirolarien arrantza postuetara, egokitzen jotzen dituen ahozko aholkuak ematera, ahalik eta epe laburrenean baina partaidearen kirol materiala manipulatu gabe. Beste Selekzio ala Talde-Klub bateko partaideen postuetara sartzea ezinezkoa izango da.

Lurralde Selekzioen Txapelketa bakoitzean, bertaratzen den Lurralde selekzio bakoitzeko Ordezkarik izendatuko da. Ordezkarien Bileran eta bere kasuan, Podiumean, bere ordezkarik bakarra izango da. Hornituko dira, ahal bada, kolore deigarritzko dortsalekin, kirolari partaideek erabiltzen dituztenekiko ezberdinak direnekin. Beharrezkoa izanez gero, bigarren Ordezkarik izendatu ahal izango da.

Kapitaina Taldearen ordezkarik izango da: Lurralde Selekzioko Kapitaina, Euskadiko Selekziokoa eta Kluben Ligako Txapelketetan, bere Talde-Klubeko Kapitaina, Ordezkarien funtzio berdinekin.

Epaimahaiko ala batzordeko kide bakar bat ere ez da txapelketa ofizialetako ala Txapelketetako partaidea izango, zeinetan aldi berean aipatu funtzioaren bat bete behar izango lukeen.

Txapelketa Ofizial orotan, Kontrolek, Epaimahaiko kideek, partaideek, Ordezkarik/Kapitainek ala Organizazioarekin loturiko langile-taldeak, bere jarduerak egiaztatuko duen bereizgarria erakutsiko dute.

X. KAPITULUA – AKTAK.

54. Artikulua Kirol Arrantza ala Kasting txapelketa ofizial orotan Akta partzialak altxatuko dira, espezialitateko Batzordeak egokitzat jotzen dituenak, baina aginduaren arabera gutxienez amaiera Akta bat formalizatu beharko da, Fvpyc-ek xedatu formatuaren arabera, Epaimahaiko kideen sinadurarekin. Aktak sorturiko gertaera guztien txostenarekin hornituko dira, pertsona eraginen sinadura barne.

55. Artikulua Eskumena.

1. Kirol Arrantza ala Kasting Txapelketa bakoitzeko amaiera Akta guztiak, Fvpyc-eko Epaimahaiak igorri beharko ditu, ahalik eta azkarren eta, edozein kasutan, gehienez 7 egun naturalen epean.

2. Euskadiko Txapelketa Aktetan azaldu beharko dira partaideen inguruko ondorengo datuak:

- Kirolarien izena eta bi abizenak, dagozkion Federazioko eta Lurralde Federazioko lizentzia zenbakia (eta ontziarena, bere kasuan), lehen hiru sailkatuena, banakako partaidetza eta partaidetza Kolektiboan.
- Gertaerak, hala badagokio.
- Epaimahaiaren ebazpena, bere kasuan.
- Banakako Sailkapen Nagusia, Selektzioen arabera eta talde/Klubaren arabera.

XI. KAPITULUA – ARAU-HAUSTEAK: LEGERIA APLIKAGARRIA, DIZIPLINA ORGANOAK, ZIGORRAK ETA PROZEDURA ZIGORTZAILEA.

56. Artikulua

1. Fvpyc-ek diziplina ahala izango du bere zuzendaritza karguak betetzen dituzten pertsona guztiengan, kirol elkarte ala klubetan eta kirolariengan, Teknikari-Entrenatzaileengan eta bertako Epaila-Arbitroengan.

2. Diziplina erregimenean, Fvpyc-en xedapenak ondorengo mendeand daude:

- Euskadiko Kirol Legeria (Legea/Legeak. Dekretua/k, etab.).
- Fvpyc-eko Estatutuak.
- Fvpyc-eko Diziplina eta Kirol Justiziaren Arautegia.
- Fvpyc-eko Kirol Arrantza eta Kasting Txapelketen Arautegia.
- Txapelketetako Deialdien Oinarriak.
- Fvpy-eko Ospakizun bakoitzari dagokion autonomia legeria.

3. Fvpyc-eko Kirol Diziplinaren organoak dira:

- Diziplinako Batzordea.
- [Apelazio Batzordea](#)

4. Prozedura zigortzailea, arau-haustea eta bere zigorrak tipifikatzen dituen Fvpyc-eko Diziplina Erregimeneko eta Kirol Justiziako Arautegian erregulatzen da.

XEDAPEN GEHIGARRIA.

BAKARRA. Kirol Txapelketen garapen egokirako jarraitu beharreko irizpideak, Arrantza ala Kasting txapelketa ofizial guztiak arautuko dituztenak, kirol Espezialitate ala Azpi-espezialitate bakoitzerako hurrengo lizenburuetako ARAU BEREZIAK bezala ezarriko dira, garapen arauetan.

* * * * *

II. IZENBURUA – KIROL ARRANTZA KONTINENTALEKO TXAPELKETEN ARAU BEREZIAK

* * * * *

I. KAPITULUA – IZOKINKIDEEN ARRANTZARENA

II A) KAPITULUA – UR GEZAKO ARRANTZARENA

II B) KAPITULUA – CARPFISHING ARRANTZARENA (ARRAIN HANDIAK)

III. KAPITULUA – BLACK – BASS ARRANTZARENA

I. KAPITULUA – IZOKINKIDEENARRANTZARENA.

1. Artikulua DEFINIZIOA.

Izokinkideen Kirol Txapelketen izendapena dagokio Salmoniformeen, Salmonidae familia, arrainen harrapaketari, kasu, amuarrainak, izokinak, itsas amuarrainak, salvelinoak, etab., zeinen arrantza ezagutzen dugun kirolaren arloan arratoi-buztan, eulia buiarekin ala buldo eta koilara txiki erakoa bezala.

2. Artikulua TXAPELKETEN BANAKETA.

1. Partaideen adinaren arabera, dagozkion Azpi-espezialitatetako partaidetza modua ala inskripzioa kontuan hartuta, Izokinkideen Txapelketak horrela banatzen dira:

A) Kategoriak: Jubenila eta Absolutua, indarrean dagoen Txapelketa Arautegiko Estatuko Federazioaren irizpidetan xedatzen diren adinak kontuan hartuta.

B) Partaidetza eta Inskripzioa:

Banakakoa
Lurralde Selekzioen arabera
Kluben Ligaren arabera (Taldeak-Klubak)
Open (partaidetza askea)

C) Azpi-espezialitateak:

Izokinkide ala Euli Arrantza edota **Izokinkide Eulia**
Jaurtiketa erako Izokinkide ala **Izokinkide Jaurtiketa** arrantza

2. Txapelketak Azpi-espezialitate bakoitzari jarraiki garatu ahal izango dira, bereizketarik gabe eta ondorengo estiloen arabera:

- a) Euli Arrantza: eskusiboki arratoi-buztan erakoa.
- b) Jaurtiketa Arrantza: Euli arrantza buiarekin eta koilara txikiarekin.

3. Artikulua AGERTOKIA.

1. Estatuko Txapelketen edota izokinkideen arrantzarako beste txapelketa ofizial batzuen ospakizunerako agertokia, eskusiboki horien berezko ingurunean ezarriko dira. (amuarrain-uretan).

2. Birpopulaketak jazotzean, horiek jadanik ur horietan bizi ohi diren espezieekin garatuko dira, gutxienez Txapelketa ospatu baino hilabete lehenago, Euskadiko Federazioak irizpide hobea proposatu ezean; bere esanen arabera, txapelketan baimendu minimoen multzoko neurri ezberdinak onartzeko eta agertokian bere banaketa ahalik eta homogeneoena izateko ahalegina egingo da.

4. Artikulua GARAPEN ARAUAK.

1. Partaideak, txapelketako azpi-espezialitatea edozein dela ere, arrantza jarduerarako kanabera bakarrarekin kontatu ahal izango du, kanabera bat ala gehiago erabilgarri izanik, muntatuta ala ez, ordezkioa ala hautazko erabilerakoa. Ontziko Arrantzan, ordezkio kanaberak ezin izango dira muntatu.

2. Pieza atera eta kontrolean aurkezteko, 122 cm bitarteko aterasure ala salabardo bat, eta kotoizko sarea edota beste material ez kiskalgarri bat erabili beharko du.

3. Arrantza ontzitik ala urtegietan urertzetik egiten denean, Deialdiaren Oinarrietan hala xedatzen den egiaztatzea dagokio, 3 metroko luzerako aterasureak ala salabardoak erabili ahal diren ala ez. Txapelketen garapena Ontzitik eta dagozkion arautegia eta xehetasunak kontuan hartuta egiteko, Txapelketaren Oinarrietatik abiatuta egin ahal izango da, Arautegi Internazionalaren arabera.

4. Tartearen esleipena zozketaren bidez egingo da, esleitu tartean partaide guztien ezarpena bermatuko duen epean eta moduan, probaren hasieratik abiatuta; markaketa hau korrontearen noranzkoan egiteko ahalegina egingo da (uretan behera). Edozein kasutan, deialdiaren oinarrietan zozketaren eguna, ordua eta tokia islatu beharko da.

5. Txapelketaren garapena gutxienez BI probekin eratuko da, horietako bakoitza bi orduko iraupeneko jarduneko arrantzarena.

6. Agertokia gunetan eta tartetan banatzen denean, partaide bakar batek ere ez du gunea eta tartea errepikatuko, ahal bada, Agertokia horrela seinaleztatzen denean.

7. Ontziko arrantzan, xede horretarako agintzen diren Deialdiko Oinarrietan Euskadiko Selektzioaren txapelketarako ala prestaketa probarako arautegi berezia xedatuko da.
8. Arrantzalearen eta Kontrolaren arteko topaketa, tartearen hasierako oholtxoaren alboan, **uretan beheara**, gauzatuko da. Elkarrekin egiaztatu beharko dituzte bere mugak; probaren hasierarako aurreikusi orduan, aipatu oholtxoa aurkitzen ez bada, Organizazioko kide bat beharko da egoera horri irtenbidea emateko; Txandari ez zaio bidea emango, bestela, biak ere Txanda horretatik kanporatu egin litezke.

5. Artikulua PORTAERA ARAUAK.

1. Txapelketak partaide bakoitzaren erabilerarako tarte ala postu mugatuak dakartzaten Agertokitan garatzen direnean, esleitu gunea gutxienez 100 metrokoa izan beharko da. Lakuetako ala urtegiatako urertzeko arrantzan, postuen luzera pixka bat laburragoa izan ahal da, gutxienez 25 metrokoa.
2. Deialdiaren Oinarrietan aurkakoa xedatu ezean, partaidea uretan sartu ahal izango da arrantza egitera edota beste edonolako maniobra egitera bere postuaren barruan, betiere egokitzen jotzen duenean eta tarte mugakidetako arrantza jardura eragozten ez duenean.
3. Gunearen erabilgarritasuna askea denean, ahalegina egingo du, kiroltasun jarrera dela medio, uretan ahal den gutxienetan sartzeko.
4. Partaide bakoitzaren erabilerarako bi marjinarekin hornitu tarte ala postu zehatza esleitzean, bietako batek marjina aldatu nahi izango balu bere postuaren ezaugarriak direla-eta ibia igarotzea ezinezkoa delako, honek maniobra hori egin ahal izango luke gunea neutroan zehar, gunea erabilgarri balego. Bestela, postu mugakidera jo beharko luke, Kontrolaren presentzian lorturiko alboko kirolariaren baimena dela medio.
5. Lakuetako ala urtegiatako urertzeko arrantzan, Deialdiaren Oinarrietan xedatuko da kirolariak uretan sartzea onartzen den ala ez.
6. Espresuki zehazten diren txapelketak, agertokiaren (gunek, tartek) markaketa zehatzik egin gabe garatu ahal izango dira. Kasu horretan, alboko kirolariaren arrantza gunearikiko gutxienez 25 metroko distantzia bat errespetatuko da.

6. Artikulua KONTROLAK.

Oinarrietan aipatzen diren Txapelketen eta bestelako Lehiaketen finalean, Kontrolaren funtzioa partaide eta kontrol zereginetan aldizkatuko diren lehiakideen ardurapean jarriko da. Txapelketa eteteko arriskua dagoenean, Espezialitateko Batzordeak Kontrolatuko harrapaketa bakoitzaren ordutegia pliketan idazteko agindua eman ahal izango du.

7. Artikulua HARRAPAKETAK.

Arau Generikoen 23. Artikuluan aurreikusia jarraituko da.

Harrapaketa balioudunak kontsideratuko dira:

a) Arrantzako espezie ezberdinak, Deialdiaren Oinarrietan xedatu neurri minimoa lortuko dutenak eta txapelketari dagokion epean zein moduan lortzen direnak eta aterasarearen barruan aurkeztuak izaten direnak, amutik askatu izan arren. Aterasarea airean altxatu ahal izango da harrapaketari ekiteko.

b) Buruaren aurrealdeko ertza eta arrainaren luzetarako lerroarekiko perpendikularren arteko gunean atxikitzen direnak, operkuluaren ahoaren hasieran.

c) Alboko gunea ala neutroa, eskuragarri baleude, aldizka inbaditu izan arren, harrapatuko litzuzkeen Kirolariari esleitu tarteko mugen barruan finkatu eta aterako liratekeenak.

Ez dira onartzen uharkaren kanpoko zoruan erori diren piezak.

Espezie bakoitzaren xehetasunak eta arrantza kirol espezialitate hauek praktikatzan dituztenen kiroltasun jarrerak aztertzen baditugu, espresuki jarraituko da Euskadiko Erkidegoko Ibaietako arrantza arautuko duten arrantza epeak eta ordu erabilgarriak, neurri minimoak, kupo eta amu onargarriak barne hartzen dituen arautegia.

8. Artikulua KIROL MATERIALA.

A) IZOKINKIDE EULIAK

1. **Kanaberak.** Erabilera askekoak izango dira, 366 cm-ak gainditu gabe. (12 oin).

2. **Txirrikak.** Bobina birakaria eta eskuzko jasotzea ala jasotze automatikoa.

3. Lerroak. Merkatuko edozein eraketa motako ala formako arratoi buztana, gutxienez 22 metroko luzerakoa.

Onartzen da:

a) Ur gaineko eta ur azpiko lerroen erabilera.

Ez da onartzen:

a) Buru-tiragailuak ala jaurtigailuak.

b) Arrantza lerrotan ur gaineko inolako pisu, gailu ala materialik eranstea, ezta ziztatze adierazlerik ere.

c) Gorputz plomatuzko lerroen erabilera.

4. Lerro azpikoak. Sinpleak, edozein luzerakoak, korapilatuak ala korapilorik gabekoak eta konikoak ala zilindrikoak. Ez zaio lerro azpiari erantsiko ur azpiko ala ur gaineko inolako mekanismorik. Lerro azpietan ez da atxikitako elementu gehigarriarik ezarriko, amuak eusteko trabes-eskorak izan ezik. Trabes-eskora horiek lerro azpian finkatu beharko dira, korapilatuta ala mikro-uztaiekin, soberakinik gabe, luzera gutxienez 5 cm-ko izanik, lerro azpitik erabiltzen den amuaren uztai ala paletaraino (eulia, streamer, ...). Amuen trabes-eskorak lerro azpian finkatuko dira, labaindu ezin izateko moduan.

5. Amuak (Euliak). Onartzen dira "streamer" eta ur gaineko ala urpeko euli artifizialak, intsektu imitatuaren bizi-zikloaren edozein fase imitatuko dutenak (larba, ninfa, azpi-imago eta imago), amu sinpleen gainean muntatzea.

Onartzen dira:

a) Euli lastatuak, betiere lasta agerian jartzen ez denean, atal morfologikoren bat edota bere egitura propioaren atalen bat imitatuko duen estaldura dela medio. Pinturaren estaldura ez da modu berean kontsideratuko. Perla ala bola txiki ikusgarri bakarra baimentzen da, bere gehieneko dimentsioa 4 mm-koa izanik.

b) Gehienez hiru euli: Bat baino gehiago erabiltzen denean, eulien arteko distantzia minimoa aske zintzilikatzean neurtutako 50 zentimetrokoa izango da.

Ez da onartzen:

a) Koloratzaileak ala usainak askatzen dituztenak.

b) Arpoi txikiarekin ala mihiarekin hornitu amua.

Baliiodunak dira arpoi txiki ala mihi erabilgarriak ez duten amuak, amua kentzeko orduan inolako erresistentziarik jarriko ez dutenak.

B) IZOKINKIDE JAURTIKETA

1. Kanaberak. Libreak, erabilera komertzialekoak, bere luzera gehienez 366 cm-koa izanik. (12 oin).

2. Txirrikak. Hautazkoak, eskuzkoa ala automatikoa, bobina finkoa ala birakaria izanik.

3. Lerroak. Esklusiboki monofilamentuzkoak, mota eta lodiera ezberdinetakoak.

Ez da onartzen:

Lerroan ala Lerro azpian buia ala buldo labaingarriak erabiltzea; finkoak izan beharko dira.

4. Amuak (Amuak soilik):

a) Koilare txiki birakariak ala uhinduak, sinpleak bertsio guztietan eta amu bakarrarekin hornituak, baina lumarik, ilerik, artilerik, eta abarrik gabe.

b) Gehienez hiru euli artifizial, buiaren ala buldoaren erabilerarekin (lerroarekiko finkoak ala lerro azpian ezarriak) eta euli zein arratoi buztan bidezko arrantzarako xedatu ezaugarri berdinekin.

c) Amuak, euliekin zein koilara txikiekin eratuak, arpoi txirik ala mihirik gabekoak izan beharko dira, edo bestela hura erabat baliogabetuta ezarriko dira, amua kentzeko orduan inolako erresistentziarik jarri ez dezan.

9. Artikulua IZOKINKIDE KLUBEN LIGA (KATEGORIA ABSOLUTUA).

Klub-en Liga, Arautegi honetako Arau Generikoen **15, 39 eta 40 Artikulu**etan aurreikusia abiapuntutzat hartuta ezartzen da. Halaber Arau Berezi hauetako **2. B) Artikuluan** kontenplatzen da eta horien 3, 4, 5, 7 eta 8 artikuluen arabera garatuko da.

Talde-Klub bakoitza lau kirolarirekin osatuko da.

Klub-en Ligako Estatuko Txapelketa gutxienez bi Probekin eratuko da, bakoitzak gutxienez jarduneko arrantzaren BI ORDUKO iraupena eskatuko du, eta jarduera motari dagokionez, **KIROL MATERIALA 8. artikuluan** aurreikusiarekin egokituko da.

Bere berezitasunak artikulatzen dira ondoren:

1.- ZOZKETA Lurralde Selektzioen arabera Txapelketa bezala garatuko da, baina **lau** partaideri dagokio.

Txanda bakoitzean lau kideetatik bi jardungo dira arrantzan eta beste biren ardurapean jarriko dira Kontrolak.

2.- KONTROLAK: Kontrol zereginak partaideen eskumenekoak izaten direnean, horiek ezin izango dute, ahal bada, bere Talde-Klub bereko kirolariengan aplikatu, ezta bere Klub bereko ala Euskadiko Erkidego bereko beste Talde bateko partaideengan ere.

10. Artikulua EULI ARRANTZAKO ETA JAURTIKETA ARRANTZAKO SAILKAPENAK.

1.- Txapelketa bakoitza proba ala txanda kopuru zehatzarekin eratuko da, eta hura Deialdiaren oinarrietan azalduko da.

2.- **Puntuazioa:** Pieza baliodun bakoitzari 250 puntu dagozkio, gehi bere luzerari dagozkionak (puntatik buztaneraino) zentimetrotan, kubora jasota eta 100 artean zatituta.

3.- Partaidetza ala inskripzioa aztertzen baditugu, Sailkapen motak dira: Banakakoa, Lurralde Selektzioak, Kluben Liga ala Open. Azken hauetan, bere Oinarrietan zehaztuko da Sailkapen sistema.

4.- Sailkapena, Txandaren eta finalaren arabera sailkapenak balioztatzen dituzten irizpide sekuentzialak jarraituz egingo da. Kasu guztietan, banakako sailkapenetan ondorengo xehetasunak azalduko dira:

Pieza baliodunen kopurua, horien pisua, bere neurria eta pieza handienaren luzera kontuan hartuta.

I.-) BANAKAKO SAILKAPENA

A) Txandaren arabera Banakako Sailkapena

1.- Txanda bakoitzean, partaideek puntuen kopuru bat lortuko dute, bere harrapaketa baliodunen emaitza bezala. Puntuazioa ebatzean, **postuen** segida adieraziko da, txikienetik handienara.

2.- **Txandako berdinketa hausteak.**- Txanda ala proba bakoitzeko sailkapenetan, puntu berdinei postu berdina dagokie, horrela, hurrengoaren puntuazioa berdinketa kopuruaren arabera dagokion postu zenbakian geratuko da.

3.- **Txandako Zeroak.**- Harrapaketa baliodunik lortu ez duten partaideentzat, Sailkapeneko postu zenbakia izango da harrapaketak egin dituzten partaideen kopurua gehi bat, gehi harrapaketarik gabeko partaideen kopurua, 2rengatik zatituta.

Adibidea: 20 partaideko Txanda batean, harrapaketa baliodunak eta 4 zero dakartzaten 16 kirolari daude.

Txanda honetan lehenik eta behin sailkatu beharko lirateke harrapaketak dakartzaten 16 kirolariak, aurreko irizpideen arabera eta jarraian etorriko lirateke "zeroen" inguruko postuak, ondorengo balorazioaren arabera: $P = 16 + 1 + (4:2) = 19$. (berdin-berdina) Txanda bakoitzeko Banakako Sailkapeneko postua, harrapaketa baliodunik gabeko 2 arrantzalerena, **19**. a izango litzateke.

B) Banakako Amaiera Sailkapena

1.- Banakako Amaiera Sailkapena, txanda bakoitzeko Banakako Sailkapen guztietako **postuen** baturarekin lorturiko puntuazio txikienetik handienarekin ebatziko da.

2.- Berdinketa hausteak.

Postuen (tokien) berdinketaren kasuan, kontuan hartuko dira:

- a).- Txapelketa osoan lorturiko piezen kopuru handiena.
- b).- Pieza handiena.
- c).- Harrapatu pieza baliodunen luzera osoaren neurri aritmetikoa.
- d).- Berdinketa errepikatzean, zozketaren arabera.

II.-) SELEKTIOEN ARABERAKO SAILKAPENA

1.- Lurralde Selektzioa da, Lurralde Federazio berean inskribatutako kirolari guztien multzoa.

2.- **Selektzioen arabera Sailkapen xedeetarako soilik**, Lurralde Federazio bateko Selektzioa federazio horretako **hiru** kirolari partaiderekin osatzen da, alegia Amaiera Banakako Sailkapenean postu onenak lortu dituztenekin.

3.- Selektzioen arabera Amaiera Sailkapena eratuko da, Selektzio bakoitzeko sailkapeneko hiru postu onenekin Banakako Amaiera Sailkapenean lorturiko postuak (tokiak) Selektzio bakoitzerako batuz, eta batura horiek txikienetik handienara antolatuz.

4.- Berdinketa hausteak. Batura horietako batean berdinketa jazotzen denean, ondorengo irizpideak hurrenkera honen arabera aplikatuko dira:

- a).- Selektzio bakoitzeko piezen kopuru handiena, bere hiru kiderena.
- b).- Banakako Amaiera Sailkapenean Selektzioko hiru **kideren** puntuen amaiera batura.
- c).- Selektzio bakoitzeko pieza handiena, bere hiru kiderena.
- d).- Berdinketa mantentzen denean, zozketaren arabera.

III.-) KLUBEN LIGAKO SAILKAPENA

1.- Kluben Ligako Sailkapena partaideen Banakako Amaiera Sailkapenetik abiatzen da, Artikulu honetako I.-). B). ataleko 1. puntuan xedatuaren arabera.

2.- Jarraian, Banakako Amaiera Sailkapen horretan Talde-Klub bereko kide bakoitzak lorturiko postuen batura egingo da, batura horiek txikienetik handienara antolatuz.

3.- **Berdinketa hausteak.**- Batura hauetako batean berdinketa jazotzen denean, ondorengo irizpideak hurrenkera honen arabera aplikatuko dira:

- a).- Talde-Klub bakoitzeko piezen kopuru handiena, bere lau kiderena.
- b).- Talde-Klub bakoitzeko pieza handiena, bere lau kiderena.
- c).- Berdinketa mantentzen denean, zozketaren arabera.

II A) KAPITULUA- UR GEZAKO ARRANTZARENA.

1. **Artikulua DEFINIZIOA.** Ibaietan, kanaletan, urtegietan, etab. praktikatzen den kirol arrantza, bere urertzaren konfigurazioak eta ezaugarriak eta arrantza espezie ezberdinek partaide ororentzat berdintasunezko baldintza onenetan kirol arrantza praktikatzea ahalbidetzen dutenean, UR GEZAKO ARRANTZA izendatzen da.

2. Artikulua TXAPELKETEN BANAKETA.

1. Partaideen adina eta egoera kontuan hartuta, partaidetzaren ala inskripzioaren eta dagozkion Estiloak ala Jarduera Moduak kontuan hartuta, Ur Gezako Txapelketak horrela banatzen dira:

A) Kategoriak: Jubenilak, Damak, Maskulinoa eta Absolutua, indarrean dagoen bere Txapelketa Arautegiko Estatu Federazioko irizpideekin egokitutako adinekin.

B) Partaidetza ala Inskripzioa:

- Banakakoa
- Lurralde Selekzioen arabera
- Klub Ligen arabera (Taldeak-Klubak)
- Open (partaidetza askea)

C) Jarduera Estiloak ala Moduak:

Txirrikarik gabe:

- a) Arrantza Azkarra
- b) Arrantza Ahokagarria, (roubaissienne), teleskopikoa ala finkoa.

Txirrikarekin:

- c) Arrantza Ingelesa
- d) Espainiako ala Bolognako Arrantza

2. Ur Gezako Arrantzako Selekzioen Estatuko Txapelketak eta gainerako Txapelketa Ofizialak, aukera ASKEAREN arabera garatuko dira, deskribatu Jarduera Motaren batean.

3. A.C. Kontzentrazioak, Deialdiaren Oinarrietan Espezialitateko Batzordeak adierazi Jarduera Moduen arabera garatuko dira.

3. Artikulua AGERTOKIA ETA ZOZKETA.

A) Agertokia:

1. Ahal den neurrian konfigurazio zuzena dagokio, 25 m-ko urertzen arteko zabalera minimoarekin; 1,50 m bitarteko sakontasunarekin eta urertzetik 3 eta 6 m bitarteko distantziatik aurrerako bere arrantzarako urekin.

2. Sailkapen kolektiboko Txapelketa guztietan (Selekzioak / Kluben Liga), Agertokia dagozkion Sektoretan (A, B, C, etab.) azpi-banatuko da, gutxienez hiru izanik eta Sektoreak postutan azpi-banatuko dira (1, 2, 3, 4, etab.) partaideen kopuru osoa Sektoreen kopuru osoagatik zatitzean lorturiko zenbakiaren arabera.

3. Behar bezala mugatutako eta zenbatutako arrantza postuak bezala esleituriko postuek, ahal bada, 10 m-ko luzera eta 5 m-ko zabalera izango dituzte eta bere artean bereizi ahal izango dira metro bateko gune neutroaren arabera. Organizazioak, Espezialitatearen Batzordearekin koordinatuta, Postuen markaketa dimentsio horiek erabakiko ditu, Txapelketarako hautatu agertokiko urertzetan antzematen diren aukeren arabera.

4. Ikusleak finkatzeko, ezarriko dira, ahal bada, partaideen postuen ala zirrinda bereizleen atzeko heziak, gutxi gorabehera 10 metroko distantziara.

5. Ikusleen eta partaideen arteko korridorea, aurreikusi izango balitz, eskusiboki Epaimahaiaren, Organizazioaren, Ordezkarari ala kapitain eta behar bezala bermatu pertsonen (argazkilariek, kameralariek, etab.) erabilerarako izango da.

6. Postuen zenbaki ezarpena, beti korrontearen noranzkoan (uretan behera) egitea hobetsiko da, korronteko agertokiak direnean (ibaiak ala kanalak) eta ur geldiak, lakuak eta urtegiak izaten direnean, ordulariaren orratzen noranzkoan egingo da, uretara begira.

7. Elementu Elektrikoak: Ez da inola ere onartzen arrantzaleak finkatzea edozein instalazio elektrikotik (linea elektrikoak, transformadoreak, zutabeak, etab.) 25 metro baino gutxiagora.

B) Zozketa:

8. Postuen zozketa, partaideen Ordezkarien/Kapitainen aurrean egingo da.

9. Lehenengo txandarako eta Ordezkarari/Kapitain bileran eginiko sektoreen zozketaren arabera, Selekzio/Talde-Klubetako kideen arrantza postua berdina izango da Sektore guztietan, horiek lerro zuzenean finkatzen direnean. Bestela, sektore multzo bakoitzeko zozketa bat egingo da.

Hurrengo zozketak eta, aurretiko sektoreen zozketaren arabera, lehenengo txandarekiko aurkako hurrenkera jarraituz egingo da eta sektorez sektore egingo da.

10. Selekzio/Talde-Klub bakoitzak Sektoreko lehenengo ala azken postua errepikatu ahal izango du, betiere arrantza postu korrelatiboko kirolaria bere Selekzio/Talde-Klub berekoa izaten ez denean.

11. Zozketaren arabera, partaide bakoitzari identifikatzeko dortsala esleituko zaio, dagokion sektoreko postu zenbakiarekin eta hizkiarekin.

4. Artikulua GARAPEN ARAUAK.

1. Txapelketa eratzen duten txanden iraupena, HIRU ETA BOST ordu bitarteko arrantza izango da.

2. Zozketa egitean eta partaideari egiaztariak ematean, hau arrantza agertokira lekualdatu ahal izango da, bere material guztia esleitu arrantza postuaren barruan uzteko; handik aterako da materiala gordetzea amaitu duenean.

Onartzen da:

a) Materiala garraiatzeko laguntza jasotzea, arrantza postuan sartu ezin izango diren beste pertsona batzuen aldetik.

b) Kontrolaren bidez amua jasotzea, amuen eta erakargarrien kontrola egin bitartean.

c) Erakargarria nahastea, bahetzea eta hezetzea, arrantza postutik kanpo.

Ez da onartzen:

a) Materiala postutik kanpo muntatzea, ezta muntatuta sartzear ere, Espezialitateko Batzordean hitzartutako eta Txapelketaren hasieran aurretiaz jakinarazitako salbuespenak alde batera utzita.

b) Bola erakargarria arrantza postutik kanpo prestatzea.

c) Horien ikuskaritza amaitzean, amuak eta/edo bola erakargarriak jasotzea.

d) Proba hasi ondoren lehiatzen duen arrantzaleak arrantza jardueran erabiliko duen edozein material mota jasotzea.

3. Deialdiaren Oinarrietan amu eta bola erakargarri kopuruak mugatuak direnean, horiek ezin izango dira bere artean nahastu, ezta Epailen ikuskaritzaren aurretik bolak egin ere. Txapelketa hasi baino ordubete lehenago, Organizazioko Epailak amu eta bola erakargarri kopurua kontrolatu ahal izango dute.

a) **Erakargarri kopurua:** Erakargarri erabat nahastuak, erabiltzeko prest daudenean (hezeak, bahetuak eta trinkotu gabe) neurtu ala pisatu egin ahal izango dira, lurra, legarra, artoa, garia, kalamu-hazia...edota beste edozein gehigarri.

b) **Amu kopurua:** Organizazioko Epailak jadanik eratu eta nahastu diren amuak neurtu ala pisatu ahal izango dituzte.

c) Arrantzaleak, Oinarrietan aurreikusi amu eta erakargarri kopuruaren berri eman beharko du.

d) Pisuen eta/edo neurrien irizpidea Deialdi Oinarrietan adieraziko da.

4. **Lehen seinalea** entzutean, arrantza postuetan sartu ahal izango da, kirol materialaren prestaketarekin; uren zundaketa eta neurketarekin, lerroen eta flotagailuen entsegu ala probekin, amuekin eta bola erakargarrien prestaketarekin (Epailen-Organizazioak ikuskatzen dutenean) hasteko.

Era berean, materialaren erabilera zuzenerako eta arrantza postuko jarduerarako burtzi, plataforma eta beste hainbat beharrezko elementuren ezarpena ahalbidetuko da; horretarako gehienez 120 minutuko denbora-epearekin kontatuko dute.

Selekzio/Talde-Klubeko Ordezkarari / Kapitain soilik sartu ahal izango da bere taldeko kideen postuan, Arau Generikoen 53. Artikuluan aurreikusi baldintzen arabera.

5. Bigarren seinalea ematean, arrantza jardura hasi baino bost minutu lehenago, partaideak amu ezartze intentsiboarekin (gizentzea eta amua jartzea) hasiko dira, egokitzen jotzen duten moduan, bere postuen ala irudimenezko horien luzapenaren mugen barruan.

Onartzen da: "Arragoa", jaurtigailua ala katapultaketa (jadanik txapelketa osoan zehar) erabiltzea eta amu lodia ezarpena bost minututan egitea.

Ez da onartzen: Erakargarria ala amuak mantenu materialarekin jaurtitzea (galtzetinak, amua jartzeko edozein gailu, zerbitzariak, gutun-azal biodegradagarriak edota espresuki baimendu gabeko beste edonolako sistema ala tresna).

6. Hirugarren seinaleak probaren hasiera markatuko du, zeinetan zehar, kirolariek ez duten inolako amurik erabiliko, arina eta forma sinplekoa ez dena. Amu ezarpen arina izango da esku bakarrarekin eratzen eta erabiltzen dena ('asticot' kolatuzko bolak izan ezik, horiek bi eskurekin erabiliko baitira) beste laguntza gehigarririk gabe, oinak, kuboak, etab. Halaber eratu eta erabili ahal izango dira jadanik amu ezarpen arineko bolak, eskuz ala jaurtitzailearen bidez jaurtitzeko.

7. Laugarren seinaleak, txandaren amaierarako bost minutu falta direla adieraziko du.

8. Bosgarren eta azken seinaleak txanda ala txapelketa amaitutzat emango du. Uretatik kanpo aurkitzen ez den pieza oro baztertu egingo da. Kirolariak bere postuetan mantenduko dira, jadanik kirol materiala jasotzera pasatuz.

9. Etapa ezberdinak markatzen dituzten soinu-seinale guztiak laburrak izango dira; kasu orotan, seinalearen **hasiera** zaindu beharko da.

5. Artikulua PORTAERA ARAUAK.

1. Partaide orok esleitu arrantza postua komenigarritzat jotzen duen moduan erabili ahal izango du, bat-bateko mugimendurik gabe, zuhertasunez, oharkabean pasatzeko moduan.

2. Azken seinalea eman ondoren, partaideak zerbait harrapatu duenean zein ez duenean, bere postuan mantenduko da horiek manipulatu gabe, pisaketa taldea plikan partaidearen dokumentazioaz, kontrolaz eta adostasun sinaduraz arduratzen den arte. Harrapaketak jazo direnean, Organizazioko Epaileak heldu zain egon beharko da pisaketarako, bere plika eta burtzia prestatuz, denbora aurrezteko.

Estatuko Txapelketetan eta A.C. Kontzentraziotan, harrapaketak pisatu ondoren, horiek berehala partaidearen burtzira itzuliko dira, jarraian uretara botatzeko; segidan, kirolaria ondorengo partaidearen pisaketa ikustera mugatuko da. Sektoreko pisaketaren amaiera soilik, bere arduradunak burtziko arrainak uretara itzultzeko agindua emango du. Jardura horrek pisaketa errepikatzea ahalbidetuko du, erreklamazio ala zalantza bat jazotzen denean.

3. Ez da onartzen:

- a) Jaurtiketa arrantza amuarekin ala euliarekin egitea, ezta arrain biziarekin ala hilarekin ere.
- b) Lasta korrituarekin ala gabe eginiko iraupen arrantza.
- c) Amu artifizialekin eginiko arrantza: 'asticot', 'ver de vasse' imitazioak.
- d) Eko-zundaketen erabilera.
- e) Burtzian edonolako pisu gehigarri sartzea. Kanpoko lastak onartzen dira.

6. Artikuluak KONTROLAK.

1. Ur Gezako Arrantzaren txapelketa orotan, organizazioak erabilgarri jarriko ditu ahal bada, Sektore bakoitzeko kontrol BAT, gutxienez.

- 2. Proban zehar, kontrolak partaideen atzealdean finkatuko dira, horien mugimenduak ez eragozteko moduan.
- 3. Epaileen eskaerari jarraiki, erakargarrien eta amuen kontrol prozesuetan jardungo dira, baita pisaketan ere.

7. Artikuluak HARRAPAKETAK.

Arau Generikoen 23. Artikuluan eta espezie, neurketa, kupo, amu, eta abarren inguruan Euskadiko Erkidegoko eskumendeko organismoaren arabera Ibaietako Arrantzaren arloan indarrean dauden xedapenetan aurreikusia jarraituko da.

1. Harrapaketa onargarriak kontsideratuko dira:

- a) Arrantzako espezie ezberdinak, Deialdiaren Oinarrietan xedatu neurri minimoa lortuko dutenak eta txapelketari dagokion epean eta moduan lortzen direnak
- b) Txandaren amaiera-seinalea ematen denean, urarekin kontaktuan aurkitzen ez diren piezak.
- c) Ahotik ala ustekabean ahotik kanpo harrapatuak izan diren arrainak.

2. Ez dira onartzen:

- Bere kasuan txapelketaren arabera neurri minimoa lortzen ez duten arrantzako espezieen harrapaketa.
- Arautegiaren arabera xedatuarekiko kiroltasunaren aurkako metodoen bidez lortuak izan direnak.
- Kirolarien lerroak zeharkatuz, alboko postua inbadituz lortuak izan direnak. (Horiek berehala uretara itzuliko dira; burtzian sartzen badira, pieza handiena deskontatuko da).
- Deialdi Oinarrietan espresuki kanporatuak izan diren espezieak.

3. Kirolariak pisaketara aurkeztu dituen harrapaketa nuluak ala hondatuak, txapelketako Epaileari ala Epaileei piezak deskalifikatzea proposatzeko eta horien Sektoreko puntuazioa ezeztatze eskumena ematen dio.

8. Artikulua KIROL MATERIALA.

1. Kanaberak. Partaideak arrantza jardunerako kanabera bakarria erabiliko du, praktikatzeko duen Estiloa ala Modua edonolako dela ere, erreserba modura erabilgarri izanik, muntatuta ala ez, egokituz jotzen dituen kanabera guztiak, arautegiaren arabera kanaberen gehieneko neurriak ondorengoak izanik. Kategoria ezberdinei jarraiki:

U-18	U-22	DAMAK	MASKULINOA ETA ABSOLUTUA
Gehienez 11,5 m	Gehienez 13 m	Gehienez 11,5 m	Gehienez 13 m

2. Txirrikak. Hautazko erabilerakoak, eskuzkoak ala automatikoak, bobina finkoak ala birakariak hornituak.

3. Lerroak. Eraketa askea eta lotura-sistema.

4. Azpiko Lerroak. Arrantza aparailu onartuak flotagailu bakarria eraman beharko du, punta bakarreko amuaz (arpoi txikiarekin ala gabe) hornituta, terminalean edota zuzenean lerroan atxikita.

Ez da onartzen:

- Gehiegizko lasta: Flotagailuak lasta guztia eta amua sostengatu behar ditu.
- Hondoko arrantza, lastatua ala flotagailurik gabea.
- Deribazioan muntatu lerro azpia ala lasta.
- Koilara txikiak, euli artifizialak eta 'asticot', 'ver de vase', zizare imitazioak, etab.

Onartzen da: Aurreko **a)** atalean xedatua hala izanik, gehienez hondoa ukituko duen plomuaren % 10 bereiztea, betiere flotagailuaren deriba eragotzen ez badu, korrontea ala haizea direla medio.

5. Lastak. Lasta ezberdinen erabileraren balizko imitazioak ala salbuespenak, bere kasuan, Deialdiaren Oinarrietan islatuko dira.

6. Flotagailuak. Lastaren eta amuaren pisua jasateko modukoak izango dira, ondorengo arauarekin egokituz:

- Arrantza ingelesa: Lerroko puntu bakarrean, finkoa ala labaingarria, finkatzekoa.
- Arrantza Azkarra ala Ahokagarria: Lerroko bi puntutan ala gehiagotan finkatzekoa.
- Bolognako ala Euskadiko Arrantza: Lerroko bi puntutan ala gehiagotan, finkoak ala labaingarriak, finkatzekoa.

7. Amuak. Amu naturalen ala Euskadiko Erkidegoko arrantza arloko eskumeneko organismo ofizialean xedaturiko jatorri organikoa duten amuen erabilera onartzen da.

Edozein kasutan, administrazio arloko zirkunstantziak direla-eta amu batzuk debekatu egingo balira, Organizazioak horren berri emango lieke partaideei, Txapelketa Oinarrietan.

Ez dira onartzen bizirik ala hilik dagoen arrainarekin eratu amuak, edota arrainaren arrabak.

Ez da onartzen amu bezala ogirik erabiltzea, amua izateko gaiak ez dira harekin masa eran atxikiko (masillak), aldiz amuan ziztatu ala zeharkatu egingo dira.

8. Plataformak. 1 m²-k bitarteko dimentsioko plataformak erabiltzea onartzen da (1m. x 1m.) eta horiek guztiak urertzarekiko zein hortik kanpoko gunearekiko lerro zuzenean instalatuko dira.

Organizazioaren irizpideari jarraiki, Espezialitateko Batzordearen onarpenarekin, agertokien arabera, plataformak uretan pixka bat sartzea onartuko da.

Plataforma nagusiarekiko plataforma gehigarriak instalatu ahal izango dira, Arrantza materiala eusteko soilik.

9. Laguntza Elementuak. Jaurtigailuak ala katapultak, arragoak eta aterasareak ala salabardoak dira. Partaideak aterasarea ala salabardoa erabili ahal izango du, pieza urtetatik atera ahal izateko laguntza modura. Jarduera hori partaideak egingo du, inolako laguntzarik jaso gabe. Arragoa erabiltzeko, aurretiaz arrantza jarduerarako kanabera erretiratzea aginduko da.

9. Artikulua UR GEZAKO KLUBEN LIGA (KATEGORIA ABSOLUTUA).

Klubena Liga Arautegi honetako Arau Generikoen **15, 39 eta 40 Artikulu**etan eta Kapitulua honetako **2. B) Artikulua**n aurreikusia kontuan hartuta ezartzen da. Talde-Kluba bakoitza bost kirolariarekin osatuko da.

Klubena Ligako Estatutoko Txapelketa gutxienez bi txandarekin eratzen da, bakoitza arautegiaren arabera dagokion iraupenarekin, arrantza jarduera mota hautazkoa izanik (Oinarrietan xedatu Espezialitateko Batzordearen irizpidea bestelakoa denean izan ezik), betiere **KIROL MATERIALA 8. Artikulua**n aurreikusiarekin egokitzen denean.

10. Artikulua SAILKAPENAK.

1.- Ur Gezako Arrantzaren Txapelketa Ofizialetako emaitzak sailkatzeko puntuazioak, harrapaketa baliadunak pisatzean lorturiko pisuaren GRAMOKO PUNTU BATEKOA izango da. Hautazkoa izanik, Deialdi Oinarrietan hala xedatzen denean, pieza bakoitza oinarri horietan xedatu puntuen bidez puntuatu ahal izango litzateke.

2.- Partaidetza ala inskripzio mota bakoitza kontuan hartuta, sailkapenak izan daitezke: Banakakoa, Lurralde Selektzioen araberrakoa eta Klubena Ligaren araberrakoa.

Open Txapelketen kasuan, puntuazioa eta sailkapen sistema dagozkion Oinarrietan deskribatuko dira.

3.- Sailkapenak, Sektoreen arabera Txanda bakoitzean eta Amaiera Sailkapenean xedatzen diren irizpide sekuentzialak jarraituz egingo dira. Oso komenigarria da Sektore guztietan partaide kopurua berdina izatea. Kasu guztietan, Sektorearen araberrako Banakako Sailkapenak eta Banakako Finalak, partaide bakoitzaren puntuazioak (gramoak) kontuan hartuta garatuko dira eta aurreko puntuko aukerazko kasuetan, harrapaketa baliadunen kopurua kontatuko da.

I.-) BANAKAKO SAILKAPENA

A). Sektorearen araberrako Banakako Sailkapena

1.- Dagokion Sektoreko bikoteen banakako puntuazioak (gramoak) ebaluatuko dira, hurrenkera handienetik txikienera izanik, txikienetik handienara hurrenkeraren arabera Sektoreko **"postuak"** (tokiak) berrantolatuz ala bihurtuz.

2.- Sektoreko berdinketa hausteak.- Sektoreko puntu-gramoen (eta ondorioz, **postuetan**) arloan berdinketa jazotzen denean, kirolari guztien lorturiko postuen batez bestekoa erabakiko da eta hurrengo kirolariaren postua zenbakia, berdinketa kopuruaren arabera dagokion postura lekualdatu beharko da.

1. Adibidea.- Bi partaide 5. postuan suertatzen direnean. Puntuazioa = $(5+6) : 2 = 5,5$ puntu-postua dagokio bakoitzari eta hurrengoari berriz, **7.** postua dagokio.

2. Adibidea.- Hiru partaide 8. postuan suertatzen dira. Puntuazioa = $(8+9+10) : 3 = 9$ puntu-postua dagokie hirurei eta hurrengoari berriz, **11.** postua dagokio.

3.- Sektoreko Zeroak.- Harrapaketa baliadunik lortu ez duten partaideek, Sektore bereko harrapaketarik gabeko postuen batez bestekoaren puntu-postu kopuru baliokidea lortuko dute.

Adibidea: 60 partaidetako Sektorearen kasuan, eman dezagun horien artean 54 kirolari daudela baliadun harrapaketekin eta 6 zerorekin.

Sektorean sailkatu beharko lirateke, lehenik eta behin, harrapaketak lortu dituzten 54 kirolariak, aurreko irizpideen arabera eta jarraian "zero" balorazioko postuak etorriko lirateke, horrela: **P = $(55 + 56 + 57 + 58 + 59 + 60) : 6 = 57,5$** edota bestela, **P = $(55 + 60) : 2 = 57,5$** . Harrapaketa baliadunik gabeko 6 arrantzalaren Sektoreko Sailkapeneko postua (berdin-berdina) izango litzateke **57, 5**. Sektorean harrapaketarik lortu ez duen partaide bakarra balego, honek Sektore horretako azken postuari dagokion/dagozkion postu/postuen kopurua lortuko luke.

4.- Sektoreko ausentziak: Txanda jakin batean Sektore bateko partaide bat faltatuko balitz, gainerako Sektoretan azkenak ala azkenaurrekoak liratekeen harrapaketak lortu dituzten kirolari guztiak Sektoreko postua berarekin sailkatuko lirateke, postua eta faltatu partaidea edozein dela ere, Sektoreko azken postuari dagokion postua zenbakia lortuko luke.

Adibidea: 29 partaidetik, 28 partaidek pisua lortzen dute: Falta denari 29. **postua** dagokio.

B). Txandaren arabera Banakako Sailkapena

Ur Gezako txapelketetan, Txandak, Faseak ala Jardunaldiak ospatzen dira, baina ez Txandaren arabera Banakako Sailkapena, Sektoreen eta Finalaren arabera baizik.

C). Banakako Amaiera Sailkapena

1.- Sektoreen arabera Banakako Sailkapenak lortzen direnean, partaide bakoitzak Txanda bakoitzean lorturiko Sektoreko postuak batuko dira eta batura horien hurrenkera txikitik handira egingo da.

2.- Berdinketa hausteak ataleko postuen batura egitean, bere kasuan: ondorengo irizpideak jarraituko dira, hurrenkera honen arabera:

a) Txanda guztietako puntuazio handienaren arabera.

b) Txandetako baten puntuazio handienaren arabera. (Partaide berdinduetatik puntuazio handienekoa).

c) Zozketaren arabera.

Berdinketa hausteen inguruko puntuazio hori, oro har, puntu-gramoena da eta Sailkapenean halaber harrapatu pieza bakoitzeko puntuatzen denean, gramoen arabera puntuazioa eta puntu/piezak barne hartuko dira.

II.-) SELEKZIOEN ARABERAKO SAILKAPENAK

1.- Lurralde Selektzioa da, Lurralde Federazio berean inskribatu kirolari partaide guztien multzoa.

2.- Selektzioen arabera Sailkapen xedeetarako soilik, Lurralde Federazio bateko Selektzioa Banakako Amaiera Sailkapenean postu onenak lortu dituzten federazio horretako **hiru** kirolari partaiderekin osatzen da.

3.- Selektzioen arabera Amaiera Sailkapena, Sekzio bakoitzean sailkapen onena lortu duen kide bakoitzak Selektzio bakoitzetako Banakako Amaiera Sailkapenean lorturiko postuak (tokiak) batzean eratuko da, batura horien hurrenkera txikienetik handienara izanik.

4.- Berdinketa hausteak. Batura hauetako batean berdintasuna jazotzen denean, ondorengo irizpideak jarraituko dira, hurrenkera honetan:

a) Lehen postuan sailkatuko da, bere hiru kideren Txanda guztien zenbaketa egitean puntuazio handiena lortzen duen Selektzioa.

b) Berdinketa errepikatzen denean, hiru kide horietatik bere Txanda onenean puntuazio onena lortu duenaren Selektzioak irabaziko du.

Berdinketa hausteen inguruko puntuazio hori, oro har, puntu-gramoena da eta Sailkapenean halaber harrapatu pieza bakoitzeko puntuatzen denean, gramoen arabera puntuazioa eta puntu/piezak barne hartuko dira.

III.-) KLUBEN LIGAKO SAILKAPENA

Ur Gezako Kluben Ligan ez da beharrezkoa Banakako Amaiera Sailkapena egitea.

1.- Kluben Ligako Sailkapena Sektoreen arabera Banakako Sailkapenetik abiatzen da.

2.- Jarraian, Txanda ala Jardunaldi bakoitzean Talde-Klub bakoitzeko bost kideren postuak batuko dira ("zeroak" eta berdinketa hausteak jadanik Sektoretan ebatzi ziren).

3.- Segidan, Txanda bakoitzeko Talde-Klub bakoitzeko kideen Sektoreko postuak batuko dira, batura horien hurrenkera txikienetik handienara izanik.

4.- Berdinketa hausteak.- Postuen batura horien inguruko berdinketak jazotzean, horiek ondorengo irizpideen arabera ebatziko dira:

a) Bost kirolarirekin eratu Txanda guztietako baturan puntuazio handiena lortu duen Talde-Kluba lehenago sailkatuko da.

b) Berdinketa errepikatzen denean, Txanda oneneko edozein kideren puntuazio onena lortu duen Talde-Kluba nagusitzen da.

c) Zozketaren arabera.

Berdinketa hausteen inguruko puntuazio hau, oro har, puntu-gramoena da eta Sailkapenean halaber harrapatu pieza bakoitzeko puntuatzen denean, gramoen arabera puntuazioa eta puntu/piezak barne hartuko dira.

CARPFISHING ARRANTZA (ARRAIN HANDIAK)

HITZAURREA

Duela urte gutxi sorturiko arrantza mota honetako kirol arrantzale zaleen sektoreko eskaerak ugartuz joan direnez, Fvpyc-ek Estatuan ezartzea erabaki zuen, aipatu zaleen sektorea hedatuz zihoala ikustean. Carpfishing modalitatearen ezarpenak Azpi-espezialitate hau kirol arautegi bereziarekin hornituko du, FIPS-ed erakundearen, hau da, arlo honen eskumeneko kirol Organismo internazionalaren irizpideekin egokituz.

Carpfishing modalitatea hiru irizpide nagusitan oinarritzen da: Segidako ordu kopuru luzean praktikatzen da, gauekoak barne, partaide guztien harremana, elkarbizitza eta kiroltasuna bultzatuz. Aurretiaz, agertokiak soberan eta modu egokian hornitzea beharrezkoa da. Eta Ingurunearekiko errespetu handiena eskatzen da, harrapaketen jardueratik hasita.

II B) KAPITULUA – CARPFISHING ARRANTZARENA (ARRAIN HANDIAK)

1. Artikulua DEFINIZIOA. Kanaberaz eginiko kirol arrantza, ibaietako uretan praktikatua, zeinen konfigurazioak eta ezaugarriak ziprinido handien hala nola espezie ezberdinetako beste arrain handi batzuen inguruko jarduera ahalbidetuko duten, partaideen berdintasuna bultzatuko duten baldintza onenak direla medio, Arrain Handien Arrantza ala **Carpfishing** izendatzen da.

2. Artikulua TXAPELKETEN BANAKETA.

Partaideen adina eta egoera kontuan hartuta, partaidetzaren ala inskripzioaren eta dagozkion Estiloak ala Jarduera Moduak kontuan hartuta, Carpfishing Txapelketak horrela banatzen dira:

A) Kategoriak: U-16, Jubenilak (U-21), Damak, Maskulinoa eta Absolutua, indarrean dagoen Txapelketa Arautegiko Estatu Federazioaren irizpideekin bat datozen adinekin.

B) Partaidetza ala Inskripzioa:

Banakakoa (Bikoteak)
Lurralde Selekzioen arabera
Klubaren arabera (Taldea-Klubak)
Open (partaidetza askea)

3. Artikulua AGERTOKIA.

1. Sektoreen eta Postuen arabera banatuko da, Sektore kopurua Selektzio/Talde-Klub bakoitza eratzen duen Bikote kopuruaren baliokidea izanik, balizko etenaldiak saihestuz (elekttrizitate-hariak, zubiak, biaduktuak, etab.) edo bestela horiek Sektoreen arteko 200 m-ko distantzia minimoa ezartzeko aprobetxatuko dira. Instalazio elektriko ala elekttrizitate-hariekiko 50 m-ko distantzia gordeko da.

2. Ringen arteko 76 m-ko erradioa ezartzeko eta, ahal bada, gutxi gorabehera 1,50 m-ko sakonerako arrantza-postuen ezarpena egiteko aukera eman beharko du.

Postu horiek aurrez aurre ezarriko balira, postu bakoitzerako erradio aske minimoa 150 m-ra hedatuko litzateke, postu horien arteko elkargunerik eragin gabe.

3. Espezieen beharrezko populazioa 200/500 kg./ha. litzateke, gutxi gorabehera, 5 Kg-ko pisua gainditzen duten aleen proportzio handiarekin.

4. Txapelketa ofizialetan, Organizazioak eskuragarri jarriko ditu partaideentzat, dutxak, konketak eta WC-ak.

5. Postuak 8 x 8 m-ko partzelarekin ala "ring" batekin mugatuko dira, eta horien hegalek, 2 m-ra, urertzaren noranzkoan, ezarpen finkoaren arabera, arrantzarako, jaurtiketarako eta amua jartzeko ardatzak definituko dituzte. Edo bestela, postuak ringeko bi hegaletatik 12 m-ra ezarritako lekukoek mugatuko dituzte. Txapelketa bakoitzerako hautatu aukera Deialdi Oinarrietan definituko da. Partaideek euren jarduera eskusiboki ringaren barruan (jaurtiketa eta lerroen berreskurapena, amu jartzea eta harrapaketak) garatu ahal izango dute, zuhurtasunez eta zaratarik egin gabe jardunez.

Ringaren atzean, Epaimahaia/Organizazioa, baimendutako argazkilariak eta kamerak hartzeko korridorea ezarriko dira, hautazko zabalerarekin, Deialdiaren Oinarrietan definituko den Agertoki bakoitzaren arabera.

Partzelen ala ringen ezarpenerako arautegi eskema **II B) KAPITULU** honen amaieran erantsiko da.

6. Kanpadendak, kolorea inerteza izanik, ringaren barruan instalatuko dira eta postuetako tangak ipintzeko bi argi-seinale, agian txapelketa osoan zehar mantenduko ez direnak, ezarri litezke, gero handik erretiratzea beharrezkoa izanik.

7. Sektoreen eta Postuen zozketa Epaimahaiak egingo du, proba hasi baino 180 minutu lehenago, gutxi gorabehera, Ordezkarik/Kapitainaren aurrean eta Bikoteak esleitzen direnean, Bikote bakoitzerako Sektore eta Postu berdinak mantenduko dira, Txapelketa osoan zehar.

8. Ibaietan eta kanaletan, lehenengo postua beti gainerako postuekiko urtetan gora ezarriko da. Korronterik gabeko uretan, ezkerretan ezarriko da, uretara begira eta markaketa ezkerretik eskuinerantz egingo da (ordulariaren orratzen noranzkoan).

9. Ez da onartzen partaideek proba hasi baino 72 ordu lehenago dagokion Agertokian inolako entrenamendurik egitea.

4. Artikulua GARAPEN / PISAKETA ARAUAK.

Arrantza mota honen ezaugarriak eta bere txapelketetako eskakizunak kontuan hartuta, Txapelketak antolatzen dituzten Lurralde Federazioek dagozkien baimenak lortu beharko dituzte eta bere kasuan, 72 ordutan arrantza etengabea ahalbidetuko duten Administrazio salbuespenak, gauekoak barne, hala nola Organizazioan beharrezkoak diren partaide eta kideen Agertokiaren alboko kanpaketa eta gaueko egonaldia. Deialdiaren Oinarrietan amuen eta erakargarrien muga ezartzen denean, egiaztapenerako eta kontrolerako mekanismoak Oinarri horietan islatuko dira edota Zozketaren aurretiko Ordezkarik/Kapitainaren Bileran hitzartuko dira. Deialdian harrapatu beharreko espezieak zehaztuko dira, baita Txapelketako horien neurri minimo onartua ere.

1. Carpfishing arrantza binaka ala "Bikoteka" praktikatzeko da; Lurralde Selektzioa ala Klubeko talde bakoitza (Partaidetza ala Inskripzio Motaren arabera), gehienez hiru Bikotez osatuko da, alegia sei kirolari, gehi Ordezkaria ala Kapitaina. Deialdiaren Oinarrietan talde kopurua (eta Taldeen araberrako Bikoteak) kontenplatu dira, Lurralde Federazioek Lurralde Selektzioaren araberrako Txapelketetan eta Klubaren Ligan inskribatu ahal izango dituztenak. Taldeak/Klubak beti bi Bikotez osatuko dira.

2. Bi Ordezkarik/Kapitain soilik sartu ahal izango dira bere ordezkatuaren ringetara, horien dortsala ezberdina dela kontuan hartuta.

3. **Etenaldia:** Carpfishing modalitateko Arau generikoen **26. Artikuluaren** aplikazioa 48 ordukoa izango da:

- a) Etenaldia 48 ordu baino lehen gertatzen denean, jarduera geroago berreskuratu ahal izango da, baldintza meteorologikoak hobetzean, baina etenaldiaren iraupena deskontatu gabe. Baldintzak hobetzen ez direnean, Proba atzeratu egingo da.
- b) Etenaldia lehenengo 48 orduak iragan eta gero gertatzen denean, Sailkapenak une horretaraino egin diren harrapaketen araberr antolatuko dira. Etenaldia ala atzeratzea aldi berean gauzatuko da Sektore guztietan eta Bikote partaide guztien artean.

4. Zozketaren ondoren eta agertokira iristen direnean, laguntzarekin ala laguntzarik gabe, kirolariak euren kirol material guztia ringean utziko dute, bertara sartu gabe eta lehen seinalea entzun bitartean material hori prestatu gabe.

Lehenengo seinalea. (jadanik 72 orduaren kontaketa hasten denean). Partaideak ringean sartu eta kirol materiala 120 minututan prestatzen hasi daitezten baimentzen ditu. Ordezkariek/Kapitainek soilik entregatu ahal izango dizkie amuak ala kirol materiala bere Taldeko kideei, Ordezkarien/Kapitainaren Bileran hitzartu denbora-erpean (eta egunean behin soilik).

Bigarren seinalea. Partaideek jadanik amuak ipini, arrantza jarduera martxan jarri eta gehigarriak gabeko amua jarri ahal dute, material disolbagarriak erabili ezin izanik. Eskuzko amu jartzea onartzen da, zerbitzariarekin, hodi boili jaurtitzailera, jaurtigailuarekin, etab., hala nola hariaren eta poltsa disolbagarrien erabilera.

Halaber erabili ahal dira kanaberaz jaurtitzeko bait-rocket eta jarduera-oinetako katapultak elastiko ala malguetara, 18:30 eta 9:00 bitartean (Deialdiaren oinarrietan espresuki aldatuta jazotzean salbu); rocket-en gehieneko dimentsioa barruko 50 mm-ko diametrokoa eta 200 mm-ko luzerakoa izango da.

Hirugarren seinalea. Partaideen informaziorako, proba amaitzeko 15 minutu falta direla adierazten da.

Laugarren seinalea. Probaren amaiera. Partaide batek arrain bat "sartuko" balu seinale hori martxan jarri aurretik, 15 minutu gehigarriarekin kontaktuko luke bere harrapaketa lortu ahal izateko. Kasu horietan, 15 minutu barru, **bosgarren seinalea** adieraziko litzateke eta une horretan urtetik ateratako eta amuan atxikitako arrainak soilik zenbatuko lirateke.

Etapaz ezberdinak bereizteko soinu-seinale guztiak laburrak izango dira; kasu guztietan seinalearen **hasiera** izango da balio duena.

5. Pisaketa.

a) Partaideen kopuruaren arabera, Ordezkarien/Kapitainen Bileran pisaketarako talde kopuru zehatza -bi pertsonakoa- ezarriko da, Sektore bakoitzeko, balantza berdin-berdinak ekarriko dituzte, Epaileak/Epaileek aurretiaz egiaztatuak, gutxienez +/- 50 gr-ko doitasunarekin.

b) Sektore bakoitzeko pisaketa taldeek postuak zeharkatuko dituzte, aipatu Bileran finkatu ordu kopuru jakin batez behin; kidetako batek tripodea eutsiko du, hura lurrean finkatzeko eta besteak, pisaketaren arduradunak, pisuaren irakurketa egingo du, jarraian Bikotearen, Kontrol/Epaileen eta Ordezkari/Kapitainen aurrean plikan idaztera pasatzeko, erabilgarri jarriko balira. Ez da onartzen beste inork ikusi dezan, ezta ahoz edo beste edonola sartu dezan ere.

c) Pisaketa korridore ofizialean egingo da, pisaketa zaku berdin-berdinak direla medio. Piezak Bikoteko kirolari batek lekualdatuko ditu, eusteko zakuan, behar bezala hezetutako babes moketaraino; bertan, pieza Organizazioak emandako pisaketa zakura lekualdatuko du.

d) Esparru Antolatzaileari dagokion Bikoteak eginiko harrapaketa baten pisaketan, Epailearen edo behintzat hura balioztatuko duen beste Lurralde Federazio/Talde-Klub bateko kide baten presentzia beharrezkoa izango da.

e) Pisaketaren ondoren, Kontrol/Epaileak egiaztatu pilka sinatzean, partaideak pieza uretara itzuliko du KONTU HANDIZ; ez da onartuko **Pisaketaren** inguruko ondorengo inolako erreklamaziorik egitea.

5. Artikulua PORTAERA ARAUAK.

Carpfishing modalitatean, arrantza postuen ezarpenaren aurretiko amu jartzea beharrezkoa izango da, arrantza mota honek hala eskatzen duelako; hori dela-eta, Deialdi Oinarrietan Proba hasieran amu jartzea onartzeko xedapena adieraziko da, horretarako ontzi txikien erabilera beharrezkoa izanik.

Azpi-espezialitate honetan partaideen jarrerarekin loturiko hainbat arau berezi daude indarrean, Arau Generikoen barne hartzen diren orokorrak alde batera utzita; multzo horretan daude: derrigorrezkoak, hautazkoak eta debekatzaileak.

BETEBEHARRAK:

- a) Derrigorrezkoa da harrapaketak eusteko zakuen erabilera eskusiboa egitea, piezak uretan bizirik mantentzeko, arrain bakoitzerako zaku bat erabiltzea beharrezkoa izanik.
- b) Era berean, beharrezkoa da koltxonetak ala harrera-moketak erabiltzea, harrapaketak amutik ateratzeko (eta bere kasuan sendatzeko,) behar bezala bustiak, eta eusteko zakutik pisaketa zakura bitarteko bere lekualdatzea manipulatu ahal izateko.
- c) Txapelketa amaitzean, ringak erabat hutsik geratu beharko dira.
- d) Lerroak eskusiboki **3.5. Artikuluan** definitu arrantza-esparruaren barruan ezarriko dira
- e) Aparailuak ala muntaketak arrantza kanaberaren laguntzarekin jaurtiko dira.
- f) Derrigorrezkoa da "hair" (ilea) erako arrantza, amu hutsarekin egitea.
- g) "Plomo askea" erako muntaketak arrainari ahalbidetu beharko dio, lerroa hautsiko balitz, erabili lastatik erraz askatu ahal izatea.
- h) Derrigorrezkoa izango da arrainen antiseptikoa eskuragarri izatea, "kryston" erakoa edota hori izan ezean betadine, arrain zaurituetan aplikatu ahal izateko.

BAIMENAK:

- i) Onartuta daude harrapaketa adierazle elektronikoak, soinu eta/edo ikusmen adierazleak, baita pendulu, urtxintxa, monkey-climber, etab. erako mekanismoak ere
- j) Partaideak uretan sartzea onartzen da, belaunaren altueraraino iritsi arte.
- k) Partaide batek bere bikoteari salabardoarekin lagundu ahal izango dio, harrapaketaren kasuan.
- l) Halaber back-lead tresnaren erabilera (lerroak urperatzeko atzealdeko lastak) onartzen da, Epaile/Kontrolak edozein unetan horien altxamendua eskatu ahal izango balute ere, lerroak eta arrantza ardatzak behar bezala lerrokatuta dauden ala ez egiaztatzeko.
- m) Kanpadendaren azpian gaueko argi elektrikoa onartzen da. Era berean, gaueko harrapaketetan argi diskretua erabili ahal izango da, aurreko linternaren bidez, aterasarea erabiltzeko unean.

DEBEKUAK:

- n) Ez da onartzen lerrotan flotagailuak erabiltzea.
- ñ) Ez da onartzen zebadoreekin eginiko arrantza (swing-feeder, swing-tip, quiver-tip), malguki zebadoreak ... etab.
- o) Jaurtiketan zehar, lastak ezin izango du arrantza postuekiko alboko mugimendurik deskribatu. Bere mugimenduak postua – ura noranzkoa soilik garatu ahal izango du, zentzu bietan.
- p) Halaber ez da onartzen inolako tresna telegidaturen erabilera, bai amua jartzeko eta bai aparailuak kokatzeko, Txapelketa Oinarrietan espresuki baimena ematen denean izan ezik, hala nola eko-zunda eta beste edonolako tresna zeinen propulzio indarra aire konprimatua, gasa ala elektrizitatea izango den.
- q) Ez da onartzen gauez Agertokiaren inguruan inolako ibilgailurik ibiltzea, Organizazioko ibilgailuak izan ezik.
- r) m) salbuespena alde batera utzita, ez da onartzen uretarantz bideratutako linternak edota fokuak erabiltzea, ezta kameretako "flash" argiak ere.
- s) Ez da onartzen kanpadenden azpian surik egitea, edonolako motakoa.

6. Artikulua KONTROLAK.

1. Carpfishing Arantzaren txapelketa orotan, organizazioak martxan jarriko du, ahal izanez gero, Sektore bakoitzeko kontrol Bat gutxienez. Probaren arautegi osoa ezagutu beharko dute; bere kopurua bikoiztu ala hirukoiztu ahal izango da Sektore bakoitzeko partaide kopuruaren (Bikoteak) arabera, errelebuak bermatzeko helburuari jarraiki.

2. Proban zehar, Kontrolak partaideen atzealdean ala eskuinaldean kokatuko dira, horien mugimenduak ez eragozteko moduan; harrapaketak eusteko zakuen kokapen egokia eta piezak harrapatzeko moketaren ureztaketa kontrolatuz, kirolariarekin eta Epailearekin pilkak izenpetuz. Baimendu gabeko pertsonen sarrera debekatzeaz gainera harrapaketak uretara behar bezala itzultzen direla zainduko dute.

3. Epailearen/Epaileen eskaerari jarraiki, erakargarrien eta amuen kontrol prozesuetan esku hartuko dute, baita Ordezkarien/Kapitainen Bileran hitzartu bezalako pisaketan ere.

7. Artikulua HARRAPAKETAK.

Arau generikoen 23. Artikuluan eta Euskadiko Erkidegoko eskumeneko Organismoari dagokion Ibaietako Arrantzaren arloan indarrean dauden xedapenetan aurreikusia jarraituko da, espezieak, neurketa, kupoak, amuak, etab. arloetan.

1. Ondorengo harrapaketak onartzen dira:

- a) Arrain Handiak zeinen Espeziea eta neurri minimoa ala pisua Deialdi Oinarrietan zehaztuko diren.
- b) Txapelketaren laugarren amaiera seinalea (edota bere kasuan, bosgarrena) eman ondoren ura ukitzen ez duten piezak.
- c) Ahotik ala ustekabea ahotik kanpo harrapatu diren arrainak.

2. Ez dira onartuko:

- a) Arrantza jarduerako espezieen harrapaketa, horiek Txapelketarako ezarri neurri ala pisu minimoak lortzen ez dituztenean.
- b) Kiroltasun metodoen eta arautegiaren arabera ezarriaren aurka lortu diren haiek.
- c) Kirolarien lerroak zeharkatuz, partaideek alboko postua inbaditzea, horrela gertatu dela egiaztatzen denean. (Horiek berehala uretara itzuliko dira; eusteko zakuetan sartzen badira, pieza handiena deskontatu egingo da).

3. Arrainak, pisatu bitartean, eusteko zakutan gordeko dira; zaku horiek urpean mantenduko dira, lastarik edota barruan sarturiko beste inolako objekturik gabe. Kirolari batek onargarriak ez diren ala bereziki hondatuta dauden harrapaketak pisatzera eramaten dituztenean, txapelketako Epaileari bidea ematen dio piezak deskalifikatzeko eta sektoreko horien puntuazioa ezeztatzeko.

4. Partaideek euren eusteko zakuen kopuru egokia ekarri beharko dute. Zakuak falta direnean, Epaile/Kontrolen ardurapean jarriko da pisaketaren zeregina, zakuak husteko helburuari jarraiki.

8. Artikulua KIROL MATERIALA.

1. **Kanaberak.** 4 metroko ala distantzia urriagoko luzerakoak, arrantzale bakoitzeko jarduerarako bi kanabera onartzen dira (Bikote bakoitzeko), arrantzale bakoitzeko hiru kanabera onartzen dituzten Erkidegoetako Txapelketetan izan ezik, zeinetan kanaberak Bikote bakoitzeko sei izango liratekeen. Beste ordezk hainbat kanabera prestatu ahal dira, muntatuak ala ez, bertikalki eta arrantza jardueran ari direnen euskarriak baino uretatik urrunago ezarri beharko direnak.

Beste kanabera batzuk erabili ahal dira adierazlea ala erreferentziatzeko buia jaurtitzeko (halaber jarduerako kanaberen rod-pod aparailuetan eutsi ezingo direnak), espresuki identifikatzea eta balizatzea ezinbestekoa izanik.

2. **Txirrikak.** Ezinbestean jarduera automatikoa eta bobina finkoa eskatuko dute. Txirrikaren mekanismo askatzailea edota bait-runner aparailua dakartzaten euste bikoitzekoak onartzen dira.

3. Lerroak. Eraketa askea eta 0,22 mm-ko diametro minimoko bateratze sistema nagusitzen dira kordaketak egiteko, harrapaketan balizko kalteak saihesteko ahaleginaren arabera.

Bere erresistentzia eta erabili lastaren gramoen arabera pisaketaren arteko loturaren arabera, zubi ala "leader" bat erabili beharko da, jaurtiketaren balizko hausturak saihesteko.

4. Lerro azpiak. Onartzen den arrantza aparailuak ezin du flotagailurik eraman eta "hair-rig" eran (ile aparailua) muntatu amu sinpleaz soilik hornituko da, zeinen neurria, salbuespenak ala mugak, bere kasuan, Deialdi Oinarrietan islatuko diren.

5. Lastak. Carpfishing modalitateko txapelketetan, lastak beti hondoa ukitu beharko du. Bere pisua hautazkoa izango da haizearen, jaurtiketa distantziaren eta, indarrean balego, korrontearen arabera; baldintza onenetan, 50 gr-ko pisu minimoa dela medio.

5.f) Artikuluan aurreikusien arabera muntatu beharko dira, mota ezberdinak kontuan hartuta, laxakorra, erdi-finkoa ala kliepekoa. Lasten erabilerekin loturiko balizko salbuespenak ala mugak, bere kasuan, Deialdi Oinarrietan islatuko dira.

6. Amuak. Ez dira onartzen animalia biziak eta arrain-arrautzak amurako erabiltzea, ezta produktu metalikoak ere, lasta-zebadorearen erabilera eta erakargarriak buztinarekin ala bentonitarekin oratzea.

- a) Txapelketan amuen kopuru mugatua finkatuko balitz, 4. Artikuluan aurreikusia jarraituko da.
- b) Irinak, pasta bilgarriak, aleak, pellet-ak eta boili flotagarriak zein ez flotagarriak soilik onartzen dira.
- c) Amurako erabilitako beita guztiek ez dute gairatuko 40 mm-ko diametroa.
- d) Proba amaitzean, ez da onartzen uretara jaurtitzeko amuak eta/edo erakargarri soberakinak.

7. Laguntza Elementuak. Jaurtigailu mota ezberdinak, boileak jaurtitzeko hodiak, heldulekua duten palak ala koilara handiak, bait-rocket ala "kohete" zebadoreak, rod-pod ala kanaberetarako euskarriak, etab. eta aterasareak. Horiek dimentsio handikoak izan beharko dira, lortzea espero den harrapaketen neurriarekiko proportzionatuak, Carpfishing modalitateko bereziak.

9. Artikulua CARPFISHING KLUBEN LIGA (KATEGORIA ABSOLUTUA).

Klubena liga Arautegi honetako Arau Generikoen. **15, 39 eta 40 Artikuluetan** eta Kapitulua honetako **2. B) Artikuluan** aurreikusia kontuan hartuta ezartzen da. Talde-Klub bakoitza bi Bikotez (4 kirolari) osatzen da.

Klubena Ligako Estatuko Txapelketan txanda bakarra garatuko da, etengabeko 72 orduko arautegiaren arabera iraupenarekin, **KIROL MATERIALA 8. Artikuluaren** arabera arrantza materialarekin.

10. Artikulua SAILKAPENAK.

1.- Carpfishing modalitateko Arrantza Txapelketa Ofizialetako emaitzak sailkatzeko puntuazioa, harrapaketa baliodunen pisaketan lorturiko pisu guztien GRAMOKO PUNTU BATEN arabera izango da.

2.- Partaidetzaren ala inskripzioaren izaera kontuan hartuta, sailkapenak izango dira: Banakakoa/Bikoteak, aurreko puntuaren arabera eta Amaiera Banakakoa/Bikoteen Sailkapenetik datozen Lurralde Selekzioen eta Klubena Ligaren arabera eratuak. Open Txapelketen kasuan, puntuazioa eta sailkapen sistema dagozkion Oinarrietan deskribatuko dira.

3.- Banakakoa/Bikoteak Sailkapenak Sektoreen arabera Sailkapenak eta Amaiera Sailkapena baloratzen dituzten irizpide sekuentzialak jarraituz eratuko dira. Oso komenigarria da Sektoretan Bikote partaideen kopuru berdinarekin kontatzea. Kasu guztietan, Sektoreko Banakakoa/Bikoteen Sailkapenetan eta Amaiera Banakakoa/Bikoteen Sailkapenetan, bikote bakoitzaren puntuazioa (gramoak) eta bakoitzaren pisua zein harrapaketa baliodunen kopurua adieraziko dira.

I.-) BANAKAKO SAILKAPENA

A). Sektoreko Banakakoa/Bikoteen Sailkapena

1.- Dagokion Sektoreko bikoteen banakakoa puntuazioak (gramoak) ebaluatuko dira, hurrenkera handienetik txikienera izanik, txikienetik handienara hurrenkeraren arabera Sektoreko "postuak" (tokiak) berrantolatuz ala bihurtuz.

2.- Sektoreko berdinketa haustea.- Sektorean puntu-gramoen (ondorioz **postuen**) inguruko berdinketa jazotzen denean, Bikote eragin guztietan lorturiko postuen batez bestekoa aurkituko dugu eta hurrengo Bikoteari postu zenbakia lekualdatuko litzaioke, berdinketa kopuruaren arabera zenbakia izanik.

1. Adibidea.- BI Bikote 5. postuan suertatzen dira. Puntuazioa = (5+6) : 2 = 5,5 puntu-postua lortuko luke bakoitzak eta hurrengoari 7. postua esleituko litzaioke.

2. Adibidea.- Hiru Bikote 8. postuan suertatzen dira. Puntuazioa = $(8+9+10) : 3 = 9$ puntu-postua lortuko lukete guztiek eta hurrengoari **11.** postua esleituko litzaioke.

3.- Sektoreko Zeroak.- Harrapaketa baliodunik lortu ez duten Bikoteek, Sektoreko harrapaketarik gabeko postuen batez bestekoaren puntu-postu kopuru baliokidea lortuko dute.

Adibidea: Demagun 5 Bikoterekin eratu Sektorearekin kontatzen dugula, horien artean harrapaketa baliodunekin eta 2 zerorekin kontatzen duten 3 Bikote daudela.

Sektore honetan, lehenik eta behin harrapaketak lortu dituzten 3 Bikoteak sailkatu behar genituzke, aurreko irizpideen arabera eta jarraian "zeroen" inguruko postuak ezarriko lirateke, horrela baloratuz: $P = (4 + 5) : 2 = 4,5$. Harrapaketa baliodunik gabeko 2 Bikoteen Sektoreko Sailkapeneko postua (berdin-berdina) **4,5** izango litzateke. Sektorean harrapaketarik gabeko Bikote bakarra balego, honen puntu-postu zenbakia Sektoreko azken postuaren baliokidea izango litzateke.

4.- Sektoreko ausentziak: Sektorean Bikote bat faltatuko balitz, gainerako Sektoretan azkenak eta azkenaurrekoak suertatuko liratekeen harrapaketak lortu dituzten Bikoteak Sektoreko postu berdinarekin sailkatuko lirateke, postu batean ala bestean suertatu izana alde batera utzita eta falta zen Bikoteak Sektoreko azken postuari dagokion zenbaki berdina lortuko luke.

Adibidea: 9 Bikotetik, 8 partaidek pisua lortzen dute: Faltza denari **9. postua** dagokio.

B). Banakako/Bikoteen Amaiera Sailkapena.

1.- Sektoreen arabera Banakako/Bikoteen sailkapena egitean, Txapelketako Sektore kopuruarekiko Sektoreko lehenengo, bigarren, hirugarren...postu baliokideak lortuko dira. Jarraian puntuazio handienaren arabera (gramoak) hurrenkerarekin antolatuko dira, Sektoreko lehenengo guztiak; jarraian **harrapaketa baliodunak lortu dituzten** bigarren, hirugarren etab. guztiak, handienetik txikienera hurrenkerarekin. Erlazio horrek, txikienetik handienara hurrenkerako "**postuekin**" berrantolatuta, berdinketa haustek eta "zeroak" ebazten direnean, Txapelketako **postuen** Banakako/Bikoteen Amaiera Sailkapena eratuko luke.

2.- Banakako /Bikoteen Finaleko berdinketa haustek.- Txapelketa batean, bi ala Bikote partaide gehiago Sektoreko postu eta puntu-gramo berdinekin suertatuko balira, pieza handiena lortu duena sailkatuko da; berdinketa mantentzen denean, lehentasuna emango zaio harrapaketa guztien batez besteko pisu handienari (amaiera pisua pieza kopuruagatik zatituta).

II.-) SELEKZIOEN ARABERAKO SAILKAPENAK

1.- Lurralde Selektzioa da, Lurralde Federazio berean inskribatu kirolari partaide guztien multzoa.

2.- Selektzioen arabera Sailkapenaren xedeetarako soilik, Lurralde Federazio bateko Selektzioa osatzen dute Federazio horretako **bi ala hiru** Bikote partaideek (4.1 Artikuluaren arabera inskribatu Bikote kopurua kontuan hartuta) zeinek Banakako/Bikoteen Amaiera Sailkapenean postu onenak lortuko zituzten.

3.- Selektzioen arabera Amaiera Sailkapena, Sekzio bakoitzean sailkapen onena lortu duen bi/hiru Bikote bakoitzak Sekzio bakoitzerako Banakako Amaiera Sailkapenean lorturiko postuak (tokiak) batzean eratuko da, batura horien hurrenkera txikienetik handienara izanik.

4.- Berdinketa haustek. Batura horien inguruko berdinketak jazotzean, horiek ondorengo irizpideen arabera ebatziko dira:

a) Pieza handiena lortu duen Selektzioa lehena sailkatuko da.

b) Berdinketa errepikatzen denean, bere harrapaketen batez besteko pisu onena lortu duen Selektzioa nagusituko da (amaiera pisua pieza kopuruagatik zatituta).

III.-) KLUBEN LIGAKO SAILKAPENA


1.- Sailkapena, Partaideen Banakako/Bikoteen Amaiera Sailkapenetik abiatzen da, alegia **I.-) B). Banakako/Bikoteen Amaiera Sailkapena** atalean xedatuaren arabera lortu denetik .

2.- Jarraian Banakako/Bikoteen Amaiera Sailkapen horretako Talde-Klub bereko **bi** Bikotek lorturiko postuen batura egingo da, batura horien hurrenkera txikienetik handienara izanik.

3.- Berdinketa haustek.- Postuen batura horien inguruko berdinketa jazotzean, horiek ondorengo irizpideen arabera ebatziko dira:

a) Pieza handiena lortu duen Selektzioa lehena sailkatuko da.

b) Berdinketa errepikatzen denean, bere harrapaketen batez besteko onena lortu duen Talde-Kluba nagusituko da (amaiera pisua pieza kopuruagatik zatituta).



A Gunea. Bikotea, bere Selektzio/Taldeko Ordezkarik/Kapitaina eta Epaimahaiko kideak ahalordetzen ditu.

B Gunea. Epaimahaiko kideak, Epailak/Kontrolak, Ordezkarik/Kapitaina eta Epaimahaiak zein Kirolariak baimendu Prentsa ahalordetzen ditu.

C Gunea. Epaimahaiko, Organizazioko kideak, Erreserbak, Ordezkarik eta Kazetariak ahalordetzen ditu, aurreko puntuaren baldintza berdinekin.

D Gunea. Eskusiboki Epaimahaiko kideentzat erreserbatzen da.

III KAPITULUA– BLACK-BASS ARRANTZARENA.

1. Artikulua DEFINIZIOA.

Black-Bass Kirol Arrantza izendatzen da ibaietako uretan, ontzirik ala urertzetik egin ohi dena, zeinen helburua Black-Bass ala Perka Beltza (Micropterus Salmoides) modalitateko arrantza izango den, partaide guztientzat kirol baldintza onenak bilatuz.

2. Artikulua TXAPELKETEN BANAKETA.

1. Partaideen adinaren arabera, dagokion partaidetza ala inskripzioa eta Azpi-espezialitateak kontuan hartuta, Black-Bass Txapelketak horrela banatzen dira:

A) Kategoriak: Jubenila eta Absolutua, indarrean dagoen Txapelketa Arautegiko Estatuko Federazioaren irizpidetan xedatzen diren adinak kontuan hartuta.

B) Partaidetza ala Inskripzioa:

Banakakoa/Bikoteak

Lurralde Selektzioen arabera

Klubaren Ligaren arabera (Taldek-Klubak)

Open

C) Azpi-espezialitateak:

Ontzitik eginiko Black-Bass arrantza (ala **Black-Bass Ontzia**)

Urertzetik eginiko Black-Bass arrantza (ala **Urtetzeko Black-Bass**)

2. Txapelketak Azpi-espezialitate hauetako bakoitzarekin egin ahal izango dira, deialdian xedatu partaidetza mota eta Kategoria kontuan hartuta.

3. Artikulua AGERTOKIA.

1. Arrantza agertokia urtegiak, Organizazioak erabat mugatu eta seinaleztatu urtegi, ibai ala laku tarte bat izango da, zeinetan txapelketa lehiatuko den partaideen kopurua kontuan hartuta. Era berean, Organizazioak behar bezala seinaleztatuko ditu murrizketa motaren bat aurkezten duten barruko guneak.

2. Txapelketa baten enklabea eta hedadura erabakiko dira eremuaren orografia eta partaide kopurua kontuan hartuta. Tartearen mugak txanda bakoitza hasi aurretik jendarteratuko dira.

3. Txapelketa hasi aurretik, Ordezkarik/Kapitainek agertokiaren inguruko informazioa emango zaie, mugak, gune murriztuak -erabilgarri baleude-, Kontrol Nagusiaren kokapena, Laguntza kontrolen guneak, larrialdiko telefonoak eta beste edonolako datu interesgarri ezagutu ditzaten.

4. Artikulua GARAPEN ARAUAK.

Deialdia, Programa, Inskripzioak eta Oinarriak.

Inskribatzeko orduan, kirolariak txapelketa arrantza praktikatzeko eskatzen den kirol eta administrazio dokumentazioaren jabe izan beharko dira. Hala ere, inskripzioa behin-behinekoa izango da Epaimahaiak dokumentazio hori zuzena izateaz gainera indarrean dagoen ala ez egiaztatu bitartean. Txapelketa Jubenilen Kategoriarekin garatzen denean, Oinarriek eskatuko dute kirolarien inskripzioarako, txapelketaren garapenean kirolari bakoitzaz arduratuko den pertsonaren aurretiko esleipena.

1. Black-Bass Kirol Arrantzaren Txapelketak txanda kopuru jakin batekin garatuko dira. Txanden inguruko hasiera eta amaiera orduak kirol aprobeitxamendu onena lortzeko moduan, jardueraren ezaugarriak eta arrainen mugimendua kontuan hartuta ezarriko dira.

2. Txapelketa bakoitza Espezialitatearen Batzordeak egokitzen jotzen duen Txanden kopuruarekin garatuko da, zein bere oinarrietan xedatuko diren.

3. Txanden iraupena jarduneko arrantzaren bost eta hamar ordu artekoa izango da.

4. Estatuko Txapelketetan eta A.C. Kontzentrazioetan gutxienez bi Txanda ospatuko dira.

5. Txapelketak "Jaurtiketa" Moduan egingo dira, bertsio guztiak barne, "arratoi buztan" erako euli arrantza izan ezik.

6. Ez da onartzen xedatu arrantza-gunetik ateratzea.

Ontziko Black-Bass modalitateko arau gehigarriak.

7. Ontzien irteera pixkanaka egitea hobetsiko da. Horrela, iristea era berean egitea bilatuko da, ontzi guztien jarduneko arrantzaren ordu kopurua berdina izan dadin. Ez da onartzen ontzien irteera eta helmuga gunean arrantza egitea.

8. Txapelketak Bikoteka ala bikoteen arabera garatuko dira (ontzi bakoitzeko bat). Hala ere, Kategoria Absolutuko txapelketetan tripulatzailea, eta ez patroia, Jubenilen Kategoriakoa izatea onartu ahal izango da. Ontziak kirolari bakarrarekin inskribatzeko aukera espresuki Epaimahaiak baimendu beharko du.

9. Irteera bakoitzaren posizioa zozketaren bidez erabakiko da, txapelketa Epaimahaiak kontrolatuko du eta bere Epailak zuzenduko du. Uretan dauden unetik, ontzi guztiak bere esanetara jarriko dira, bere instrukzioak betetzeko prest.

10. Kirolari partaideen ontziek nabigazio eta arrantza arloko arautegia bete beharko dute, Organizazioak ospakizunerako baimen kolektiboa lortzen duenean izan ezik.

11. Inskribatu kirolarien ontziak propulzio mekanikoarekin ibiliko dira.

12. kaskoaren ala motor potentziaren inguruko murrizketarik ez da ezarriko, baina betiere dagokion Arro Holografikoaren organismoak xedatua jarraitu beharko da.

13. Bikote batek ontzi ezberdinak erabili ahal izango ditu txapelketako txanda ezberdinetan. Hala ere, ontzia aldatzeko bertako Epaila ala kide ofizialaren baimenarekin kontatu beharko du.

14. Arrantza jarduera hori ontziaren barrutik egin beharko da beti. Hura lotuta, ainguratuta, noraezean, lurrera botata edota arraunen ala motor elektrikoaren laguntzarekin mugimenduan aurkitu ahal izango da.

15. Ez da inola ere onartzen urertzeko "curricán" arrantzaren jarduera baina arrantza jarduera, motor elektrikoa onartu egiten da.

16. Oro har, ainguratu den ala nabigatzen ari den ontzi orok, beste ontzi batekiko segurtasun distantzia mantendu beharko du, txapelketan jardunean aritu ala ez, gutxienez 10 metrokoa eta horiek guztiak dagokion tartearekin, beste hainbat erabilerarako erabilutako eta/edo erreserbatutako agertokiaren urertzarekiko.

Arrantza jardueran zehar lehiakideen artean beste ontziekiko 50 metroko distantzia minimoa errespetatuko da. Toki jakin batera lehena iritsi eta arrantza jardunean hasten denak, berea bezala erreklamatu ahal izango du 50 metroko erradioko gunea, zeinetan bere ontzi propioa finkatuko den.

17. Segurtasun arloko eta arrantza guneko distantzia hauek Espezialitateko Batzordeak aldatu ahal izango ditu, agertokiaren baldintza ezberdinek hala gomendatzen badute txapelketaren garapen egokirako.

18. Ez da biratuko, ezta brankatik ebakiko ere ontzi bakar bat ere, gutxienez berrogeita hamar metroko babes eman gabe. Guneko ezaugarriak direla-eta, distantzia hori mantentzea ezinezkoa denean, pasatzeko ahalegina egiten duen ontziko patroiek beste ontzikoak ohartaraziko du, bere lekualdatzea ahalik eta eragozpen urriekin eta abiadura txikiarekin egitea bilatuz.

19. Proba hastean, kirolari batek ontzia uzteko ezinbesteko arrazoiak azaldu beharko ditu, betiere alde egitea une batekoa izaten denean, kasu horretan kirolariak arrantza jarduera oro etengo dute, hura ontzira itzuli bitartean (Arau Generikoen 19.3 Art.).

20. Ez da onartzen lurretik ala beste ontzi batetik laguntza jasotzea, ezta harekin atrakatzea ere, Epailearen ontziarekin izan ezik, larrialdiko eta salbamenduko kasuetan.

21. Ontziak bere kabuz heldu beharko dira portura. Beste edonolako prozedurak txandatik kanporatzeko bidea emango du.

22. Txanda batetan zehar, ontzi bat portura hurbildu ahal izango da osasun laguntzaren beharra izaten duenean, erregaia behar duenean, matxura bat konpondu behar duenean edota osasun laguntza behar duenean eta oro har, edonolako larrialdi ala ustekabe sortzen denean. Hipotesi horietan guztietan Epaimahaiaren baimena beharrezkoa izango da. Bestela, bere jarduera probatik eginiko borondatezko alde egitea bezala ulertuko da, dagozkion ondorioak kontuan hartuta.

Porturatzeak irauten duen bitartean, taldeak arrantza jarduera guztiak etengo ditu; berehala txapelketara itzuli beharrean aurkituko da, porturatze hori eragin zuen arrazoiak amaitu denean. Porturatzea eragingo lukeen arrazoiak mantenduko balitz, proba amaitzeko unea eta kirolariak oraindik txapelketara itzuliko ez balira, hori dagokion txandan inplikatu taldearen ezinbesteko alde egitea bezala ulertuko da.

23. **Penalizazioak.** Proba ala txanda bat garatzen den bitartean, atzerapen minutu bakoitzak Bikotea 500 gr-rekin penalizatuko du eta 15 minutuko atzerapena gainditzen bada, bikotea txandatik kanporatu egingo da.

5. Artikulua PORTAERA ARAUAK.

Ontziko Black-Bass modalitatearen arauak.

1. Txapelketa bateko txandak, Kluben Ligan izan ezik, bertan inskribatu kideek ala Bikoteak egin beharko ditu. Bere kideren bat aldatu egingo balitz, beste bikote bat eratu dela kontsideratuko da.

Irizpide hori Estatuko Txapelketaren aurretiko fase guztietan aplikatu ahal izango da: Sailkapeneko Sozialak eta Lurralde Sailkapenekoak.

Txapelketa batean, arrazoi larria dela medio, inskribatu bikotea ordezteko aukerak, hala nola horiek egiteko moduak, Epaimahaiaren irizpideari jarraiki aplikatuko dira.

2. Txapelketa Ofizialetan (Estatuko txapelketak eta bere sailkapenak) kirolari batek bikote bakarra eratu ahal izango du.

3. Partaideek, zeinen ontzia Epaileak eskatzen duenean ez den irtengo, euren txanda galduko dute, irteteko azkenak izanik, horien itzulera ordua bere horretan mantenduko bada ere.

4. Ontzi bakoitzean dagokion bikote partaidea soilik sartuko da, Deialdiaren Oinarrietan ontziko Kontrolen aukera kontenplatzen denean izan ezik.

5. Ontzian barruko arrantza postuen banaketa kirolariak erabakiko dute.

6. Derrigorrezkoa da salbamendu-jaka janzteak, eztanda-motordun ontzia lekualdatzen ari denean. Igerian egiten dakiten kirolariak jaka kendu ahal izango dute arrantza jardueran zehar, ura geldirik dagoenean.

7. Ontziaren erabilera, eztanda-motorrarekin propulsatzen denean, tripulatu behar duen ontziarekin bat datorren baimena ala titulua erabilgarri duenak egin ahal izango du.

8. Ontzi oro beste ontzi baten sorospen deia artatzera behartuta dago, txapelketakoa denean ala ez denean.

9. Laguntza eskatzen duen ontzia ohartarazi denean, bi ontzien artean 25 metro inguruko distantzia bat mantendu beharko da, eragozpenik gabe komunikatzea ahalbidetuko diena, egoeraren larritasuna ebaluatu ahal izan arte.

10. Egoera ebaluatzean eta bi patroiak ados jartzen direnean, ondorengo moduan jokatu da:

a) Egoeraren larritasuna handia ez denean, kirolari ala tripulatzailer lagunduen segurtasun fisikoa arriskuan ez dagoelako, laguntzera etortzen den ontziko tripulatzailerak organizazioko ontzi batekin komunikatu beharko dira, gertaeraren berri emateko. Une honetan, dagokion laguntza ematean, alerta adierazi zuen ontziko tripulatzailerak ez dute auziaren inguruko ardura gehiago izango eta txapelketarekin jarraitu ahal izango dute.

b) Kasua oso larria izaten denean, laguntzera etortzen den ontziko partaideak arriskuan dagoen ontzira hurbildu beharko dira, planteatu egoeran behar bezala jardutera, arazoa erabat amaitu arte.

Epailak egoeraren ageriko larritasuna egiaztatzen duenean, bere jardura justifikatu ondoren, sorospena eman duen ontziak txapelketan aurrera egingo du, inolako penalizaziorik gabe.

11. Kasu bietan, Epaimahaiaren arabera, sorospena praktikatu duen ontziko partaideen aldeko sistema orekatzaileraren bat erabili ahal izango da.

Urtetzeko Black-Bass modalitatearen arauak.

12. Arrantza jardura beti urtetzetik egin beharko da, ez da onartzen urperatzea, inolako aitzakia dela medio.

13. Lekualdatzeak beti oinez egingo dira, horrela, ez da onartzen lurreko ontziak edota bestelako lokomozio bitartekorik erabiltzea, Batzorde Antolatzaileak hala ezartzen duenean izan ezik, partaideak irteera-gunera lekualdatzeko helburuarekin.

14. Lekualdatzetan zein arrantza jarduran, kirolariek ezin dute inolako kontakturik ala elkarriketarik izan gainerako kirolariek ala txapelketatik kanpoko pertsonekin; ez da onartzen arrantzaren jarduerarako amuak ala materialak uztea.

15. Beste partaideen jarduran edonolako eragozpena saihesteko, aurretiaz beste arrantzale batzuek bete dituzten guneak errespetatu beharko dira, horretarako gutxienez 40 metroko distantzia gordeta; horiek ez dira urtetzetik kontatuko, bi kirolariak elkartzen dituen irudimenezko lerro zuzena kontsideratuz baizik. Horrela, puntu jakin batera lehenengo iristen denak, 40 metroko erradioko gunea bere erabilerakoa dela adierazi ahal du.

16. Kirolari batek arrantza jardura eteten duenean, bere harrapaketak Kontrolean aurkezteko, bere arrantza gunea erreserbatu ahal izango du, dagokion bezala seinalizatuz, edozein objektu pertsonalekin (kanabera, ekipoa, etab.). Kasu horretan eta hura falta denean, gainerako kirolariek dagozkien 40 metroak errespetatu beharko dituzte. Partaide batek gune bat seinalizatuta eta erreserbatuta mantentzen duen bitartean, ez zaio onartzen agertokiaren beste inongo puntuan arrantza egitea.

17. Ez da onartzen harrapaketak uretatik kanpo lekualdatzea (lehorrean) 5 metro baino gehiago, horiek urez beteriko ontzi batean sartuko dituzte, Kontrolera eramateko. Zentzu horretan, kirolari bakoitzak bitarteko eraginkorrenak erabili beharko ditu, horiek bizirik kontserbatzea bermatzeko. Piezak eusteko, "stringer" aparailua, burtzia, ontzi egokiak, etab. erabili ahal dira, baina ez dira onartzen beste hainbat sistema agresibo, esaterako soka-amarradura.

18. Partaideek ez dute ontzirik partekatuko harrapaketak bizirik mantentzeko eta horiek lekualdatzean ezin izango da lehiakideen arteko inolako laguntzarik eman.

19. Kirolariak arrantza agertokian barreiatzeko helburuarekin, Batzorde Antolatzaileak urtegiaren ezaugarrien eta/edo partaide kopuruaren arabera hautatzen duen sistema erabili ahal izango du.

20. Partaideen irteerak antolatzeko erabili beharreko sistemen artean kontenplatuko dira, besteren artean, ondorengo aukerak:

- a) Puntu beretik eginiko irteera, kirolari guztiek erabateko askatasunez arrantza egin dezaten proba ala txanda lehiatzeko erabilgarri jarritako hedadura osoaren barruan.
- b) Puntu beretik irtetea, baina ezarri agertokia bi gunetan bereizita, lehenengoa puntu horren eta agertokiaren ezkerreko muturraren arteko guneari dagokio eta bigarrena irteera-gunetik bere eskuinetako muturreraino hedatzen da. Kasu horretan, bi talde eratuko dira zozketaren bidez, Talde-Klub ala Selektzio bakoitzeko kide ordezkariak talde berean eta aldi berean ez egokitzea zainduz; taldeak eratu direnean, horien artean zozkatuko dira bi arrantza guneak. Taldeek gunea aldizkatuko dute txapelketa horretako Txanda bakoitzean eta arrantza jardueraren hasiera zozketaren bidez egokitu gunean gauzatuko da.
- c) Organizazioak kirolariak ontzietan ala lurreko lokomozio garraiotan lekualdatuko ditu uhartetara ala agertokiko puntu zehatzetara, toki horietatik irteera emateko.
- d) Batzorde Antolatzaileak erabakitzen duen beste edozein.

6. Artikulua KONTROLAK.

Ontziko Black-Bass modalitatearen arauak.

1. Black-Bass Kirol Arrantzaren txapelketa orotan, Organizazioak txapelketaren garapen zuzena zaintzeko beharrezko kontrol eta laguntza ontziak jarriko ditu erabilgarri.
2. Txapelketa Ofizialen Finalean (Estatuko Txapelketak) erabilgarri jarriko da, ahal bada, bost ontzi partaideko kontrol ontzi bat, gutxienez. Agertokiaren ezaugarrien arabera, agertokiaren ezaugarriak kontuan hartuta, kontrol ontzien kopurua urriagoa izan ahal da.
3. Aukeran, Kontrolak ezarri ahal izango dira ontzi bakoitzaren barruan edota ontziko Kontrolen eta Kontrol Ontzien jardura mistoa arbitratu ahal izango da. Aukera hori edota hautatzea ebazten dena Txapelketako Ordezkarik/Kapitainen aurretiko Bileran jakinaraziko da.

Urtetzeko Black-Bass modalitatearen arauak.

4. Kontrol Nagusia partaideen abiapuntuan eta helmugan finkatuko da; Epaimahaiak bere egoitza bertan ezarriko du.
5. Laguntza Kontrolak gutxienez bi pertsonekin osatuko dira. Kontrol bateko kideak ezin dira Talde-Klub ala Selektzio berekoak izan. Estatuko Txapelketetan Laguntza Kontrol bakoitzeko kidetako bat ezinbestean Selektzio Ordezkarik/Talde-Klubeko Kapitaina izango da.
6. Laguntza Kontrolak guztiak arabera esleitu dira, horietako bakoitza zozketaren bidez esleitu. Bere funtzioaren jardueran, beti biak elkarrekin joango dira, betiere kirolariengana ez hurbiltzea edota horientzat eragozpenak sortzea eta horiekin ez hitz egitea errespetatuz, horiek pisaketa egin behar dutenean edota beste edozein arrazoi dela medio hori egiteko beharra sortzen denean izan ezik.
7. Laguntza Kontrol bakoitzeko jardura guztiak aurretiaz ezarriko ditu Batzorde Antolatzaileak; partaide guztiek ezagutuko dituzte Txandari ekin aurretik. Kokapenaren berri emateko, arrantza agertokiaren mapa ala krokisa emango zaie, bertan finkatu diren gune ezberdinak finkatzen dituenak.
8. Organizazioak egokitzen jotzen badu eta Arro Holografikoak horretarako bidea ematen badu, ontzitik ikuskatze zereginak betetzeko Laguntza Kontrolak erabiltzea komenigarria izango da. Kasu horretan, kirolarientzat inolako trabarik suposatuko ez duen distantzia jarriko dute urertzetik, nabigatzeko orduan, betiere abiadura ertaina izanik. Kirolarien deiak artatzeko urertzera hurbiltzean, beti motor elektrikoa erabiliko da.
9. Partaideen Txanda Kontrol Nagusian ala edozein Laguntza Kontrolaren amaituko da. Hala ere, Laguntza Kontrol batean egingo balute, beti Kontrol Nagusira bertaratu beharko lirateke Oinarrietan xedatzen den ordua baino lehen. Esleitu zaion kontrolaren ordu mugaren ondoren iristen den ala Kontrol Nagusira bertaratzeko ez den partaide oro, Txanda horretatik kanporatua izango da.

7. Artikulua HARRAPAKETAK.

1. Ezartzen den neurri minimora iristen diren "Micropterus Salmoides" (Black-Bass) espezieko harrapaketa bizidunak onartu egingo dira. Edozein kasutan, dagokion Autonomia Erkidegoko arrantza arautegian onartzen den lege neurri minimoa errespetatuko da, eta Arau Generikoen 23. Artikuluaren xedapena derrigorrezkoa izango da. Neurketa beti arrainaren ahoa itxita egingo da, beheko ezpainaren hanturatik hegala-isatsaren mutur urruneneraino.
2. Harrapaketak bizirik pisatu beharko dira. Horretarako ontzi egokitan kontserbatu beharko dira, pisaketaren unea iritsi arte. Onartzen dira. Neurrikoak direnean, ahotik kanpo ustekabe harrapatu piezak, baina ez da onartzen jakinaren gainean arrainari eginiko arpoiaren jaurtiketa.
3. Txapelketa bakoitzerako harrapaketen gehieneko kopurua ezarriko da, pisaketara aurkezteko, zein Deialdiaren Oinarrietan jakinaraziko den.
4. Ez da pisatuko zaurituta, bereziki hondatuta ala hilik dagoen arrainik.

Ontziko Black-Bass modalitatearen arau gehigarriak.

5. Gehieneko kupoak harrapaketen kontserbazioa eta/edo lekualdatzea eragiten du. Gehieneko kupoa lortzen denean, txapelketa garatzen jarraitu ahal izango da, baina piezak hautatuz, harrapaketa berriak lortuz joaten diren neurrian. Ez da onartzen harrapaketa nulurik lekualdatzea, ezta ezarri kupoa gainditzen duen kopurua metatzea ere.

6. Harrapaketak ontzietan sartuta porturatu beharko dira. Beste edonolako prozeduraren erabilerak txanda horretatik kanporatzea eragingo du.

7. Txapelketako Organizazioak harrapaketak pisaketarako bizirik mantentzea eta halaber pisaketa horren ondoren dagokien tokira itzuli ahal izateko beharrezko baliabideak eta elementuak erabilgarri egotea zainduko du.

8. Harrapaketen garraioa eta kontserbazioa errazteko helburuarekin, ontziek oxigenazio eta aireztapen egokiaz hornituriko sistema termikoa eramango dute.

Urtzeko Black-Bass modalitatearen arau gehigarriak.

9. Partaideek, Txandaren lehen ordu erdia iragaitean, euren harrapaketak aurkeztu ahal izango dituzte ezarri Kontroletako edozeinetan, Epaimahaia izanik kupoa eratzeke arduraduna, txandaren amaiera iristean, Kontrolen aurrean aurkeztu guztien arteko pisu handieneko harrapaketekin, pliken arabera. Ez da onartzen, inolako kasutan, kirolariak aurkeztea, aldi bakarrean, Oinarrietan xedatu kupoarekiko piezen kopuru handiagoa. Era berean, kupoa lortzean, jadanik entregatu diren piezen pisua gainditzeko balio ez dioten piezak ez entregatzeko ahalegina egingo du. Hilik, Hondatuta edota ezarri neurririk gabe aurkezten den pieza oro, kupoa eratzeraz pasatuko da eta dagokion penalizazioa aplikatuko litzaioke.

10. Laguntza Kontroletan aurkeztu piezaren bat zalantzakoa izatean edota kirolariaren desadostasuna eragiten duenean, gorde eta kontserbatu egingo da Epailea izan dadin erabakia hartzen duena, bere ustean egokiena izango litzatekeena.

11. Kontrolek, piezak neurtzean eta pisatzean eta dagozkion adierazpenak idaztean, berehala askatuko dituzte harrapaketak. Aurreko puntuan adierazi bezala, zalantzakoa diren eta Epailearen esku hartze zuzena eskatzen duten haiek soilik gordeko dira. Kasu horietan, organizazioak zainduko du kontrolak beharrezko tresnekin eta elementuekin hornitzea, harrapaketa horiek bizirik mantendu ahal izateko.

12. Pisaketak beti Kontroleko bi kideren eta kirolariaren aurrean egingo dira; horiek guztiek eginiko adierazpenarekiko adostasuna sinatuko dute, bai plikan eta bai kontroleko dokumentazioan. Eskakizun horren konplimendu ezak behar bezala erregistratu gabeko harrapaketa baliogabetuko du.

8. Artikulua KIROL MATERIALA.

1. Kanabera, txirrika, lerro, amu eta txapelketa tresnen formak, materialak, dimentsioak, etab. libreak izango dira.

2. Amu artifizialak soilik onartuko dira. Ez da onartzen amu naturalen erabilera, bizirik ala hilik, Pork Rig ala Pork Bait amuak izan ezik.

3. Amuak bustitzeko orduan, lurrin, olio eta esentzia artifizialen erabilera soilik onartzen da.

4. Ez da onartzen arrainak erakartzeko helburuarekin uretara jaurtitzen diren edonolako irin, pasta, erakargarri, lurrin, esentzia, koloragarri, etab. erabiltzea.

5. Arrantza jardueran, kirolari bakoitzak kanabera bat eta honen txirrika soilik erabili ahal izango du. Hala ere, partaideek muntatu erreserbekin hornituriko beste hainbat kanabera izan ahal dituzte erabilgarri.

6. Partaideak "salabardoa" ala aterasarea erabiltzea onartzen da.

7. Kirolariek kanaberen eta txapelketa materialaren inguruko zamaketa lanetan laguntzarekin kontaktuko dute. Laguntza jarduera horretatik kanpo daude, kirolariek soilik erabili ahal izango dituzten harrapaketak dakartzaten ontziak.

Ontziko Black-Bass modalitatearen arau gehigarriak.

8. Onartzen da, era berean, "sónar" aparailuaren erabilera, segurtasun arrazoiak direla medio, baita arrantzaren kokapenerako ere; ez da onartzen urpeko ikusmena ahalbidetzen duen beste edonolako sistemarik.

9. Artikulua BLACK-BASS KLUBEN LIGA (KATEGORIA ABSOLUTUA).

Kluben liga, Arautegi honetako Arau Generikoen **15, 39 eta 40 Artikuluetan** eta Kapitulua honetako **2 B) Artikuluan** aurreikusia kontuan hartuta ezartzen da. Talde-Klub bakoitzerako partaideen kopurua lau kirolarirekin osatzen da. (Ontzien kasuan, bi ontzi).

Kluben Ligako Estatuko Txapelketan gutxienez bi txanda daude, bakoitzak arautegiaren arabera iraupena izango du, Azpi-espezialitatearen arabera 8. Artikuluan aurreikusia jarraituz.

10. Artikulua SAILKAPENAK.

1. Puntuazioa. Harrapaketa baliodunen zenbaketa horien pisua gramotan emanaz egingo da, dagozkion balizko penalizazioak aplikatu ondoren.

2. Partaide/bikote bakoitza banakako izaerarekin tratatuko da.

I). TXANDAKO BANAKAKO/BIKOTE SAILKAPENA.

1. Txapelketako txandak segidako egunetan lehiatzen direnean, urtegi ala ibai berean, partaideen sailkapena bere harrapaketen pisuaren arabera ezarriko da, harrapaketa horien pisua gramotan kontsideratuz eta hala badagokio, penalizazioen puntuak kenduz. Txandaren puntuazioa, txanda horretan lorturiko puntuen/gramoen arabera izango da, hurrenkera handienetik txikienera izanik, sailkapeneko **“postuak”** txikienetik handienara bihurtuz.

2. Berdinketa hausteak. Postu berdina lortzen denean, kirolari/bikote eragin guztiak lortu dituzten postuen batez bestekoan geratuko dira eta hurrengo kirolariak/bikoteak berdinketa kopuruaren pareko postu zenbakia lortuko luke.

3.- Txandako zeroak.- Harrapaketa baliodunak lortu ez duten kirolari guztien Txandako Banakako Sailkapeneko postua, “zero” postuen batez bestekoaren baliokidea izango da.

II). BANAKAKO/BIKOTEEN AMAIERA SAILKAPENA.

1. Banakako/Bikoteen Amaiera Sailkapena kirolari/bikote bakoitzak txapelketako txanda guztietan lorturiko postu guztiak batuz lortuko da, postuen batura txikiena dakarren partaidea ala bikotea txapelduna izanik.

2. Berdinketa hausteak: Finaleko berdinketak, ondorengo irizpideen hurrenkera sekuentziala kontuan hartuta ebatziko dira:

- a) Pisu handieneko harrapaketa.
- b) Harrapaketa baliodunen kopuru urriena.
- c) Harrapaketen pisu handiena.
- d) Berdinketa mantentzen denean, postua zozketaren bidez ebatziko da.

III). SELEKZIOEN ARABERAKO SAILKAPENA

1. Lurralde Selektzioa da Lurralde federazio berean inskribatu kirolari partaide guztien multzoa.

2. Selektzioen arabera Sailkapenaren xedeetarako soilik, Autonomia Federazioko Selektzioa Banakako Amaiera Sailkapenean postu onenak lortu dituzten Federazio horretako **hiru** kirolari/bikoterekin eratzeko da.

3. Selektzioen Amaiera Sailkapena, Selektzio bakoitzerako Banakako Amaiera Sailkapenean Sekzio bakoitzeko hiru kide/bikoteren postuak (tokiak) batuz eta batura horien hurrenkera txikienetik handienara antolatuz eratuko da.

4. Berdinketa hausteak: Selektzioen arteko berdinketak Banakako Amaiera Sailkapeneko irizpide sekuentzial berdinaren arabera ebatziko dira.

IV).- KLUBEN LIGAKO SAILKAPENAK

1. Talde-Kluba da Klub bateko partaide ordezkarien taldea edota bere kasuan, Klubeko taldetako batekoa.

2. Kluben Ligako sailkapena, aurreko II) atalean ezarriaren arabera partaideen Banakako Amaiera Sailkapenetik abiatzen da.

3. Jarraian, Talde-Klub bereko kide bakoitzak Banakako Amaiera Sailkapen horretan lorturiko postuen baturari ekingo zaio, batura horien hurrenkera txikienetik handienara izanik; Txapelduna izango da batura horretan kopuru txikiena lortzen duen Talde-Kluba. Sailkapen hori lortzeko, Talde-kluba bere kide guztiekin osatu beharko da.

4. Berdinketa hausteak. Finalean postuen batura hauen arteko berdinketa jazotzen denean, hura Banakako Amaiera Sailkapenean lorturiko irizpide sekuentzial berdinaren bidez ebatziko da.

* * * *

III. IZENBURUA – ITSASOKO KIROL ARRANTZA TXAPELKETEN ARAU BEREZIAK

IV A) KAPITULUA - ITSASO-ITSASERTZEKO JAURTIKETAREN ITSASO ARRANTZARENA

IV B) KAPITULUA - ITSASERTZEKO BOTALDIAREN ITSASO ARRANTZARENA

IV C) KAPITULUA - HARKAITZETAKO ALA ROCK-FISHING ITSASO ARRANTZARENA

IV D) KAPITULUA - ITSASERTZEKO SPINNING ITSASO ARRANTZARENA

V A) KAPITULUA - ONTZI AINGURATUAREN ITSASO ARRANTZARENA

I. ERANSKINA - ONTZIKO PLAZA BANAKETA, E.F.-KO PARTAIDE KOPURUAREN ARABERA.

V B) KAPITULUA - SPINNING ONTZI ITSASO ARRANTZARENA

V C) KAPITULUA - ONTZI JIGGING ITSASO ARRANTZARENA

V D) KAPITULUA - ITSASERTZEKO CURRICAN ITSASO ARRANTZARENA

VI. KAPITULUA - ALTUERAKO ITSASO ARRANTZARENA (CURRICAN ETA BRUMEO)

* * * * *

IV A) KAPITULO – ITSASO-ITSASERTZEKO JAURTIKETAREN ITSASO ARRANTZARENA

1. Artikulua DEFINIZIOA. Lur gazikara masetan (gazia) praktikatzen den Kirol Arrantza, egunez ala gauzez, bera praktikarako urertzaren konfigurazioarekin (itsaslabarrak, hondartzak, kaiak, etab.) eta partaide ororentzat kirol arrantzaren baldintza onenak ahalbidetuko dituzten arrantza espezieekin eginikoa, Itsasertzeko Arrantza izendatzen da.

2. Artikulua TXAPELKETEN BANAKETA.

Partaideen adina eta maila kontuan hartuta eta dagokion partaidetza ala inskripzioa alde batera utzi gabe, Itsasertzetik eginiko Arrantza Txapelketak horrela banatzen dira:

A) Kategoriak: Haurrak (U-16), Jubenilak (U-21), Damak, Maskulinoa eta Absolutua, Estatu Arautegiko irizpidetan xedatu adinak kontuan hartuta, indarrean dagoen bere Txapelketa Arautegiari jarraiki.

B) Partaidetza ala Inskripzioa:

Banakakoa
Lurralde Selekzioen arabera
Klubaren arabera (Taldeak-Klubak)
Open (partaidetza askea)

3. Artikulua AGERTOKIA.

1. Lehiaketaren agertokia Sektoretan eta Postutan banatuko da, partaidetzaren arabera eta arrantza postuetarako ondorengo dimentsio minimoekin egokituko da: 20m-ko luzera x 10'ko hondoa hondartzetan eta 10 x 10 m. ekaletan. **Luzera mugatuko hondartzen kasuan kanabera bakarrarekin arrantzan egiteko murriztuko da.**

2. Sektoreen eta postuen esleipena, zozketa bidez egingo da txanda bakoitzean.

4. Artikulua GARAPEN ARAUAK.

1. Estatu Txapelketetan, hala nola A.C. Kontzentraziotan, gutxienez bi jaurtiketa proba ospatuko dira.

2. Proben iraupena HIRU eta BOST ordu bitartekoa izango da.

3. "Probaren amaiera" seinalearen aurrean, derrigorrezkoa da arrantza jardueraren berehalako geldiketa egitea, kanaberek erretiratuz eta arrantza jarduera amaituz, aparailua normaltasunez kobratuz eta hondarrik gabeko harrapaketa entregatzeko Kontrolak hasiko diren ahaztuz.

5. Artikulua PORTAERA ARAUAK.

1. Jaurtiketa txapelketetan, uretan sartzea debekatzen da jaurtiketa egiteko, salbuespenetan izan ezik (belauneraino), agertokiaren ezaugarriak eta Ordezkarien/Kapitainen/Kirolarien Bilerako hitzarmena kontuan hartuta.

2. Jaurtiketa egin ondorengo partaidearen eta kanaberen euskarrien egoerari dagokionez, hura urertzaren gunen lehorrean kokatu beharko da, bertatik ziztatu piezekin ziztaketa eta borroka egiteko.

3. Jaurtiketa arrantza postuaren barruko edozein posiziotik egin ahal izango da, betiere itsasoko noranzkoan eta bere postuko irudimenezko hedadurarekin mugatu itsasoko bere gunearen barruan. Jaurtiketak askeak dira baina debekatuta daude **zeiharreko** jarduerak. Jaurtiketa alborantz edota pendulu eran egitean lasta maiz hautsi ala askatzen denean, beste partaideentzat arriskua suposatuz ala horiekin gurutzatuz, Epaileak eragilearen deskalifikazioa proposatu ahal izango du.

Aurrez aurrekoa ez den edonolako jaurtiketa motan zubia ala "leader" gutxienez 0,60 mm-ko diametrokoa izango da monofilamentua denean edota 36 kg-ko erresistentzia izango du, txirikordaren kasuan, txirikari bi aldiz biltzea ahalbidetzeko luzerarekin, jaurtiketaren prestaketa unean.

6. Artikulua KONTROLAK.

Organizazioan erabilgarri jarriko da kontrolen kopuru bat, gutxienez sektore bakoitzeko BAT.

7. Artikuluak HARRAPAKETAK.

Arau Generikoen 23. Artikuluan xedatua jarraituko da, ondorengo xehetasunak kontuan hartuta:

1. Onartzen dira:

- a) Eskumeneko Lurralde Organismoan ezarri legezko neurri minimoa betetzen dutenak, Txapelketarako arrantza espezie bezala, epea eta forma kontuan hartuta. Horretarako, partaideek piezak neurtzeko tresnak eraman beharko dituzte.
- b) Amu ezberdinekin eta partaide ezberdinen aparailuekin aterako liratekeenak, partaidearen harrapaketa onargarria bezala kontsideratuz, zeinen amua piezaren ahoan aurkituko den.
- c) "Proba amaieran" ziztatu piezak, jasotzeko mugimendu normalarekin ateratzen direnak, horiek manipulatzeko denbora estrarik gabe.

2. Ez dira onartzen:

- a) Legez ezarri neurri minimoa betetzen ez dutenak.
- b) Arrain osatugabeak edota nabarmen manipulatuak, eta pisaketara derrigorrez arantzarik gabe aurkeztuko diren beste hainbat arrain arriskutsu.
- c) Pisaketan ala Kontroletan hareaz, algaz edota bestelako pisudun gehigarritz zikinduta aurkezten diren piezak.
- d) Harrapaketen lerroa hausten denean, eskuz berreskuratzen direnak, lerrotik tiraka.
- e) Pisaketara hezur pozoitsurik gabe ekartzen ez diren arrain arriskutsuak. Penalizatu egingo dira

3. Nuluak kontsideratzen dira:

Ahoan ala honetatik kanpo partaide ezberdinen amu bat baino gehiago dakartzaten piezak.

4. Penalizazioak: Pisaketara aurkeztu pieza nulu bakoitzak ez du puntuaziorik jasoko, baina ekarri duen kirolaria bere pisuarekin penalizatuko du.

8. Artikulua KIROL MATERIALA.

1. Kanaberak. Hondartzatik eginiko jaurtiketa Arrantzan bi kanabera onartzen dira, Deialdiaren Oinarrietan bakarria agintzen denean izan ezik.

Jaurtiketan onartzen diren kanaberen luzera gehienez **bost** metrokoa izango da, muntatzeko gutxienez LAU eraztun erabiliaz.

Barruan eraztunak dakartzaten kanaberen erabilera onartzen da.

Erreserba kanaberak, kopuru mugarik gabe, Oinarrietan espresuki adierazi salbuespenagatik izan ezik, lerroko esmerilloi-mosketoiraino muntatu ahal izango dira. Betiere urertzetik urrun kokatu behar dira, itsasoaren aurkako noranzkoan.

2. Txirrikak. Hautazkoak, eskuzkoa ala automatikoa, bobina finkoarekin ala birakariarekin.

3. Lerroak. Hautazkoak, diametroa eta bere konposizioa, metalikoak izan ezik. Ez da onartzen lerroan flotagailuak erabiltzea.

4. Lerro azpiak. Lerro Azpi bakoitzeko ur gaineo perlak gehienez **hiru** izango dira eta albobideen (gehienez hiru) arteko bere banaketa librea da. Albobideen luzera hautazkoa da.

Onartzen da:

- a) Amua jartzea behar diren lerro azpi guztietan.
- b) Erabiltzea, betiere amutik kanpo, erakartzeko materialak, esaterako koilara txiki distiratsuak, ur gaineo ala bestelako perlak eta luma koloreztatuak, pieza fluoreszenteak, etab.
- c) Amu naturala amuan finkatzeko hari malguaren erabilera.

Ez da onartzen: Elementu lurrintsuak erabiltzea ala erabilgarri izatea. Zalantzaren kasuan, laginak eskatu ahal izango dira aztertuak izateko. Ez da onartzen hormonak eta/edo feromonak erabiltzea.

5. Lastak (pisuak). Itsaso-Itsasertzeko txapelketetan, lastak beti hondoa ukitu beharko du. Bere pisua hautazkoa izango da haizearen eta korrontearen arabera, eta aldeko baldintzak direla medio, 50 gr-ko gutxienerako pisuarekin, baina ez da onartzen korrontek ala haizeak eraginiko deribak alboko partaideak eragozteak, euren arrantza postua inbadituz; hori dela-eta, muturreko atmosfera baldintzetan lasta astunagoak al grapazkoak erabiltzea eskatzen da. Lasten erabileraren inguruko balizko salbuespenak ala mugak, bere kasuan, Deialdiaren Oinarrietan islatuko dira.

6. Amuak. Arau Generikoen 20. Artikuluan aurreikusia jarraituko da. Amuen erabileraren inguruko balizko salbuespenak ala mugak, bere kasuan, Deialdiaren Oinarrietan islatuko dira baina ez da onartzen amu bikoitzak ala hirukoitzak erabiltzea.

7. Beita. Euskadiko Erkidegoko itsaso arrantzako arloan eskumeneko Organismoak onartzen dituen amu natural guztiak ala jatorria organikoa dutenak erabili ahal izango dira. Ez da onartzen Itsaso-Itsasertzeko arrantzan eginiko uretako amu jartzea. Organizazioak ematen duen amuaren orde bestea bat erabiltzea deskalifikatuta geratzeko arrazoia izango da. Administrazio arloko zirkunstantziak direla-eta, hainbat amu ala amuen neurria mugatuko balira, organizazioak, Espezialitateko Batzordearen aurretiko baimena dela medio, partaideen jakinaren gainean jarriko luke, inskripzio data baino lehenago.

8. Laguntza Elementuak. Partaideak, gaueko txapelketetan, argizko iturriak erabili ahal izango ditu, horiek uretarantz bideratu gabe eta alboko partaideak eragotzi gabe. Halaber aterasarea, salabardoa eta arpoi txikiak gabeko kizkeroa erabiltzea (esklusiboki partaidearen aldetik) onartzen da.

9. Kanabera euskarriak ala tripodea. Urertzaren gune lehorrean finkatu behar dira, ahal bada esleitu postuaren erdigune aldean.

9. Artikulua ITSASO – ITSASERTZEKO KLUBEN LIGA (KATEGORIA ABSOLUTUA).

Klubena Liga Arautegi honetako Arau Generikoen. 15, 39 eta 40 Artikuluetan eta Kapitulua honetako **2. B) Artikuluan** aurreikusia jarraituz ezartzen da. Talde-Klub bakoitza bost kirolarirekin eta Erreserba ala Kapitain batekin eratuko da.

Klubena Ligako Estatuko Txapelketa gutxienez bi Txandaz osatuko da, hiru eta bost ordu bitartekoak eta Kirol Arloko 8. Artikuluan aurreikusiarekin egokituko da.

10. Artikulua SAILKAPENAK.

1.- Itsaso-Itsasertzeko Txapelketa Ofizialetako emaitzak sailkatzeko puntuazioak kontroletik eta pisaketatik lorturiko pisu guztiaren GRAMO bakoitzeko PUNTU bat esleitura egingo dira.

2.- Partaidetza ala inskripzioa kontuan hartuta, sailkapenak izan ahal dira: Banakakoa, Lurralde Selekzioen arabera eta Itsaso-Itsasertzeko Klubena Ligakoa.

3.- Banakakoan irizpide sekuentzialak jarraituko dira, Sektoreak, Txandak eta Finala kontuan hartuta; Selekzioen eta Klubena Ligaren arabera sailkapenetan, irizpide sekuentzialak Txandak eta Finala balioztatuko dira.

4.- Kasu guztietan, Banakako Amaiera Sailkapenean partaide bakoitzaren puntuazioa (gramoak) eta pieza handiena adieraziko dira.

I.-) BANAKAKO SAILKAPENA

A) Sektoreko Banakako Sailkapena

1.- Partaide bakoitzak bere Sektorean lorturiko banakako puntuazioa (gramoak) ebaluatuko da, hurrenkera handienetik txikienera izanik, Sektoreko **“postuen”** hurrenkera txikienetik handienara berrantolatuko da.

2.- Sektoreko berdinketa hausteak.- Sektorean puntuen arabera (gramoak) berdinketa jazotzen denean, postua Pieza handienaren arabera ebatzi izaten da eta berdinketa errepikatzen denean, puntu – gramo eta pieza handienaren kopuru berdina lortu duten kirolari guztiek Sektoreko postu berdina lortuko dute; berdinketan sartzen ez den hurrengo partaideri, puntu-gramoen zein Pieza Handienaren zenbaketan berdinketa lortu duten kirolari kopuruaren arabera dagokion postu zenbakia esleitu zaio.

Adibidea:

Sektore berean BI partaide 2. postu berean suertatzen dira, gramotan eta Pieza Handienean lorturiko berdinketa dela-eta. Bien puntuazioa = 2 puntu-postu eta hurrengo partaideri 4. postua dagokio.

3.- Sektoreko zeroak.- Bere Sektorean harrapaketa baliodun lortu ez duen kirolariak ez du punturik lortuko. “Zero” horien tratamendua Txandako Banakako Sailkapenean ebazten da.

4.- Sektoreko ausentziak: Txanda batean partaide bat faltatzen denean edota Sektore batean norbait deskalifikatuko balitz, gainerako Sektoretako azken eta azkenurreko kirolari guztiak Sektore postu berarekin sailkatuko dira, postuaren zenbakia edozein dela ere.

B). Txandako Banakako Sailkapena

1.- Sektoreen arabera banakako sailkapena egitean, Txandako Sektore kopuruarekiko lehenengo, bigarren, hirugarren, etab. postuen kopuru baliokidea lortuko da. Jarraian Sektoreko lehen postu guztiak puntuazio handienaren arabera (gramoak) sailkatuko dira; jarraian, **harrapaketa** baliodunak eskuratu dituzten bigarren, hirugarren, etab. guztiak, hurrenkera handienetik txikienera izanik eta amaitzeko, harrapaketa baliodunak gabeko ala “Zero” harrapaketak kirolariak sailkatuko dira.

Erlazio hau, “**postuen**” hurrenkera txikienetik handienara izanik berrantolatua, berdinketa hausteak eta “zeroak” ebazten direnean (aurrerago tratatuko direnak), Txandako Banakako Sailkapena eratuko luke (Txandako **postuetan**).

2.- Txandako berdinketa hausteak.- Txanda batean, Sektore ezberdinetako bi partaide ala gehiago Sektoreko **postuan** eta puntu-gramoetan berdinketa egoeran suertatuko balira, lehenago sailkatuko da pieza handiena eskuratzen duena; berdinketa errepikatzen denean, sailkapen horretako postu berdina lortuko dute. Txandako sailkapeneko hurrengo kirolariak berdinketa lortu dutenen postu zenbaki berdina lortzen du, berdindu kirolarien kopurua batzen zaionean.

3.- Txandako Zeroak.- Txandako Sektoretako Zeroetatik datoz. Sektoretako **harrapaketa baliodunak** lortu dituzten kirolarien lehenengo, bigarren, hirugarren, etab. postu guztiak sailkatu direnean, jarraian Sektorean zero lortu zuten partaideak erlazioztatzen dira eta horiek Txandan, “zero” sailkapen postuen batura zero emaitzako partaideen kopuruagatik zatitzean lortzen den postua zango dute.

Adibidea: Demagun 60 partaidetako Txanda bat A, B eta C hiru Sektoregatik zatitzen dugula, Sektore bakoitzeko 20 kirolarirekin eta B Sektorean Zerorik ez dagoela, A Sektoreak lau Zero eta C Sektoreak bi Zero dituela (54 kirolari harrapaketa baliodunekin eta 6 zeroekin).

Txanda honetan lehenengo harrapaketak lortu dituzten 54 kirolariak sailkatu beharko lirateke, aurreko irizpideen arabera eta jarraian etorriko lirateke “zero” postuak; balorazioa horrela egingo da: $P = (55 + 56 + 57 + 58 + 59 + 60) : 6 = 57,5$ edo bestela, $P = (55 + 60) : 2 = 57,5$. Harrapaketa baliodunak gabeko 6 arrantzaleen Txandako Banakako Sailkapeneko postua (berdin-berdina) **57, 5** izango litzateke.

C). Banakako Amaiera Sailkapena

1.- Txandako Banakako Sailkapenak lortzen direnean, partaide bakoitzak Txanda bakoitzean lorturiko postuen batura egingo da, horien hurrenkera txikienetik handienara izanik.

2.- Berdinketa hausteak, bere kasuan, Txandetako postuen berdinketa haustean. Ondorengo irizpide hurrenkera jarraituko da:

- a) Txandetan postu onenak lortu dituen partaideak.
- b) Txanda guztien artean puntu-gramo gehien lortzen dituen partaideak.
- c) Pieza handiena aurkeztzen duen partaideak.

II.- SELEKZIOEN ARABERAKO SAILKAPENA

1. Lurralde Selektzioa da Lurralde federazio berean inskribatu kirolari partaide guztien multzoa.

2. Selektzioen arabera Sailkapenaren xedeetarako soilik, Autonomia Federazioko Selektzioa Banakako Amaiera Sailkapenean postu onenak lortu dituzten Federazio horretako **hiru** kirolari/bikotek eratzen dute.

3. Selektzioen Amaiera Sailkapena Selektzio bakoitzerako Banakako Amaiera Sailkapenean Sekzio bakoitzeko hiru kide/bikote bakoitzak lorturiko postuak (tokiak) batuz eta batura horien hurrenkera txikienetik handienara antolatuz eratuko da.

4. Berdinketa hausteak: Batura horien artean berdinketa jazoko balitz, Selektzio bateko kide baten banakako postu onenaren arabera ebartziko da.

III.- KLUBEN LIGAKO SAILKAPENA

1.- Txapelketak azpi-espezialitate honetako arau berdinekin eta sailkapen sistema berdinarekin zuzenduko dira, baina Txandaren arabera Talde-Klubaren sailkapenean, Talde-Klub bakoitzeko kideen Txandako Banakako lau postu onenak soilik batuko dira.

2.- Klubaren Liga Sailkapena Txandaren arabera egiten da eta I.-) B) atalean xedatuaren arabera, partaideen Txandako Banakako Sailkapenetik abiatzen da.

3.- Segidan, Txandaren arabera Banakako Sailkapen horietan Talde – Klub bereko lau kide hautatuek (txanda bakoitzean postu onenak lortu dituztenek) lorturiko postuen baturari ekingo zaio, taldeen arabera batura guztiak lortzeko, batura horien hurrenkera txikienetik handienara izanik.

4.- Jarraian, Txandetako Talde-Klub bakoitzaren postuak batzen dira, hurrenkera txikienetik handienara izanik.

5.- Amaiera Sailkapeneko berdinketa haustea:

- a) Bost kideen pisu guztia.
- b) Bost kideen Pieza Handiena.

6.- **Klubaren ligako zeroak:** Txandako Sektoretako Zeretatik datoz Sektoretan harrapaketa baliadunak lortu dituzten talde/klubetako lehenengo, bigarren, hirugarren, etab. guztiak sailkatu direnean, jarraian Sektorean zero lortu zutenen erlazioa egiten da eta horiek Txandan zero emaitzako partaide kopurua “zero” sailkapen postuen baturagatik zatitzean lortzen den postua izango dute.

* * * * *

IV B) KAPITULUA - ITSASERTZEKO BOTALDIAREN ITSASO ARRANTZARENA.

1. Artikulua DEFINIZIOA. Itsasertzetik eginiko Itsaso Arrantza, harri-lubetatik eta portu instalaziotatik egiten dena, esaterako kaiak, biaduktuak, olatu-hormak, etab., erabiltzaile guztientzat baldintza berdinekin, egunez ala gauez arrantza kanabera eta flotagailuaz hornitu aparailua direla medio, Urertzeko Botaldiaren Itsaso Arrantza edo besterik gabe **Itsaso Botaldia** izendatzen da.

2. Artikulua TXAPELKETEN BANAKETA.

Partaideen adina eta egoera kontuan hartuta eta dagokion partaidetza ala inskripzio modua kontuan hartuta, Botaldi Arrantzaren Txapelketak horrela banatzen dira:

A) Kategoriak: Jubenilak (U-21), Damak, Maskulinoa eta Absolutua, indarrean dagoen bere Txapelketa Arautegiko Estatu Federazioaren irizpideekin egokitzen diren adinekin.

B) Partaidetza ala Inskripzioa:

Banakakoa
Lurralde Selekzioen arabera
Kluben Ligaren arabera (Taldeak-Klubak)
Open (partaidetza askea)

3. Artikulua AGERTOKIA.

1. Txapelketaren agertokia Sektoretan eta Postutan banatuko da partaidetzaren arabera eta arrantza postuen dimentsio minimoekin egokituko da: 10 x 10 m..

2. Sektoreen eta postuen esleipena zozketa bidez egingo da txanda bakoitzean, sektore berdinean Selekzio/Talde-Klub bereko kideak aldi berean suertatzea saihestuz, baita partaideek sektorea edota postua errepikatzea ere.

3. Deialdiaren Oinarrietan portu instalazioaren ezaugarri zehatzak adierazi beharko dira, alegia harri-lubeta, kaia, biaduktua, itsasoarekiko bere altuera, etab. izan ahal baita.

4. Artikulua GARAPEN ARAUAK.

1. **Estatu Txapelketetan**, hala nola A.C. Kontzentrazioetan, gutxienez bi Botaldi proba ospatuko dira.

2. Proben iraupena HIRU eta BOST ordu bitartekoa izango da.

3. Kirolariak bere postuetan mantenduko dira pisaketa eta plika sinatzeko, bere kasuan, Kontrol/Epailak etorriko diren unea zainduz. Halaber pisaketa egin ahal da agertokiaren erdigunean, jarraian kirolari bakoitzak bere harrapaketak poltsa zigitatueta baskulara eramateko.

4. Azpi-espezialitate honetan, Arau Generikoen 16.1 c) Artikuluaren aplikaziorako, derrigorrezkoa da nasa ala burtzia erabiltzea, harrapaketak uretara itzuli bitartean bizirik mantendu ahal izateko, Epaila/Arbitroak pisatzen duenean, betiere agertokiak hori ahalbidetzen duenean.

5. Artikulua PORTAERA ARAUAK.

1. Arrantza postuen sarreran, Txanda hasi aurretik, sakontasuna neurtzeko proba jaurtiketak egitea onartzen da, amuak inolako beitarik eramaten ez badu.

2. Aparailuaren zeiharreko jaurtiketa onartzen da itsaso korrontea ahalik eta gehien aprobetxatzeko, alboko kirolariak eragozteko saihestuz, horretarako aparailua berreskuratu beharko da, eragozpena eragin aurretik.

3. Oso garrantzitsua da partaide bakoitzak bere segurtasuna zaintzea, balizko mareak, itsas-korrontek eta itsasautsiak arretaz jarraituz; arroka hezetan zehar ibiltzeko labaintzearen aurkako oinetakoak erabiltzea edota segurtasun neurri egokiak erabiltzea. Ez da inola ere onartzen uretan sartzea, ezta partzialki ere.

6. Artikulua KONTROLAK.

Organizazioak erabilgarri jarriko du kontrolen kopuru bat, gutxienez sektore bakoitzeko BAT.

7. Artikulua HARRAPAKETAK.

Arau Generikoen 23. Artikuluan xedatua jarraituko da, ondorengo berezitasunak barne:

1. Onartzen dira:

- a) Eskumeneko Autonomia Organismoak ezarri legezko neurri minimoa betetzen dutenak, Txapelketako arrantzarako espezie bezala, epea eta forma kontuan hartuta.
- b) Partaide ezberdinen amu ezberdinekin eta aparailuekin harrapatuko liratekeenak, partaidearen harrapaketa baliodunak, zeinen amua piezaren ahoan ziztatuko den.

2. Ez dira onartzen:

- a) Ezarri legezko neurri minimoa betetzen ez dutenak.
- b) Arrain osatugabeak edota nabarmenki manipulatuak, armiarmak eta bestelako arrain arriskutsuak izan ezik, zein burtzian arantzarik gabe sartu beharko diren.

3. Nuluak kontsideratuko dira:

Ahoan ala honetatik kanpo amu bat baino gehiago dakarten piezak, partaide ezberdinenak.

4. Penalizazioak: Pisaketara aurkezten den pieza nulu bakoitzak ez du punturik jasoko, baina aurkezten duen kirolaria bere pisuarekin penalizatuko du.

8. Artikulua KIROL MATERIALA.

1. Kanaberak. Itsaso Botaldian arrantza jarduerarako kanabera bakarra onartzen da, amurik gabeko beste hainbat ordezkoko kanabera muntatuak ere erabilgarri izateko aukerarekin. Kanaberaren luzera, agertokiaren ezaugarrien arabera, Deialdiaren Oinarrietan arautuko da eta gutxienez lau eraztun edota barruko eraztunak ekarri beharko ditu.

2. Txirrikak. Bere erabilera derrigorrezkoa da eta hautaketa hautazkoa da, jarduera eskuzkoa ala automatikoa, bobina finkoa ala birakaria daramana barne.

3. Lerroak. Diametroa eta konposizioa erabat hautazkoak dira.

4. Lerro azpiak. Erabat hautazkoak dira, amu bakarrarekin hornituak.

5. Lastak. (pisuak). Botaldi Txapelketetan, lastak ez du hondoa ukitu behar; bere pisua, hautazkoa, flotagailuarekiko proportzionala izango da. Lasten erabileraren inguruko balizko mugak, bere kasuan, Deialdi Oinarrietan islatuko dira.

6. Flotagailuak. Derrigorrezko erabilerakoak dira, finkoak ala labaingarriak, eta gutxienez lastaren eta amuaren pisua jasan beharko dute; lerroko bere finkapena hautazkoa da.

7. Amuak. Amu sinple bakarra onartzen da, Arau Generikoen 20. Artikuluan aurreikusien arabera. Amuen erabileraren inguruko balizko salbuespenak ala mugak, bere kasuan, Deialdi Oinarrietan islatuko dira baina ez da onartzen amu bikoitzak ala hirukoitzak erabiltzea.

8. Amuak / Beitak.

a). Naturalak edota eskumeneko Organismoak Euskadiko Autonomia Erkidegoko itsaso arrantzaren arloan onartzen dituen naturalak edota jatorri organikokoak onartzen dira.

b). Espresuki onartzen dira uretako amu jartzea ala trinkotzea. Ez da onartzen hormonen eta/edo Feromonen erabilera.

c). Organizazioak amuak eta/edo beitak hornitzen dituzenean, edota bere erabilera mugatua denean, beste batzuk erabiltzea edota bere neurritz kanpoko erabilera egitea, hurrenez hurren, deskalifikaziorako arrazoia izango da.

9. Laguntza Elementuak. Aterasarea ala salabardoa erabilera pertsonalekoa da baina beste partaide bati aldi baterako utzi ahal izango zaio. Harrapatu beharreko piezaren berreskurapena beste partaideen laguntzarik gabe egin ahal da. Halaber kanaberen euskarriak onartzen dira, bai arrantza jarduerarako eta bai ordezkoko kanaberarako edota kanaberetarako. Gaueko txapelketetan iturri argitsuak erabili ahal dira, horiek uretarantz zuzendu gabe eta alboko partaideak eragotzi gabe.

9. Artikulua KLUBEN LIGAKO BOTALDIA (KATEGORIA ABSOLUTUA).

Klubena Liga, Arautegi honetako Arau Generikoen 15, 39 eta 40 Artikuluetan eta Kapitulu honetako 2 B) Artikuluan aurreikusia jarraituz ezartzen da. Talde-Klub bakoitza lau kirolarirekin eta Erreserba ala Kapitain batekin eratuko da.

Kluben Ligako estatuko Txapelketa gutxienez bi Txandarekin eratuko da, hiru eta bost ordu bitarteko iraupenarekin eta Kirolaren Arloan 8. Artikuluan aurreikusiarekin egokituko da.

10. Artikulua SAILKAPENAK.

1.- Botaldi Arrantzaren Txapelketa Ofizialetako emaitzak sailkatzeko puntuazioak, kontrolean eta pisaketan lortu pisu guztiaren GRAMOKO PUNTU BATEN esleipenarekin egingo dira.

2.- Partaidetzaren ala inskripzioaren izaera kontuan hartuta, sailkapenak horrela dira: Banakakoa, Selekzioen arabera eta Kluben Ligakoa.

3.- Banakakoan, irizpide sekuentzialak jarraituz egingo da, Sektoreak, Txandak eta Finala baloratuz; Selekzioen arabera sailkapena Banakako Amaiera Sailkapenetik eta Kluben Ligako Sailkapenetik lortuko da, irizpide sekuentzialak Txandak eta Finala balioztatuz eratuko dira.

4.- Kasu guztietan, Banakako Amaiera Sailkapenean partaide bakoitzaren puntuazioa (gramoak) eta pieza handiena adieraziko dira.

I.-) BANAKAKO SAILKAPENAK

A) Sektorearen arabera Banakako Sailkapena

1.- Partaide bakoitzak bere Sektorean lorturiko banakako puntuazioa (gramoak) ebaluatuko da, hurrenkera handienetik txikienera izanik, Sektoreko **“postuetan”** berrantolatuko da, hurrenkera txikienetik handienara izanik.

2.- **Sektoreko berdinketa hausteak.**- Sektorean puntuen berdinketa (gramoak) jazotzen bada, postua Pieza Handienaren arabera ebartziko da eta berdinketa errepikatzen denean, puntu-gramoen eta pieza handienaren berdinketa lortzen duten partaideek Sektoreko postu berdina lortuko dute (hurrengo postua) eta berdinketa lortu ez duen hurrengo partaidearen postu zenbakia, puntu-gramoan eta Pieza Handienaren berdinketa lortu duten kirolarien zenbakiaren arabera lekualdatuko da.

Adibidea: Sektore berean, BI partaide 2. postu berean suertatzen dira, gramoen eta Pieza Handienaren berdinketa dela-eta. Bien puntuazioa = 2 puntu-postua eta hurrengo partaideari 4. postua dagokio.

3.- **Sektoreko Zeroak.**- Bere Sektorean harrapaketa baliodunik lortu ez duten partaideek ez dute punturik lortuko. “Zero” horien tratamendua Txandako Banakako Sailkapenean ebazten da.

4.- **Sektoreko Ausentziak:** Txanda batean partaide bat faltatuko balitz edota Sektorean deskalifikatu bat balego, gainerako Sektoretan azkenak ala azkenaurrekoak izango liratekeen kirolari guztiak Sektoreko postu berdinarekin sailkatuko dira, toki batean ala bestean suertatu izana alde batera utzita.

B). Txandako Banakako Sailkapena

1.- Sektoreen arabera Banakako sailkapena egiten denean, Txandako Sektore kopuruaren arabera lehenengo, bigarren, hirugarren, etab. postu kopuruak lortuko dira. Jarraian, puntuazio handienaren (gramoak) hurrenkeraren arabera antolatuko dira Sektoreko lehenengo postu guztiak; jarraian, **harrapaketa** baliodunak lortu dituzten bigarren, hirugarren, etab. guztiak, handienetik txikienera hurrenkeraren arabera eta segidan harrapaketa baliodunik gabeko kirolariak ala “Zeroak” sailkatuko dira. Erlazio horrek, **“postuak”** txikienetik handienara hurrenkeraren arabera berrantolatzean, berdinketa hauste eta “zeroak” ebaztean (aurrerago tratatuko direnak), Txandako **postuen** inguruko Txandako Banakako Sailkapena eratuko luke.

2.- **Txandako berdinketa hausteak.**- Txanda batean, Sektore ezberdinetako partaide bat ala gehiago **postu** berean eta puntu-gramoen berdinketan suertatuko balira, lehenago sailkatuko da pieza handienaren jabe dena; berdinketa mantentzen denean, sailkapenean postu berdina lortuko dute. Txandako sailkapeneko hurrengo kirolariak berdinketa egin dutenen postu zenbaki berdina lortuko luke, berdinketako kirolarien zenbakia dagokion alditan batuta.

3.- **Txandako Zeroak.**- Txandako Sektoretan Zerotatik datoz. Sektoretako **harrapaketa baliodunak** lortu dituzten kirolarien lehenengo, bigarren, hirugarren, etab. postuak sailkatu direnean, jarraian Sektorean zero lortu zuten partaideak erlazionatzen dira eta horiek Txandan lortuko duten postua, “zero” sailkapen postuen batura zero puntuazioko partaideen artean zatitzean lorturiko emaitza da.

Adibidea: Demagun 60 partaideko Txanda bat, A, B eta C hiru Sektoreen artean zatituta, Sektore bakoitza 20 kirolarikoa izanik eta B Sektoreak ez dakarrela Zerorik, A Sektoreak lau Zero ditu eta C Sektoreak bi Zero (54 kirolari harrapaketa baliodunekin eta 6 zerorekin).

Txanda honetan lehenengo harrapaketak lortu dituzten 54 kirolariak sailkatu beharko lirateke, aurreko irizpideen arabera eta jarraian "zeroen" inguruko postuak etorriko lirateke, horiek horrela balioztatuz: $P = (55 + 56 + 57 + 58 + 59 + 60) : 6 = 57,5$ edota bestela, $P = (55 + 60) : 2 = 57,5$. Harrapaketa baliodunik gabeko 6 arrantzaleen Txandako Banakako Sailkapeneko postua (berdin-berdina) litzateke 57, 5.

C). Banakako Amaiera Sailkapena

- 1.- Txandako Banakako Sailkapenak lortzen direnean, partaide bakoitzak Txanda bakoitzean lorturiko postuak batzeari ekingo zaio, eta batura horiek txikienetik handienara antolatuko dira.
- 2.- Txandetako postuen baturako berdinketa haustek, bere kasuan. Ondorengo irizpideak hurrenkera honetan tratatuko dira:
 - a) Txandetan postu onenak lortu dituen partaidea.
 - b) Txanda guztien artean puntu-gramo gehien lortu dituen partaidea.
 - c) Pieza handiena aurkeztzen duen partaidea.

II.-) SELEKZIOEN ARABERAKO SAILKAPENA

1. Lurralde Selektzioa da Lurralde federazio berean inskribatu kirolari partaide guztien multzoa.
2. **Selekzioen arabera Sailkapenaren xedeetarako soilik**, Autonomia Federazioko Selektzioa Banakako Amaiera Sailkapenean postu onenak lortu dituzten Federazio horretako **hiru** kirolarirekin/bikoterekin eratzen da.
3. Selektzioen Amaiera Sailkapena Selektzio bakoitzerako Banakako Amaiera Sailkapenean Sekzio bakoitzeko hiru kide/bikote bakoitzak lorturiko postuak (tokiak) batuz eta batura horien hurrenkera txikienetik handienara antolatuz eratuko da.
4. **Berdinketa haustek:** Batura horien artean berdinketa jazoko balitz, Selektzio bateko kide baten banakako postu onenaren arabera ebatziko da.

III.-) KLUBEN LIGA SAILKAPENA

- 1.- Txapelketak azpi-espezialitate honetako arau berdinekin zuzenduko dira.
 - 2.- Kluben Ligako Sailkapena Txanden arabera egiten da eta partaideen Txandako Banakako Sailkapenetik abiatzen da, I.-) B) atalean xedatuaren arabera.
 - 3.- Jarraian, Txanda bakoitzean txandako Banakako Sailkapen horietan Talde – Klub berdineko lau kideek lorturiko postuen baturari ekingo zaio eta batura guztiak lortzen dira, taldez talde, batura horien hurrenkera txikienetik handienara izanik.
 - 4.- Jarraian, Txandetako Talde-Klub bakoitzeko postuak batzen dira, hurrenkera txikienetik handienara izanik.
- 5.-Amaiera Sailkapeneko berdinketa haustek:**
- a) Lau kideen pisu guztia.
 - b) Lau kideen Pieza Handiena.

IV C) KAPITULUA – HARKAITZETAKO ALA ROCK-FISHING ITSASO ARRANTZARENA.

- Harkaitzetako Itsaso Arrantza ala **Rock-Fishing** modalitateak bere xehetasunak eta arau propioak garatuko ditu, Euskadin Rock-Fishing txapelketa ospakizunen inguruko behar bezainbat eskaera daudenean eta Estatu Federazioko Arautegien edukia jarraituz.

* * * * *

IV D) KAPITULUA – ITSASERTZEKO SPINNING ITSASO ARRANTZARENA.

- Itsasertzeko Spinning Itsaso Arrantzak bere zehaztapen eta arautegi propioa garatuko ditu, Euskadin Itsasertzeko Spinning txapelketen inguruko behar bezainbat eskaera daudenean eta Estatu Federazioko Arautegien edukia jarraituz.

* * * * *

V A) KAPITULUA – ONTZI AINGURATUAREN ITSASO ARRANTZARENA.

1. Artikulua DEFINIZIOA. Kanaberazko Kirol Arrantza, urruneko ontzitik praktikatzen dena, Marinako Agintarien aginduaren arabera (baxurako arrantza), partaide guztiek antzeko kirol baldintza onenekin praktikatzekoa "Ontziko Itsaso Arrantza". Jaurtiketa ala Itsaso-itsasertzeko arrantzarako irizpideak jarraituko ditu eta Kapitulu honetako arau bereziekin egokituko da.

2. Artikulua TXAPELKETEN BANAKETA.

Partaideen adinaren arabera eta partaidetzaren ala inskripzioaren arabera, Ontziko Itsaso Txapelketak horrela banatzen dira:

A) Kategoriak: Jubenilak (U-21) eta Absolutua, indarrean dagoen bere Txapelketa Arautegian Estatuko Federazioaren irizpideekin egokitzen diren adinekin.

B) Partaidetza ala Inskripzioa:

Banakakoa
Lurralde Selekzioen arabera
Kluben Ligaren arabera (Taldeak-Klubak)
Open (partaidetza askea)

3. Artikulua AGERTOKIA.

1. Arrantza gunea Organizazioak aurreikusia, Espezialitateko batzordeak hitzartua eta Patroien Bileran jendarteratua da.

2. Erraz identifikatu ahal den itsaso poligonoarekin mugatuko da, itsasertzean bi puntu ala erreferentzia nabarmenekin eta irudimenezko beste bi punturekin (perpendikularrak lerro birtualarekiko, lehenengo biak batuz) edo bestela baliza batekiko gehieneko distantzian ezarriko da. Halaber gunea zehatz bat buia ala baliza kopuru egokiarekin mugatu ahal izango da. Mugak behar bezala zehaztuko dira Ordezkarien/Kapitainen/Kirolarien Bileran.

3. Epaimahaiak soilik aldatu ahal izango du arrantza gunea, segurtasun arrazoiak edota bestelako arrazoiak direla medio.

4. Espezialitateko Batzordeak xedatu ahal izango du Patroien Bileran oinarritzko Agertokia zatitzeko azpi-gune ezberdinen zozketarako irizpideak, hala dagokionean.

4. Artikulua GARAPEN ARAUAK.

1. Ainguratu Ontziko Txapelketa Txanden iraupena hiru eta bost ordu bitartekoa izango da.

2. Txanda bakoitzeko txapelketa ordu bakoitzaren amaieran, ezinbestekoa da postua aldatzea. Posizioa aldatzeko erabili denbora ez da deskontatuko kopuru osotik.

3. Ontzi ala instalazio flotagarrien postuak Txanda bakoitzaren aurretik zozkatuko dira, ontzien artean Selekzio/Talde/Klubetako kideen banaketa uniformea bilatuz, Kapitulu honetako eranskin modura (I. ERANSKINA) barne hartzen diren grafikoetan adierazi sistemari jarraiki. Ontziaren segurtasuna ala espazioa dela-eta, Espezialitateko Batzordeak postuen banaketa aldatu ahal izango du.

4. Ontzia posizioz aldatu ahal izango da, arrisku egoeren kasuan, Patroiaren erabakia dela medio. Halaber partaide gehienek proposamena aldatu ahal izango du, horretarako horiek lerroak uretatik atera beharko dituzte. Iritzien berdinketa jazotzen denean, zozketa egingo da, aurpegia ala gurutzea, Patroiaren edota, eskuragarri balego, ontziko Kontrolaren ardurapean egingo da; ez da aldaketa berririk proposatuko aurreko aldaketatik gutxienez 30 minutu iragan diren arte.

5. Ainguratu ontzitik eginiko kirol arrantzaren txapelketak ontzi ala instalazio flotagarri mota ororekin egin ahal izango da, betiere partaideen probak ospatzeko baldintzak antzekoak izaten direnean.

6. Instalazio flotagarriak erabiltzen badira (gabarrak, txanelak, etab.), partaide guztiek eremu berdina erabili beharko dute.

7. Partaideek ontzietatik arrantza jarduerari ekin behar diotenean, horiek behar bezala ainguratuak egon beharko dira. Propultsio mugimendua agertoki modura adierazi gunearen barruan posizioa aldaketaren inguruko lekualdatzetarako soilik erabiliko da. Lerroak ontzia ainguratuta dagoenean soilik ezarriko dira uretan. Ez da onartzen "aingura mugitzea".

5. Artikulua PORTAERA ARAUAK.

1. Adierazi arrantza poligonoan, ontziak hautatzen duten tokietan ainguratu ahal izango dira, 3. Artikuluan xedatu mugak errespetatuz.

2. Ez da onartzen Itsasoko Agintari lokalek baimendu itsasertzarekiko distantzia txikiagoan arrantza egitea.

3. Ontzietan parte hartuko duten pertsonak, Kontrolak ala organizazioak adierazi pertsonak eta ontzietako patroiak ala "skipper"ak soilik nabigatu ahal izango dute. Salbuespen modura, Epailak beste pertsonaren bat ontzira igotzea onartu ahal du, esaterako patroia laguntzailea, argazkilaria, kazetaria, etab.

4. Arrantza jardueran ari diren ontzien arteko 50 metroko distantzia minimoa errespetatuko da.

5. Ez da onartzen organizazioak adierazi arrantza gunetik irtetea.

6. Ontziko aurreko postuak betetzen dituzten kirolariek lasta astunagoak erabili beharko dituzte sakoneraren eta korrontearen arabera, atzeko arrantzaleak ez kaltetzeko. Horiek lasta arinagoak erabili ahal dituzte. Ez da onartzen jaurtiketak egitea baina bai kanaberaren azpitik lasta kulunkatzea, kareletik kanpo. Edozein kasutan, arrantza "sakona" izango da; bi uren artean jakinaren gainean egiten denean, zigorra ekarri ahal izango du.

7. Oro har, partaideari dagokio arrantza jardueran eta harrapaketen lorpenen aritzea, gainerako tripulazioa arriskuan jartzera iritsi gabe. Arraina harrapatzeko ahalegina egiteko unean ez da onartzen kirolaria edonola laguntzea, kaxa jartzeko unera arte ala aterasarearekin ala salabardoarekin atera arte, orduan beste kirolari batek ala tripulazioko kide batek lagundu ahal izango lioke. Borroka honetan zehar, hori egiten duen kirolariak lehentasuna izango du ontziko beste partaideekiko; horiek bere lerroak bereizi beharko dituzte ez eragozteko, harrapatzen ala galtzen duen unera arte. Aldi bereko ziztatzeak jazotzen direnean, arrantzaleak horiekin ados jarri beharko dira. Ziztatzea jazo bitartean, ez da onartzen kirolariek oin-puntakoa uretan sartzea.

6. Artikulua KONTROLAK.

Espezialitateko Batzordeak ontziko Kontrolen jarduerarako beharra ezarri ahal izango du, Arau generikoen 51. Artikuluan aurreikusien arabera.

7. Artikulua HARRAPAKETAK.

Ainguratu Ontzitik eginiko Arrantza Txapelketetan, HARRAPAKETEN inguruko arautegia Itsaso-Itsasertzeko modalitatearen berdina da, Kluben Liga ataleko Itsaso-Itsasertzeko 7.3 Artikulua izan ezik. Harrapaketa horiek baliodunak kontsideratuko dira kirolariak Talde-Klub (ontzi) berdinekoak izaten direnean. Deialdiaren Oinarriak Azpi-espezialitate honetako espezie onargarriak arautzeko dira.

8. Artikulua KIROL MATERIALA.

1. Kanaberak. Ainguratu Ontziko arrantza ezinbestean jarduneko kanabera bakarrarekin egingo da, bere luzera gehienez 5 metrokoa izanik, txirrikarekin, gutxienez 4 eraztunekin eta lerro lastatuarekin. Kanaberak, arrantzaren jardura normalean, eskuarekin heldu beharko da, ontzian sostengatu ala finkatu gabe. Kirolariek ordeztu kanabera muntatuarekin kontatu ahal dute, betiere lerro azpirik gabekoa.

2. Txirrikak. Hautazkoak dira, eskuzkoak ala automatikoak izan ahal dira, bobina finkoaz ala birakariaz hornituak. (Elektrikoak debekatuta daude).

3. Lerroak. Hautazkoak dira, bere diametroan eta bere konposizioan. Ez da onartzen lerroan ala aparailuan flotagailurik erabiltzea.

4. Lerro azpiak. Hautazkoak dira, diametroa eta konposizioa kontuan hartuta, metalezkoak barne.

.-Bere luzera hautazkoa da, baina kanaberarena ez du gaingitu behar.

.-Erreserbako lerro azpiak behar bezala gordeta mantenduko dira.

Onartzen da:

a) Erabiltzea, betiere amutik kanpo, material erakargarriak, esaterako koilara txiki distiratsuak, perla eta luma koloreztatuak, pieza fluoreszenteak, etab.

b) Amu bakoitzaren lerro tartean finkatu perlen (flotagarriak izan ala ez) erabilera, horietako bakoitzaren gehieneko dimentsioa 15 mm-koa izanik.

c) Amu naturala amuan finkatzeko hari malguaren erabilera.

Ez da onartzen: Elementu lurrintsuak erabiltzea ala erabilgarri izatea.

5. Lastak (pisuak). Ainguratu Ontzien Txapelketetan, lastak beti hondoa ukitu beharko du. Lasten erabilerarekin loturiko balizko salbuespenak ala mugak, bere kasuan, Deialdiaren Oinarrietan islatuko dira.

6. Amuak. Arau Generikoen 20. Artikuluan aurreikusia jarraituko da. Lerro azpiari hiru amu sinpleraino atxiki ahal zaizkio. Amuen erabilerarekin loturiko balizko salbuespenak ala mugak, bere kasuan, Deialdiaren Oinarrietan islatuko dira.

7. Beita. Organismoak Euskadiko Autonomia Erkidegoko itsaso arrantzaren arloan onartzen dituen naturalak edota jatorri organikokoak onartzen dira. Ez da onartzen Ainguratu Ontziko arrantzan uretako amu jartzea egitea. Organizazioak amua hornitzen duenean, beste amu baten erabilerak deskalkifikatzeko bidea emango du.

Administrazio arloko zirkunstantziak direla medio, amu mota edota neurria mugatuko balira, Espezialitateko Batzordeak partaideak horren jakinaren gainean jarriko ditu, inskripzio data baino lehenago.

8. Laguntza Elementuak. Aterasureak, salabardoak eta lazafrinak dira, arpoi txiki gabeak; erabilera pertsonalekoak dira baina aldi baterako mailegatu ahal dira ontzi bereko partaideen artean.

9. Artikulua AINGURATU ONTZIKO KLUBEN LIGA (KATEGORIA ABSOLUTUA).

Kluben Liga, Arautegi honetako Arau Generikoen 15, 39 eta 40. Artikuluetan eta Kapitulu honetako **2. B) Artikuluan** aurreikusia jarraituz ezartzen da. Talde-Klub bakoitza lau kirolarirekin eratuko da eta guztiak Ontzi berdinean jardungo dira, ontziko aldaketak ezinbestekoak izan gabe.

Estatuko Txapelketak gutxienez bi txandarekin kontatuko du, bakoitza HIRU eta BOST ordu bitartekoa, Kirol Arloko 8. Artikuluarekin egokituz.

10. Artikulua SAILKAPENAK.

1.- Botaldi Arrantzaren Txapelketa Ofizialetako emaitzak sailkatzeko puntuazioak, kontrolean eta pisaketan lortu pisu guztiaren GRAMOKO PUNTU BATEN esleipenarekin egingo dira.

2.- Partaidetzaren ala inskripzioaren izaera kontuan hartuta, sailkapenak horrela dira: Banakakoa, Selekzioen arabera eta Ainguratu Ontziaren Kluben Ligakoa.

3.- Banakakoan, irizpide sekuentzialak jarraituz egingo da, Sektoreak, Txandak eta Finala baloratuz; Selekzioen arabera sailkapenean Banakako Amaiera Sailkapena baloratuko da eta Kluben Ligako Sailkapenean Talde-Klub bakoitzeko Txandaren arabera Sailkapenak erabiliko dira.

4.- Kasu guztietan, Banakako Amaiera Sailkapenean partaide bakoitzaren puntuazioa (gramoak) eta pieza handiena adieraziko dira.

I.-) BANAKAKO SAILKAPENA Itsaso-Itsasertzeko irizpide berdinekin.

II.-) SELEKZIOEN INGURUKO SAILKAPENA Itsaso-Itsasertzeko irizpide berdinekin.

III.-) KLUBEN LIGAKO SAILKAPENA

1.- Kluben Ligako Sailkapena Talde-Klub bakoitzeko Txanden arabera egingo da.

KANABERA: Luzera gehienez 5,20 metrokoa.

TXIRRIKA: hautazkoa, pita guztia hartuko du, baita lerro osagarria ere, txirrika kanaberarekin atxikita jarriko da.

LERROA: hautazkoa, baina bere pisuaren muga, gehienez, 120 gramokoa izango da. Ez da onartzen metalezko erreformarekin hornitu haririk. Gutxienezko luzera 15 metrokoa da.

PUNTA: Luzera minimoa 1,80 metro, gehienez 5,20 metro.

EULIA: txapelketako ofiziala, 10. amua, kakorik gabea. Euliaren diametroa 16-20 mm-koa da, Organizazioak hornitua ([Proba Internazionala](#)) kolorea zuria, horia eta gorria izanik. Ez da onartzen euliak kirolarien eraginpean ala manipulazio egoeran aurkitzea. Hausturaren kasuan, mugarik gabe ordeztu ahal dira.

JAURTIKETA-PISTA: 100 metroko distantziara, pistaren zabalera 50 metrokoa izango da, plataformaren erdigunetik ardatz perpendikularrekiko angelu zuzenean neurtuta.

DENBORA: 7 minutu.

PUNTUAZIOA: Banakako puntuaziorako jaurtiketak luzeena; bi luzeenak konbinaturako izanik. Metro bat = puntu bat.

14. 7. Diziplina – Urruneko pisua, 18 gramo, bi eskukoa.

KANABERA: Hautazkoa

TXIRRIKA: Bobina finkoa, hautazkoa

LERROA: Diametroa gutxienez 25 mm-koa, behearazko tolerantziarik gabe baina luzera osoan diametro berdinekoa. Zubia, gutxienez 35 mm-ko diametrokoa derrigorrez. Zubiaren gutxienezko luzeran bira osoa behintzat emango dio txirrikari jaurtiketaren unea iristean.

PISUA: Plastikozkoa, 18 gramo, tanta erakoa. Luzera osoa uztaia izan ezik, gutxienez 68 mm-koa. Buruaren diametroa, gutxienez 22 mm-koa. Kolore zuria.

JAURTIKETA PISTA: 100 metroko distantziara, angelu zuzena irteera-puntuarekiko, irteera-postuko erdigunetik neurtuta, pista zabalaren 50 metro.

JAURTIKETAK: Kirolari bakoitzak 3 jaurtiketa egin ahal ditu, hiru txandatan, zenbakizko hurrenkera jarraituz. Gehienez 5 metroko ibilbidea.

DENBORA: Jaurtiketa bakoitza, irteera Epailleak pista libre dagoela adierazten duenean, 60 segundoko epean egin beharko da.
PUNTUAZIOA: jaurtiketa luzeena metro bat = 1,5 puntu.

15. 8. Diziiplina – Txirrika birakariaren doitasuna, pisua 18 gramo.

KAÑA: Hautazkoa, esku bakarrekoa.

TXIRRIKA: Ohiko bobinaren biderkatzailea

LERROA: Hautazkoa, baina bere luzera osoan diametro berdina izango du. Luzera gutxienez 22 metrokoa.

PISUA: Plastikozkoa, 18 gramo, tanta erakoa. Luzera osoa uztaila izan ezik, gutxienez 68 mm-koa. Buruaren diametroa, gutxienez 22 mm-koa. Kolore zuria.

JAURTIKETA PISTA: 4. diziplinan bezala baina ezkerretik hasita, 12 metro, 14 metro, 16 metro, 18 metro eta 20 metrora.

JAURTIKETAK: Bi serie irteera-postu bakoitzetik. Serie bakoitzean, bi jaurtiketa disko bakoitzeko. Guztira 20 jaurtiketa. Hautazko jaurtiketa estila. Ez da onartzen katapultatutako jaurtiketak.

DENBORA: 10 minutu.

PUNTUAZIOA: Helburu bakoitzak 5 puntu balio ditu. Gehieneko puntuazioa 100 puntukoa da.

16. 9. Diziiplina – Txirrinak birakariaren distantzia, pisua 18 gramo, bi eskukoa.

KANABERA: Hautazkoa.

TXIRRIKA: Ohiko bobinaren biderkatzailea.

LERROA: Gutxienezko diametroa 25 mm, beharrezko tolerantziarik gabe baina luzera osoan diametroa berdinekoa. Zubia, gutxienez 35 mm-ko diametrokoa derrigorrez.

PISUA: Plastikozkoa, 18 gramo, tanta erakoa. Luzera osoa uztaila izan ezik, gutxienez 68 mm-koa. Buruaren diametroa, gutxienez 22 mm-koa. Kolore zuria.

JAURTIKETA-PISTA: 100 metroko distantziara, angelu zuzena irteera-puntuarekiko, irteera-postuko erdigunetik neurtuta, pista zabaleraren 50 metro.

JAURTIKETAK: Kirolari bakoitzak 3 jaurtiketa egingo ditu, 3 txandatan, zenbakizko hurrenkerari jarraituz. Gehienez 5 metroko ibilbidea.

DENBORA: Jaurtiketa bakoitza, irteera Epailleak pista libre dagoela adierazten duenean, 60 segundoko epean egin beharko da eta jaurtiketa-gunea utzi beharko da, JAURTIKETA AMAITZEN DENETIK BI minuturen buruan. Bestela, jaurtiketa nulua ala 0 puntukoa izango da.

PUNTUAZIOA: jaurtiketa luzeena metro bat = 1,5 puntu.

17. 10. Diziiplina – Distantzia pisua 113 gramo, bi eskukoa.

KANABERA: Luzera gehienez 4,88 metrokoa.

TXIRRIKA: Danbor finkoa.

LERROA: Luzera osoan uniformetasun lodia, diametroa gutxienez 0,40 mm-koa, beharrezko tolerantziarik gabe.

ZUBIA: Ezartzen da, segurtasun modura, gutxienez 0,60 mm-ko kalibreko zubi "leader" bat.

PISUA: Edozein materialekin eta formarekin eratua baina pisua gehienez 113 gramokoa. Plomua onartzen da.

JAURTIKETA PISTA: 100 metroko distantziara, angelu zuzena irteera-puntuarekiko, irteera-postuko erdigunetik neurtuta, pista zabaleraren 30 metro.

IRTEERA-POSTUA: 1,50 metroko luzera eta 10 cm-ko altuera, kolore zurian.

JAURTIKETAK: Kirolari bakoitzak 3 jaurtiketa egin ahal ditu, hiru txandatan, zozketa bidezko zenbakizko hurrenkera jarraituz.

PUNTUAZIOA: jaurtiketa luzeena, metro bat = puntu bat.

18. Arau Generikoen 32. Artikuluan xedatua kontuan hartuta, Kasting Espezialitatean ondorengoa xedatzen da:

a) Banakako txapelkunak eta konbinatuak ezartzeko, beharrezkoa izango da gutxienez 6 kirolarirekin kontaktua gizonetako proban eta 4 kirolarirekin damen eta jubenilen (neska/mutilak) probetan. Arau hori betetzen ez denean, salbuespen modura, partaideen gutxienezko kopururik gabeko diziiplina haietan, Estatuko Txapelkuna baino ez da aldarrikatuko.

b) Selekzioen arabera txapelketan, beharrezkoa izango da inskripzioa eta partaidetza, gutxienez, gizonetako 4 Selekzioarena eta damen zein jubenilen (neska/mutilak) 3 Selekzioarena.

c) Selekzioak 4 kirolarirekin eratuko dira gizonetako proban, 2rekin damen proban eta 3rekin jubenilen (neska/mutilak) proban.

19. Agertokiak zainduta egon beharko dira, kirolariek ala ikusleek inolako eragozpen/istripurik jasan ez dezaten.

Hirugarrenen kalterako istripuen inguruko erreklamazioak saihesteko, organizazioak ospakizuna dagokion aseguruarekin babestuko du.

5. Artikulua PORTAERA ARAUAK.

Xedatzen da, jarraian, Kasting praktikan eta jardueran kontuan hartu beharreko arau multzoa, lege kanpoko jaurtiketak, material akastuna ala hondatua eta emaitzak barne hartzen dituen; baita arrantzalearen portaera arauak ere.

1. Kasting txapelketa guztietan, ofizialekin eta ofiziosotan, garapena diziiplina bakoitzeko xehetasun berezietan ezartzen diren ezaugarri guztiekin egokitu beharko da.

2. Kirolariaren jarduera diziplina guztiak, plataformara ala irteera-postura eta gehienez minutu bat barru hasiko dira, Epaileak seinalea ematen duenean.

3. Txandaketa probak eta proba anitzak

a) Jaurtiketa teknikak: Probaren Arautegi berezian murrizketarik adierazten ez bada, edozein teknika onartuko da. Ez dira onartzen katapultak jaurtiketak edota jaurtiketa zentrifugoak.

1. Katapultak jaurtiketa da jaurtiketa bat zeinetan kirolariak bere kanabera tolestuko duen, pisua mantenduz eta kanaberaren potentzia askatuz, pisua askatzeko.

2. Jaurtiketa zentrifugoa da jaurtiketa bat zeinetan kirolariak pisua zirkulu mugimenduaren bidez bi aldiz baino gehiago biratzera eramango duen.

3. Lerroa askatuz eginiko edozein jaurtiketa saiakera ontzat emango da.

b) Legez kanpoko jaurtiketak. Jaurtiketa bat legez kanpoko da:

1. Kirolari batek irteera plantilla zapaltzen duenean oin batekin ala birekin pisuaren hegaldian zehar, edota zorua ukitzen badu irteera-plantillaren aurrean esku batekin ala birekin edota bere gorputzaren beste edozein atalekin.

2. Eremuan jaurtiketa adierazi aurretik lerroa jasotzen denean ala irteera-plantilla zeharkatzen denean.

3. Distantzia anitzean ala txandakakoan kirolariak, irteera-gunean sartu ondoren, jaurtiketa huts egiten duenean, Irteera Epaileak eremua prest dagoela adierazi ondorengo 60 segundoren barruan.

4. **Arrantzaleak**, txandakako distantzia probetan edota proba anitzetan bere ibilbidea 5 metro baino gehiagorekin gainditzen duenean.

5. Pisuak zorua ukitzen duenean eremuaren barruan edota irteera-plantillaren zein irudimenezko lerroaren aurrean, irteera-plantillaren albo bietara neurtua, baita inolako jaurtiketarik egin ez bada ere.

6. Jaurtiketa bat egitean, kirolariari ahaztu egin bazaio irteera-lerroa ala lerro gida zeharkatzea txandakako ospakizunetan edo bestela txirrika askatzea ospakizun anitzetan, baita zorua ukitzen ez denean ere.

7. Txandakako probako jaurtiketan zehar lerroa ukitzen denean edota proba anitzetan txirrika oharkabean tratatzen denean, zorua ukitzen ez badu ere.

8. Lerroa hegaldian zehar hausten denean.

9. Txandakako distantzian zein anitzean pisua eremuan sartzen denean edota doiketan kolpea helburutik kanpo ematen duenean.

10. Erabiltzen den jaurtiketa teknika Arautegian azaltzen ez denean.

Nagusiki legez kanpoko jaurtiketa bakoitzak onartzen den jaurtiketa kopururako kontatzen du. Lorturiko kolpe ala distantzia bakar batek ez du punturik lortuko legez kanpoko jaurtiketetan.

c) Material akastuna: Lerroa nahasten denean, kirolariak laguntza eskatu ahal izango du, aldiro pertsona bakarrari. Materiala haustean ala akastuna izatean, hein batean ala bere osotasunean, arautegiko beste material bat erabili ahal izango du probaren gainerako epean. Akats horien berri emango zaio Epaileari. Kasu bietan, doiketa eta distantzia, kirolariak 10 minutuko epea eskatu ahal du akatsa konpontzeko. Materiala konpontzen denean, denbora geratu egingo da.

Gainerako denbora materiala aldatzeko erabili ahal izango da, baina txanda berdinean soilik. Material hondatu ala akastunak dira: kanaberak, txirrika ala uztai hautsiak. Ez da denbora gehigarririk emango kanaberaren uztat bat askatzen denean edota lerroa txirrikan tratatzen denean. Kirolari bakoitza arduratuko da proba bakoitzerako material egokia ekartzeaz.

d) Emaita erabakigarriak:

1. Distantzia jaurtiketa guztietan, neurketa irteera-plantillaren erdigunetik pisuaren amaiera gunera bitartean egiten da. Doitasun jaurtiketan, uneko helburuan ala zirkuluan eginiko kolpeak helburu-eremuaren barruan eginiko kolpeak bezala puntuatuko du.

2. Epaileek, jaurtiketa egin eta berehala kirolariak lortu duen distantzia onenaren berri eman beharko dute.

3. Jaurtiketaren neurketa proba amaitu eta gero egingo da. Distantzia mugagabeak 2. a ala 3. a izango dira.

4. Distantzia jaurtiketan kirolariaren jaurtiketa onena zuzenean irteera-plantillaren erdigunetik pisuaren puntu urruneneraino neurtzen da; metrotan eta zentimetrotan erabakitzen da.

5. Azken jaurtiketa denbora-epearen aurretik amaitu beharko da; hau da, pisuak helburua ala eremua ukitu duenean.

6. Jaurtiketak errepikatu ahal izango dira beste hainbat pertsonen eragin desegokia jazotzen denean. Epaile nagusiak erabakiak hartuko ditu, eremuko Epailearekin kontsulta egin ondoren.

Aurreko arauak proba guztietan jarraitu beharko dira.

4. Euli jaurtiketa

Proba bakoitzeko Oinarriak kontuan hartuta, euli kanabera esku bakarrarekin ala birekin erabiliko da. Laguntza-puntua bilatuko da, kanabera besaurrearen alboan ezarrita, baina ez da onartzen bertan finkatzea. Halaber ez dira onartzen beste hainbat laguntza teknika.

a) Legez kanpoko jaurtiketak. Jaurtiketa bat legez kanpoko da:

1. Kanabera Arautegiaren arabera eusten ez denean.

2. Jaurtiketaren ondorioz eulia ala lerro azpia galtzen badira. Lerro azpiko katramila ala nahaspila bat direla medio, hura ezarri neurri minimoen (1,80 m) azpitik geratzen denean; jaurtiketa hori ontzat emango da. Hala ere, lerro azpia arautegiaren arabera ordeztu ala egokituko da.

3. Jaurtiketa faltsuetan zehar euliak helburuaren barruan ura ukitzen duenean, oraindik puntuazioa lortzeko jaurtiketa balioduna egin ez denean.

4. Urruneko jaurtiketa batean, eulia eremutik kanpo ezartzen denean.

5. Arrantzaleak lerroa markatzen duenean ala kanaberan zehar neurtzen duenean.

6. 1. proban euliaren lerro azpia hausten denean eta kanaberaren luzera gainditzen duen beste batengatik ordeztzen denean. Ordezteak material berdinarekin eta kolore berdinarekin soilik egingo dira.

7. 1. proban lerroak txirrikatik tira egiten duenean, Epailleak hasteko seinalea eman aurretik, irteera epailleak soilik egitea onartzen da.

8. Arrantzaleak, euliaren hegaldian zehar, zorua ukitzen duenean plataformaren edozein gunetan, oin batekin ala biekin, bere eskuekin ala gorputzeko beste edozein atalekin, euliak helburuaren hondoa ukitu aurretik.

9. Arrantzalea, euli doitasunean zehar, oina ez badago gutxienez plataformaren alboan eta aurrez aurre ezarrita.

10. Arrantzaleak, lehen abisua eman ondoren, zorua ukitzen jarraitzen duenean bere liderrarekin, hurrengo kolpea legez kanpoko jaurtiketatzat hartuko da.

Arrantzaleak materiala arautegian xedatu ez bezala erabiltzen duenean, proba osorako deskalifikatu egingo da.

b) Material Akastuna:

1. Eulia ala lerro azpia galtzen direnean, kirolariak pertsona bakarraren laguntza eskatu ahal izango du, eulia ala liderra ordeztu ahal izateko. Probaren aurretiko distantziak eta kolpeak kontuan hartzen dira. Euliaren luma amutik bereizten denean, Epaillearen erabakia dela medio, denbora eten egingo da eta kirolariak ala bere laguntzaileak euli estra ezarri ahal izango dute. Euli aldaketa horrek ez du kontatzen probarako euli kopuru mugatuari dagokionez. Denbora berriro martxan jarriko da, eulia ordeztu bezain laster, jarraian lerroa eutsi ahal izanik.

2. Pertsona bakarraren laguntza onartzen da, helburua lerroa tenkatzea ala askatzea izaten denean.

3. Materiala hausten denean ala akastuna izaten denean, hein batean ala bere osotasunean, txandatzean eta proba anitzetan bezalako arauak aplikatzen dira, baina denbora eten egiten da. Proba honetarako gainerako denbora, kirolariak erabili ahal izango du materiala ordezteko, baina proba honetarako arauen xedeetarako modu egokia zainduz.

c) Emaizta erabakigarriak:

1. Euliak doitasun jaurtiketan helburua kolpatzen duen lehen aldian, saiakera bakoitzagatik puntuatuko du. Urruneko jaurtiketan, jaurtiketa eulia aurkitzen den puntutik neurtuko da.

2. Jaurtiketak errepikatu ahal izango dira, betiere beste pertsona batzuen eragina jasan dutenean. Erabakiak epaile nagusiak hartuko ditu, eremuko epaileekin dagokion kontsulta egin ondoren.

3. Euli jaurtiketen epea hasiko da kirolaria prest dagoenean eta irteera-epailleak hasteko agindu duenean. Denbora amaitu aurretik, euliak helburua ala zorua ukitu beharko du.

5. Beste arau batzuk

a) Arrantzalearen jarrera: Federazioaren izen ona hedatuz doa kirolariak probetan eginiko lorpenekin, kirol diziplina eta heziketa direla medio. Arrantzalearen betebeharra da:

1. Kiroltasunez eta adiskidetasunez jokatzeko, Epailen eta Organizazioaren gomendio guztiak kontuan hartuta.

2. Kirolari bakoitza bere aparailuen erabilera zuzenaz arduratuko da, Arautegiaren arabera.

3. Kirolari bakoitza irteera-gunean aurkitu beharko da, lehen abisua ematean. Bigarren abisua ematean, lehenengo abisutik minutu bat barru, bertan aurkitzen ez bada, denbora kontatzen hasiko da azken abisutik 30 segundo pasatu direnean.

4. Kirolari bakoitzak Epailen erabakiak apelatzeko eskubidea izango du, Epaimahaiari idatziz emango zaizkio erreklamazioen bidez, proba amaitu eta berehala, Ordezkararen ala kirolariaren bidez. Denbora-epea 30 minutukoa da.

b) Entrenatzaileena eta laguntzaileena: Ez da onartzen entrenatzaileak, kapitainak, ordezkariek, jarraitzaileak eta gainerako pertsonak helburuen alboan egotea, kirolarien akatsak seinaleen bidez adieraztea eta zuzentzea edota beste batzuk entrenitzea. Entrenatzaileak proben artean edota proba hasi aurretik soilik lagundu ahal izango du, distantzia probetan izan ezik. Urruneko euli proban soilik onartzen da laguntzailea, jaurtiketan zehar eremutik kanpo geratuz. Epailleak edozein jarrera akastun zigortu ahal izango du, diziplinazko jarduerak direla medio, kirol irizpideen arabera.

6. Errekorren adierazpena

a) Euskadiko puntuazioak Autonomia Txapelketetan, Estatuko eta Europako ala Munduko Txapelketetan erregistratu ahal izango dira.

- b) Errekor berria lortu denean, materiala berehala kontrolatu beharko da, arauekin bat datorrela egiaztatzeko. Kontrol hori Euskal Epaille batek bideratu beharko du. Denbora neurtu egingo da eta kirolariaren emaitza txartelean ala fitxan idatzi beharko da, Euskal Epaillearen sinadura azpian.
- c) Distantzia proba guztietan, puntuak erregistratu ahal izango dira, betiere haizearen abiadurak 3 metro / segundoko abiadura gainditzen ez duenean.
- d) Kontroleko arduradunak protokoloa sinatzeaz eta hura F.E.P.-ra zeina A.C.-ra igortzeaz arduratuko dira, puntuazio berria erregistratu dadin.
- e) Jaurtiketa baliodunak soilik puntuatuko dira.
- f) Txapelketa mota orotan, errekorrak eremuan markatu beharko dira, argi eta garbi.
- g) Errekorretarako puntuazioak 2, 5, 6, 7, 9 eta 10. diziplinetan aplikatu ahal dira, horrela:

Gizonezkoak	Bost probako konbinaketa	1-5
	Zazpi probako konbinaketa	1-7
	Bederatzi probako konbinaketa	1-9 / zirkuitua
Damak	Bost probako konbinaketa	1-5
	Zazpi probako konbinaketa	1-5 + 8-9 / zirkuitua
Jubenilak	Bost probako konbinaketa	1-5

7. Partaidetza. Estatuko Txapelketa guztietan, Euskadiko Federazioak gizonezkoen, damen eta jubenilen zehaztu beharreko kopuruarekin kontatu ahal izango du. Inskribatu partaideen kopurutik, 4 gizonezko, 2 dama eta 3 jubenil esleituko dira Talde lehiakidea eratzeko.

Estatuko Txapelketak betiere ospatuko dira gutxienez gizonezkoen 4 Lurralde Federazio eta damen zein jubenilen 3 Lurralde Federazio partaiderekin kontatzen denean.

Kategoria Jubenileko txapelketak behin-behinekoak izango dira, partaidetza motaren ondorioz, MISTOA izanik (neskak /mutilak).

8. Euskadiko Selektzioa.

a) Estatuko txapelketetan Kategoria bakoitzerako ezarri emaitza minimoen arabera, kirolariak Estatuko Txapelketetan Espezialitateko Euskadiko batzorde Teknikoak xedatu hautazko probak ala de A.C. Kontzentrazioak egitera ekarriko dira, Euskadiko Selektzio ordezkarria eratzeko, Estatuko Kasting Txapelketen finalean.

b) Batzorde Tekniko hautatzaileak deialdi bakoitzean garatu beharreko diziplinak erabakitzeko ahala izango du, jarduera isolatua ala jarduera konbinatuak direla medio, zein espezialitate honetan praktikatu ahal izango diren.

6. Artikulua KONTROLAK.

Proben garapenean zehar, Epaillea da kirol diziplinaren ahalarekin kontatzen duen agintari bakarra.

Epaille nagusiak akatsak epaitzen ditu, aparailuak kontrolatzen ditu eta erabakitzen du, eremuk Epailleekin batera, jaurtiketa bat errepikatu behar den ala ez, hirugarrenen eragina dela medio.

Epaille nagusiek zein laguntzaileek (Kontrolak) behar bezala eta inolako aurreiritzirik gabe jardun beharko dira. Identifikatzeko uniformea jantzi beharko dute, besoko zintak ala bere misioaren adierazle bat erantsita.

Kasting Txapelketa orotan Epaille nagusi bat (pistakoa) jardungo da, erabiltzen den pista bakoitzeko. Arduradun gorena izango da eta berarekin elkarlanean jardungo dira beharrezko (Kontrolak) eremu, irteera, mahai epailleak eta epaille laguntzaileak.

7. Artikulua NEURKETAK.

1. Euli eta pisu distantzia diziplinetan neurriak egoneko posizioan balioztatuko dira.

2. Doikuntza modalitatetan ukituak ala inpaktuak euliarekin ala pisuarekin balioztatuko dira.

8. Artikulua KIROL MATERIALA.

Onartu ekipoak ez direnak erabiltzeak Jaurtiketatik kanporatzea ekarriko du. Kanaberak, txirrikak, lerroak eta lastak ala pisuak 4. Artikuluan deskribatu Diziplinen arabera aurreikusitako izango dira. Laguntza Materiala: kanaberak gordetzeko euskarriak, zinta metrikoak, lerroen kalibrea egiaztatzeko mikrometroa, lastak kontrolatzeko balantzak, bere kasuan haizearen abiadura neurtzeko anemometroa eta distantziak neurtzeko laserra dira.

1. Kanaberak, txirrikak, lerroak, pisuak eta euliak diziplina bakoitzerako xedatu aginduekin egokitu beharko dira.

2. Txapelketa Ofizialetan, erabiltzen diren pisuak aurretiaz egiaztatu eta homologatu beharko ditu Kasting Batzordeak.

3. Lerroen eta pisuen inguruko tolerantzia.

a) LERROAK:

1. Diziplina Hautazko Eulia Arrantza
2. Diziplina Urruneko Eulia esku batekoa, gehi 0,20
5. Diziplina Urruneko Pisua esku batekoa, gutxiagoko tolerantziarik gabe
6. Diziplina Urruneko Eulia bi eskukoa, gehi 0,20
7. Diziplina Urruneko Pisua bi eskukoa, gutxiagoko tolerantziarik gabe
9. Diziplina Urruntasun anitzeko pisua, gutxiagoko tolerantziarik gabe
10. Diziplina urruneko 113 gramoko pisua, gutxiagoko tolerantziarik gabe

b) PISUAK:

- 7,5 gramo plastiko gehi / ken 0,15 gramo
- 18 gramo plastiko gehi / ken 0,3 gramo
- 113 gramo plomu gehi / ken 0,3 gramo

9. Artikulua KLUBEN LIGA: Azpi-espezialitate horietan ez da kontenplatzen.

10. Artikulua SAILKAPENAK.

1. Txapelketa ospatu ahal izateko aplikatu beharreko puntuazioak, diziplina ala konbinatu bakoitzeko Deialdi Oinarrietan kontsignatzen direnak izango dira.

2. Arautegi honetako Arau Generikoen Kasting txapelketetan ezaugarriak kontuan hartuta, ondorengo puntuazioak kontsideratuko dira:

a) GIZONEZKOEN BANAKAKO PUNTUAZIOA:

- Banakako Diziplinak 1-9
- 5 probako Konbinatua 1-5 Diziplinak
- 7 probako Konbinatua 1-7 Diziplinak
- 9 probako Konbinatua / 1- 9 Diziplinen zirkuitua

b) DAMEN BANAKAKO PUNTUAZIOA:

- Banakako Diziplina 1-5 eta 8-9
- 5 probako Konbinatua 1-5 Diziplinak
- 7 probako Konbinatua / 1-5 gehi 8 + 9 Diziplinako Zirkuitua

c) JUBENILEN BANAKAKO PUNTUAZIOA:

- Banakako Diziplina 1-5
- 5 probako Konbinatuak /1-5 Diziplina zirkuitua

d) SELEKZIOEN ARABERAKO PUNTUAZIOA:

- Gizonezkoak: (3 kide) 1-5 Diziplinak
- Damak: (3 kide) 1-5 Diziplinak
- Jubenilak: sexu/diziplinaren arabera kide kopuru berdina

e) 10. DIZIPLINAKO BANAKAKO PUNTUAZIOA

3. Banakako txapeldunen ezarpena:

a) Txapelduna da, ospakizun batean ala ospakizunen konbinaketan puntuazio handiena lortzen duen kirolaria.

b) Bi kirolari ala gehiago puntuazio berdinarekin suertatzen direnean:

1. Banakako ospakizun guztietan, txapelduna ospakizun partikular bakoitzeko emaitzen arabera erabakitzen da. Berdinketa hausteen emaitzak dira txapeldunen postu hurrenkera erabakitzen dutenak, baina emaitza onena nagusituko da.

2. 1, 3, 4 eta 8 probetan, berdinketa haustek denbora-epe laburrenean lorturiko puntuazio onenaren arabera erabakitzen dira. Distantziako probetan, kirolariak beste jaurtiketa bat egie. Euli distantzian, irteerarekiko minutu batera egingo dute jaurtiketa.

3. Berdinketen inguruko jaurtiketen hurrenkera zozketa bidez erabakitzen da. Berdinketa hauste guztiak aldi berean eta baldintza berdinekin egingo dira. Pista baino kirolari gehiago baleude, hurrenkera zozketatu egingo da. Berdinketa hauste guztietan, puntuazioa ez da jendarteratuko kirolari guztiek bere jaurtiketak amaitu arte.

4. Bi kirolari ala gehiagok edozein konbinaketan puntu kopuru berdina lortzen dutenean, lehenengo, bigarren eta hirugarren postua horien artean banatzen da. Arau berdina dagokio Selektiotarako.

5. Arau Generikoen V Kapituluaren aurreikusien arabera, Kasting modalitateak kontsiderazio berezia eskatzen du arlo honetan:

Txapeldunen eta Sarien kopurua:

1. BANAKAKO OSPAKIZUNAK:

- Gizonezkoen Diziplinako 1-9 Domina 1. a, 2. a, 3. a
- Damen Diziplinako 1-5, 7 eta 8 Domina 1. a, 2. a, 3. a
- Jubenilen Diziplinako 1-5 Domina 1. a, 2. a, 3. a

2. BANAKAKO KONBINATUAK:

- Gizonezkoen Konbinatuko 5 proba (1-5) 1. Saria
- Konbinatuko 7 proba (1-7) 1. Saria

Konbinatuko 9 proba (1-9) 1. Saria
Damen 5 probako Konbinatua (1-5) 1. Saria
7 probako Konbinatua (1-5 eta 8, 9) 1. Saria
Jubenilen 5 probako Konbinatua (1-5) 1. Saria

3. SELEKZIOAK:

Gizonezkoen 5 proba (1-5) 1. Saria
Damen 5 proba (1-5) 1. Saria
Jubenilen 5 proba (1-5) 1. Saria


4. 113 gr-ko ESTATU TXAPELKETA.:

Gizonezkoen proba bat (10). 1., 2., 3. Saria
Errekorrak: Sari berezia


* * * * *

II. ERANSKINA

Kasting pistak muntatzeko grafiko adierazleak




1. DIZIPLINA
EULI ARRANTZA




DISCIPLINA 3
PESO PRECISION 7'5 GR.

3. DIZIPLINA
7,5 GR-KO PISU-DOITASUNA.



4. DIZIPLINA

7,5 GR-KO PISU HELBURUA.




DISCIPLINAS DISTANCIA

DISCIPLINA 5
DISCIPLINA 7
DISCIPLINA 9

URRUNEKO DIZIPLINAK


5. DIZIPLINA
7. DIZIPLINA
9. DIZIPLINA



**18 GR-KO TXIRRIKA
BIRAKARIAREN
DOITASUNA.**

III. ERANSKINA


1, 3 eta 4 diziplinen Jaurtiketa baliodunen grafiko adierazleak



DISCIPLINA 1 - MOSCA OBJETIVO



DISCIPLINA 3 - PESO PRECISION 7'5 GR. (AREMBERG)




DISCIPLINA 4 - PESO OBJETIVO 7'5 GR.

1. DIZIPLINA - EULI ARRANTZA
3. DIZIPLINA - 7,5 GR-KO PISU-DOITASUNA (AREMBERG)
4. DIZIPLINA - 7,5 GR-KO PISU HELBURUA

IV. ERANSKINA

Ezaugarriak eta tolerantziak - pisuak 7,5 eta 18 gramo


PESO PLASTICO 7'5 GR.



TOLERANCIA:

LONGITUD	+/- 0'3 mm.
DIAMETRO	+/- 0'3 mm.
PESO	+/- 0'15 gr.
COLOR	BLANCO

PESO PLASTICO 18 GR.



TOLERANCIA:

LONGITUD	+/- 0'3 mm.
DIAMETRO	+/- 0'3 mm.
PESO	+/- 0'3 gr.
COLOR	BLANCO

PESO PLASTICO 7,5 GR. = 7,5 GR-KO PISU PLASTIKOA

TOLERANCIA = TOLERANTZIA

LONGITUD = LUZERA

DIAMETRO = DIAMETROA

PESO = PISUA

COLOR BLANCO = KOLORE ZURIA

PESO PLASTICO 18 GR. = 18 GR-KO PISU PLASTIKOA

TOLERANCIA = TOLERANTZIA

LONGITUD = LUZERA

DIAMETRO = DIAMETROA

PESO = PISUA

COLOR BLANCO = KOLORE ZURIA

VII B) KAPITULUA – ITSASOKO BOTALDI ASTUNA.

I. Artikulua DEFINIZIOA. Azpi-espezialitatea hau, FIPS-mer Federazioak arautua eta halaber FVPYC-en eskumenekoa, arrantza kanaberarekin eta txirrikarekin ahalik eta distantzia urrunenera eta xedatu poligono ala partzela baten barruan lasta ala pisu jakin batzuk jaurtitzean datza. Lorturiko distantzien neurketekin ebaluatuko dira, dagozkion Sailkapenak eratzeko lorturiko emaitza ezberdinak.

Itsasoko Jaurtiketa Astunaren praktika, merkatuko ohiko arrantza ekipoekin eginikoa, itsaso arrantza espezialitate guztietarako erabilgarria da; garrantzitsua izango da halaber arrantza ekipo berrien garapenerako eta horiek merkaturatzen dituen industrietarako.

Azpi-espezialitate honen eskumena Euskadiko Kasting Federazioari esleituko zaio, gure 10. Diziplinarekin antzekotasunak erakusten dituelako.

II. Artikulua TXAPELKETEN BANAKETA.

Partaideen adina eta egoera kontuan hartuta eta dagokion partaidetza ala inskripzio modua kontuan hartuta, Itsasoko Jaurtiketa Astunaren Txapelketak horrela banatzen dira:

A) Kategoriak: Jubenilak (U-21), Damak, Maskulinoa eta Absolutua, indarrean dagoen bere Txapelketa Arautegian Estatuko Federazioaren irizpideekin egokitzen diren adinekin.

B) Partaidetza ala inskripzioa:

Banakakoa
Lurralde Selekzioen arabera
Open (partaidetza askea)

3. Artikulua AGERTOKIA.

Itsasoko Jaurtiketa Astunaren txapelketetarako agertokia edozein zorutan ezarri ahal izango da, zeinetan jaurtiketa poligonoa ala eremua finkatu ahal izango den, Kapitulu honetako V. ERANSKINEAN islatzen diren trazatua eta dimentsioak kontuan hartuta. Probak garatzeko bidea ematen duten eremuetan, hondartzetan, estadiotan, etab. finkatu ahal izango dira, etortzen diren guztien beharrezko segurtasuna bermatuz.

1. Jaurtiketa Gunea, zeinetatik jaurtiketa egingo den, zoruan behar bezala finkatu beharreko 2,5 x 2,5 m-ko luzerako eta 20 cm-ko sekzio karratuko gune batean, aurrealdeko habearen muga barne. Mugaketa hori, bere kasuan, zoruan trazatu lerroarekin ala bandarekin ordeztu ahal izango da.

2. Jaurtiketa Gunearen inguruetan, kanaberen euskarriak eskuragarri jarriko dira.

3. Pixka bat urrunago kokatuko da Epaimahaia eta eta bere jaurtiketak egiteko prestatzen diren kirolarien itxarote-gunea.

4. Gehienez 20 metrora (segurtasun gunea) Jaurtiketa Gunearen atzean, kokatuko dira ikusleak.

5. Jaurtiketa Poligonoa. Isoszele triangelua da, zeinetan jaurti diren pisuak eroriko diren ea bere erpina, 30° sexagesimaleko angeluan, aurreko **1. Puntu**an deskribatu habearen ala taularen erdigunearekin egokituko da. Bere bi alde berdinak 320 m-koak dira eta bere oinarria 165 m-koa, hau Jaurtiketa Gunetik 309 m-ko distantzian geratuz (jaurtiketaren ardatz nagusia eta triangeluaren Altuera).

6. Ardatz nagusitik eta definitu triangeluaren bi albo luzetarantz, zoruan markak trazatuko dira 160 eta 250 m bitartekoak, 10 metroz behin, jarraian neurketak egiteko lagungarriak izanik. 250 m eta 320 m bitarteko gainerako distantziak (70 m-koa) segurtasunaren aurreko bigarren gunea eratzen du.

7. Txapelketa hasi aurretik, hautazkoa izango da zozketa bat egitea, pisuen kategoria bakoitzeko partaide bakoitzaren hurrenkera finkatuko duena. Bere kasuan, dagokion dortsala esleituko da.

Lehenengo zozketa proben aurretiko Ordezkarien Bileran egingo da.

Txapelketa jardunaldi ezberdinekin eratzen bada, Espezialitateko Batzordeak beharrezko segidako zozketak ospatzeko irizpideak ezarriko ditu, hala badagokio.

4. Artikulua GARAPEN ARAUAK.

1. Oro har, Txapelketak jaurtizeko garatuko dira pisuen lau kategorien arabera: **100, 125, 150, eta 175 gr.** Eta partaide guztiek lau pisu erabili beharko dituzte, Espezialitateko Batzordeak proposatu aldaketak izan ezik.

2. Pisu kategoria bakoitzean, partaide bakoitzak gutxienez hiru saiakera izango ditu erabilgarri. Jaurtiketak beti bi eskurekin egingo dira.

3. Partaide bakoitzak minutu bateko epe mugarekin kontatuko du bere jaurtiketa egiteko; denbora kirolaria Jaurtiketa Gunean sartzen den unetik kontatzen hasiko da; partaideak etortzen ez denean, nulua bezala kontatuko zaio.

4. Lerroak eta bere zubiak, arraste gidak ala terminalak.8 Artikuluaren 3 eta 4 puntuetan arautzen dira.

5. Lerroak zein zubiak Epaimahaiaren tresna ofizialekin egiaztatu ahal izango dira. Zubiak tarte etengabe bakarrarekin eratuko dira (lotunerik gabe).

Lerroen neurketa ezarri balioen azpitik dagoenean, horrela jokatu beharko da:

- Kontrola, lerroaren hiru puntu ezberdinetan; neurketa bat ezarri kalibrearekin egokitzen denean, jaurtiketa onartzen da.
- Hiru neurketak erreferentziatzeko balio ala kalibreen azpitik baleude, jaurtiketa nulua da. 5/000 eta 1/00 mm bitarteko tolerantzia onartzen da..
- Lerroko kalibrearen neurketak 1/00 mm-ko tolerantzia horren azpitik daudenean, partaideak dagokion pisuaren kategoriatik soilik kanporatuko da.
- Lerroan diametro ezberdineko tarte ezberdinak aurkezten baditu, horrek Txapelketako deskalifikazioa ekarriko du.

6. Nazioen arabera Munduko Txapelketetan, Taldeak bost partaiderekin eratuko dira; Estatuko Txapelketak eta Selektzioaren arabera Estatukoak eta gainerako Kontrol ofizialak, gutxienez hiru kirolari partaiderekin eratuko dira, kopuru hori Deialdiaren Oinarrietan hedatu ahal izanik.

7. Jaurtiketa Guneako posizioa eta ardatz nagusiaren orientabidea Epaimahaiak aldatu ahal izango ditu hiru milako abiadura baino haize handiagoa dagoenean. Biraketa, bere kasuan, partaide guztiek jaurtiketa kopuru berdina egin duenean egin ahal izango da.

5. Artikulua PORTAERA ARAUAK.

1. Partaideak ez du Jaurtiketa Gunea utziko, pisuak jaurtiketa poligonoan zoruak ukitzen duen arte.

2. **Jaurtiketa estilo onartuak:** PENDULUA, AURREZ AURREKOA (overhead ala buru gainekoa), 'BOLEA LATERAL' (jaurtiketa hego-afrikarra) eta BACK-CAST bider O.T.G. (off the ground) edota zorutik atzerantz eginiko jaurtiketa.

3. Beste jaurtiketa estilo batzuk onartu izango dira, baldintza da –jaurtiketa orotarako komuna- 320° sexagesimal baino errotazio handiagoa inola ere ez onartzea.

4. Jaurtiketaren inguruko kontsiderazioak:

a) Jaurtiketaren unean pisuak zoruak ukitzen badu Jaurtiketa Guneatik kanpo, lerroa txirrikatik askatu gabe, jaurtiketa errepikatu ahal izango da; zoruaren ukitzea Jaurtiketa Gunearen aurrean jazoko balitz, jaurtiketa hori nulua izango litzateke.

b) Jaurtiketa batean, partaideak Jaurtiketa Gunea zeharkatzen badu edota lasta jaurtiketa poligonotik kanpo geratzen bada, jaurtiketa bere horretan kontsideratuko da baina ez da balioduna izango.

c) Jaurtiketa bakoitzean, lerroa osorik geratu beharko da, jaurtiketa fasean eta pisua berreskuratzeko fasean. Hausturaren kasuan ("crack-off"), jaurtiketa nulua kontsideratuko da.

d) Hausturaren arrazoia alde batera utzita, hori eskusiboki partaidetari dagokio, eta honek Epaila/Kontrolari horren berri eman beharko dio, bere kasuan lerro berreskurapenaren eta pisuaren berri emango dion bezala.

e) Galera berreskuratzea lortzen ez bada, Epailak hurrengo jaurtiketarako erreserba pisuaren erabilera onartu ahal izango du.

f) Pisu kategoria bakoitzean, partaide bakoitzak gutxienez hiru jaurtiketa eta gehienez bost egingo ditu, inskribatu kirolari kopuruaren arabera. Jaurtiketen behin-betiko kopurua Batzordeak definituko du Ordezkariei/Kirolarien aurretiko Bileran.

g) Jardunaldi bakoitzaren amaieran, proben inguruko behin-behineko emaitzak argitaratu aurretik, kokatu gabeko hausturen ondorioz lerroak eta/edo pisuak erabiltzen direnean, partaide guztiak horien bila jardungo dira, galdu diren materialak kokatzeko eta berreskuratzeko.

6. Artikulua KONTROLAK.

Proben garapenean zehar, Epaileak Kontrolen presentzia eta laguntza eskatu ahal izango du, neurketen laguntza beharrak estaltzeko kopuru egokia dela medio. Kontrolen kopurua Txapelketan inskribatu partaide kopuruaren arabera izango da eta Txapelketaren aurretiko Ordezkarien Bileran jakinaraziko da.

7. Artikulua NEURKETAK.

1. Jaurtiketa poligonoan lasta jaurtitzean eta honek inpaktua egitean, Epaile (Kontrolak banderatzeko ala adierazle bat jarriko du(jaurtitzaileari esleitu zenbakiarekin) hain zuzen pisu jaurti berriaren alboan, baina ukitu gabe. Pisua eta seinalea zoruan geratzen dira eta bere neurketa egingo da. (Laserra lehenetsiko da)

2. Partaideek neurketa jarraituko dute, bere emaitza ezagutuko dute, honen plikaren transkripzio zuzena zainduko dute, ondorengo erreklamazioak sortu ez daitezen eta sinatuko dute, bere kasuan, dagokion plika. Neurketak laser optikoarekin ala metalezko zinta metrikorekin egingo dira eta neurketa pisuaren inpaktu puntuaren eta 3.1 Artikuluan deskribatu Jaurtiketa Gunetik punturik hurbilenaren arteko distantzia laburrenaren arabera egingo da.

Distantzia metroan eta zentimetroan neurtuko da; zentimetro baten frakzioa zentimetro osoa bezala kontatuko da.

8. Artikulua KIROL MATERIALA.

1. **Kanaberak.** Itsasoko Arrantza Astunaren kanaberetan hautazko luzera eta eraketa aurkitzen ditugu, bere muntaketan gutxienez lau eraztun erabiltzen direnean. Jaurtiketan, lerroa eta bere zubia kanaberaren eraztun guztietan zehar lerrokatu behar dira.

2. **Txirrikak.** Itsasertzetik arrantza egiteko txirrika mota oro onartzen da. Txapelketa bakoitzean, Espezialitateko Batzordeak Deialdi Oinarrietan partaideen eta/edo jaurtiketen azpi-banaketa bat ezarri beharko du, txirrikako bobina finkoa ala birakaria izatearen arabera.

3. **Lerroak.** Lerro nagusia monofilamentuzkoa izan beharko da, ahal bada fluoreszentea eta zilindrikoa, luzera osoari dagokion diametro berdinarekin.

Bere diametro minimoak, pisu kategoriaren arabera izango da:

- 25/00 mm. 100 gr-ko pisuetarako.
- 28/00 mm. 125 gr-ko pisuetarako.
- 31/00 mm. 150 gr-ko pisuetarako.
- 35/00 mm. 175 gr-ko pisuetarako.

4. **Lerro azpiak. (Zubiak).** Azpi-espezialitate honetan ez dago arrantza aparailu berezirik erabilgarri. Baina jaurti beharreko pisuen neurketak eta Txapelketako partaide guztien segurtasunak eskatzen du lerro bakoitza arraste gida ala zubi sendoagoan amaitzea, jaurtiketa kolpea jasango duena.

Halaber tarte bakarreko monofilamentuarekin eratuko dira eta bere luzera, txirrikaren bobinan gutxienez zortzi bira emanek kiribiltzea ahalbidetuko duen kanaberaren arabera.

Bere diametro ala erresistentzia minimoak, lerroen eta pisuen kategorien arabera izango dira:

- 27 Kg. (60 lb.) ala 70/00 mm-ko diametroa, 100 eta 125 gr-ko kategorien pisuetarako.
- 36 Kg. (80 lb.) ala 80/00 mm-ko diametroa, 150 eta 175 gr-ko kategorien pisuetarako.

5. Lastak. (Pisuak).

a) 4.1 Artikuluan deskribatu pisu lastek, ebakidura ala karrakadurarik gabeko forma aerodinamikoa izan behar dute.

b) Kolore fluoreszentearekin margotuko dira eta Organizazioak dagokion zozketaren zenbakiarekin ala kirolariaren dortsalarekin markatuko ditu.

c) Txapelketako Organizazioak hornituko ditu, hura hasi baino lehen eta pisu kategorია bakoitzean bi unitate prestatuko dira: Eraginkorra bata eta ordezkioa bestea.

d) Lerroko zubiarekin elkartuko dira eraztun ebakiaren bidez, Organizazioak aukeran hornitzen duena izanik.

6. **Laguntza elementuak.** Organizazioaren horniketa izanik, Epaileentzat erabilgarri jarriko dira, horiek arauen konplimendua egiazta dezaten.

Kanaberetako euskarriak, zinta metrikoak eta distantziak neurtzeko laserrak, lerroetarako eta zubietarako mikrometroak, pisuak egiaztatzeko balantzak eta bere kasuan, haizearen abiadura neurtzeko anemometroak neurtzeko laserrak eraten dituzte.

9. Artikulua ITSASOKO BOTALDI ASTUNERAKO KLUBEN LIGA. (KATEGORIA ABSOLUTUA).

Azpi-espezialitate hau ez da kontenplutzen.

10. Artikulua SAILKAPENAK.

1. Emaizak ebaluatzeko puntuazioak, 7.4 Artikuluaren arabera eginiko neurketen arabera egingo dira.
2. Pisu kategoria bakoitzerako Banakako Sailkapena eratuko da.
3. Pisu kategoria bakoitzeko banakako sailkapenatarako partaide bakoitzaren jaurtiketa onena adieraziko da, balioduna bakarra lortu izango balu ere.
4. Itsasoko Jaurtiketa Astunerako Txapelketen garapenean pisu kategoria bakoitzeko Jardunaldien ala txanden eskema jarraituko da, Espezialitateko Batzordeak ezartzen duen hurrenkeraren arabera. Oro har, horrela izango da:

1. Txanda: Kategoria 100 gr."X" tiro partaide bakoitzeko
2. Txanda: Kategoria 125 gr."X" tiro partaide bakoitzeko
3. Txanda: Kategoria 150 gr."X" jaurtiketa partaide bakoitzeko
4. Txanda: Kategoria 175 gr."X" jaurtiketa partaide bakoitzeko

Zeinetan "X" hiru eta bost arteko zifra izango den, 5.4 f) Artikuluaren edukia kontuan hartuta. Eta bere behin-betiko balioa, partaidetza errealararen arabera, Deialdiaren Oinarrietan adieraziko da edota Txapelketa hasieraren aurretiko Ordezkarik/Kapitainen Bileran finkatuko da.

I.-) TXANDAKO BANAKAKO AMAIERA SAILKAPENA.

1. Pisu kategoria bakoitzean, Sailkapena partaide bakoitzak metrotan eta zentimetrotan lortu tiro onenarekin erabakiko da, horien hurrenkera txikienetik handienara izanik, gero horien sailkapen **postuen** hurrenkera txikienetik handienara izatera pasatzeko.
2. **Txandako berdinketak.** Pisu kategoria berean jaurtiketaren berdinketa jazotzen denean, bigarren tiro onena kontsideratuko da, jazo bada, tiro horien artean eta bigarren jaurtiketa balioduna eskaintzen ez bazaie, sailkapen postu berdinarekin geratuko dira. Sailkapeneko hurrengoari, berdinketa kopuruaren araberako postu zenbakia emango zaio.

II.-) AUTONOMIA SELEKZIOEN ARABERAKO SAILKAPENA.

1. Autonomia Selektzioa da, Autonomia Federazio berean inskribatu kirolari partaide guztien multzoa.
2. Selektzioen araberako Sailkapenaren xedeetarako soilik, Autonomia Federazio batean **hiru** kirolari partaide daude, Banakako Amaiera Sailkapenean postu onenak lortu dituztenak.
3. Autonomia Selektzio bakoitzerako, pisu kategoria bakoitzean, bere hiru jaurtitzailerek lorturiko metroak eta zentimetroak batu ohi dira.
4. Gero pisu kategoria bakoitzean lorturiko zifrak batzen dira eta Selektzioak antolatzen dira, hurrenkera txikienetik handienara izanik.
5. Jarraian, **postuak** berrantolatuko dira hurrenkera txikienetik handienara izanik, Lurralde Selektzioen Amaiera Sailkapena eratuz.
6. **Berdinketa hausteak.** Selektzio batean berdinketa jazotzen denean, Finalean banakako postu onenak lortu dituen nagusituko da.

* * * * *

